

HAU ERE GERTATU ZEN

Xabier Amuriza

*Apaiḡ garaian ezagutu nituen
kide borrokalariei
eta beste maila bateko
lagun maitagarriei*

AURKIBIDEA

Zortzi eguneko meza bat	3
Bandera espainola aldarera	18
Fuldain	26
Nik ezin dut hau sinatu	37
Déjenme solo con este curita	40
Hemen duzue kopoi santua	44
Don, Don, Don	56
Don Blas	58
Non sinatu behar da?	60
Don Eustakio	67
Don Ferrol	71
Don Kastor	76
Anaia apaizak	79
Don Zirilo	85
Aita Fidel	88
Eako kuartelean	90
Don Kasiano ere	103
Kuartelean I	110
Kuartelean II	114
Ezabapen orokorra	116
Don Klaudio mukan	125
Sarriko	129
Denbora paraleloa Erroman	135
Gastibeltza gehi Karajan	159

ZORTZI EGUNEKO MEZA BAT

Bizkaiko txorien herri batean, kanpandorreko lau kanpaietako hirugarrenak igande goizeko lehen zortziak jo zituenean, apaiza prest zegoen sakristiatik aldarera irteteko. Meza-sarrera ziragarten hiru dandak entzun behar zituen, baina sakristauak ez zion tiratu elizpean dingilizka zegoen sokari. Apaizak, mezako jantzita, zain zerraien, eta minutu batera, bigarren zortziak entzun ziren erloju-kanpaian. Sakristauaren absentzia serorak bete behar zuen, baina biak falta ziren, antza, batera gaixotzeko zeukaten maniagatik. Akolitoak ere falta ziren. Hauen atzerapena ez zen hain ohigabea, bideko txoriengatik edo kaleko katuengatik. Apaizak, mezarik solemneenetan bezala, sakristiako ate ostean zegoen argi-koadroko giltza guztiei eman zien, eta irtetea erabaki zuen. Aldarera iristean, gorantz begiratu zuen, begiak sakristiako erdi-ilun hezetik elizako argiztapen biziégira egokitzeke. Begirada jaistean, argiaren miraria aurkitu zuen. Eliza, hutsik! Ez zegoen inor!

Apaizak ez zeukan dudarik. Zerbaitegatik, elizako atea itxita edo trabaturik zegoen. Bazihoan eliza hutsean zehar ate nagusirantz, ireki eta kristauak sar zitezen. Barne-atea ez zegoen giltzaturik, ez trabaturik. Normal ireki zen. Lau

urratsera, kanpo-ate astuna ere –harrigarria!–zabalik zegoen. Non zegoen orduan koska?

Atalasea elizperantz zeharkatuz batera, ikustea gehiago kostatu zitzaion sinestea baino. Elizpearen espaloiak mugatzen zuen kalea, errepide ere bazen herriko kale nagusi luzea, guardia zibilez beterik zegoen, tanketa bat erdian zela, kanoi-gora. Agente guztiek beraganantz biratu zuten burua. Atariko arkuaren zutabe baten kontra dilindatzen zen sokari heldu zion apaizak eta hiru danda pausatu eta indartsu jo zituen, daun-daun-daun, mezaren hasiera iragarritz. Elizako atearen parera itzuli eta hantxe gelditu zen, begira, besoak gurutzaturik albaren mahuka zabaletan, zain-jarrera nabarian. Norbaitek etorri behar zuen, antza, bera handik mugituko bazen, eta ez zirudien Godot izango zenik. Kostata bazen ere, minutu bat eta bi pasatu ziren, hiru eta lau ere bai. Hamar minutura, guardia zibilak artegatzen hasiak ziren, batez ere hamaikagarrenean, apaizak hiru dandak berriro jo zituenean, berdin pausatuki, baina indartsuago. Berriro begira eta zain, denbora ikusezinari erradiografia ateratzen bezala. Hamahirugarren minutuan, destakamenduaren buruak, Canela kapitainak, tanketa kontratik oihiu egin zuen:

- Eman dezake berorrek meza!
- Nik ez dut meza autofagorik ematen –erantzun apaizak.
- Geuk lagunduko diogu.
- Nori berea, zuena balitz nirea.
- Zer enigma da hori? –Canela kapitainak.
- Nik Jainkoaren Herriarentzat ematen dut meza.
- Geuk entzungo dugu hemendik.
- Ez nago ziur hori Jainkoaren Herria litzatekeen.

–Orduan, hain gabe beharko du berorrek, inor ez baita etorriko.

–Ideia on bat eman didazue.

Apaizak elizpeko kanpai sokari heldu zion eta, meza hasierako hiru danden ordeztu, erritmorik hautsienean joaldian murgildu zen, kanpaia zoratu bailitzan. Kalearen mutur bietako guardia zibilengan efektua eragin bide zuen alarmak, unitate berriak agertu baitziren erdira, zer matxinada sortu ote zen. Solemnitate guztiekin jantzitako apaiza kalearen goi alderantz abiatu zen, astiro eta buru-gora, irribarre estoikoak eginez leihotatik ostean suposatzen zituen begiei, harategi gainean bizi zen errementari begibakarrari, adibidez. Canela kapitainari ez zitzaion otu apaizaren ibilera moterik, meza-jantzi maiestosen erreparoz duda gabe. Apaizak, kale buru urrunera iristean, jende multzo handia aurkitu zuen bertan, guardia zibilaren beste tanketa batek eta lerro bikoitzak iragaitza moztu zutela, zeintzuen buruak oihuz eraso baitzion:

–Nora doa berori?

–Neure kristau herriari jakinarazi beharko diot meza suspenditzen dela, ezta?

–Egin beza dagoen lekutik. Hesi hau ezin da pasatu, ez barrurantz, ez kanporantz.

Apaizak, ahots ahalik gorenez, jendetzari jakinarazi zion:

–Herritar eta eliztar maiteok! Zortzietarako iragarrita zegoen meza bederatzieta atzeratzen da. Giro lasaiagoa izango dugulakoan, har ezazue nire bedeinkapenik bihozkorrena.

Apaizak kalearen beste muturrerantzko abioa hartu zuen, berdin astiro eta buru-gora. Meza-jantziek ez zuten uzten

beste abiadurarik. Kale buruko guardia zibilak, euron tanketak bezala, euskaraz ez jakinik, lasaitu ziren, iragarpenaren edukia mezaren «suspentsioa» izan zelakoan. Harik eta norbaitek, oso laster, egoera zertan zen jakinarazi zien arte. Walkie-talkie bidez, kale burukoek kale barrenekoei eta erdikoei abisua pasatu zietenean, gorputz benemeritua kale zaharra arriskuan jartzeraino sutu zen. Zortzi eta erdiak aldera aurreikusia zuten erretira suspenditu beharra zegoen.

–Abade putok eta euren putakeria graziosoak! –sarjentu batek—. Goi tentsioko kableetan eseki behar lituzkete, orain mania sartu zaien ikurrin madarikatuen ondoan.

–Hemen putakeria duk –agente batek–bederatzieta erreleboari itxaron beharko diogula. Haiek hona etortzerako, hamarrak.

–Eta gu etxera iristerako, hamaikak! –beste agente batek.

–Agindu ogitarteko batzuk! –Canela kapitainak oihu.

–Taberna guztiak itxita daude, jauna!

Nobedadea eliza aurreko tanketa eta agenteen multzora heldu zenean, indignazioa sutu zen. Apaiza bueltan agertu zen, haranzkoan bezain gailentasun solemnean. Antigoaleko kale luzearen bihurgune batean, areago zirudien hegazti fabuloso baten agerpena. Indignaziotik nora pasatu ez zekitela, apaiz kanpai-joleak, elizarantz hartu beharrean, kale barrenerantz zerraiela ikusi zuten. Halako erakunde batentzat onartezina zen zalantza une baten ondoren, Canela kapitainak oihu egin zuen:

–Nora koño doa berori? Uste al du kalea hustu dugula apaiz katxondo bat gora eta behera paseatzeko?

–Ezin al dut neure eliztarrei zertan garen jakinarazi?

–Infernura berori eta berorren eliztarrak! Hemendik ez da berori pasatuko!

Apaiza elizpera sartu zen eta, eguratsak belztutako soka lodiari berriro heldurik, kanpai-jotze beroa abiatu zuen.

Bederatzietatik laster, ordena-indarren erreleboa hasi zenean, zetozenen eta zihoazenen erdi amorruez, erdi adar-soinuz, herri baten okupazio bikoitzak mobilizazio eskatologiko baten antza hartu zuen, non ez baitzegoen argi zihoazenak agurtzen ala zetozenei oles egiten genien. «Holako ostiarik! Abadea kanpai jotzen eta amama taloginan!».

Hamarretan meza nagusia zetorren. Kantatua, argitsua eta luzeagoa. Herritarrak goizeko mezarako baino hobeto jantziko ziren, «igandeko» alegia, batez ere emakume helduak, «hobien ardura» zekartenak etxeko zenduen alde. Elizkizun hartarako asmoz abiatuak ari ziren herriko alde guztietatik hurbiltzen, eta amama batek, kale buruko hesira iristean, eta halako jendetza geldi ikustean, galdetu zuen:

–Zezenak al ditugu?

–Bai, amama! –herritar batek—. Abadeak inozente-eguna aurreratzea pentsatu du, antza.

–Jesus! Gurean, batzuontzat, inozentzia urte guztikoa da.

–Amama! –herritar berak—. Ezin zara pasatu. Guardia zibilak daude hor.

–Guardia zibilak? –amamak—. Alkatea hil al da?

Kanpai-jotzeak eten bat izan zuen, seguruenik apaizak atsedean hartzeko. Guardia zibilak liberaturik bezala sentitu ziren, ez hainbeste, kanpaietatik, nola kontaduria fatidikotik, zeren apaiz «putazilak», agenteek ziotenez, ez baitzuen beti hirunaka jotzen, inoiz bi edo lau baizik, eta batzuetan, erritmoa erabat hautsiz. Errelebo irtetunaren Patrol berdeak

Bilboranzko errepidean ezkutatu zirenean (tanketak kalean gelditu ziren), herria itxura normalera itzuli zen, hots, ikusten ohiturik zeuden okupaziora. Apaizak, bederatzi eta erdietan, meza nagusia iragarri ohi zuen kanpai-jotze luzea abiatu zuen. Berdin laurden gutxiagotan, eta nola ez, mezaren hasieran. Meza hau nagusia izanik, kanpaiek ere solemnitete osoan aldarrikatu behar zuten.

–Meza nagusia ere eragotzi behar al duzue? –galdetu zuen oraingoan longain plubialez jantzitako apaizak, eliza aurreko tanketara hurbildurik.

–Hemen inork ez du mezarik eragozten –erantzun kapitainak–, ez arruntik, ez nagusirik, asistentzia subertsiboa baizik, apaiz konfesional batek ondo jakin behar lukeen moduan.

–Ulerturik!

–Nora doa berori? –alto eman zioten, kale barrenerantz abiatu zenean.

–Kristauei ezin al diet jakinarazi meza suspenditzen dela?

Suspenditze kontua pozik entzun zuten. Lehen errelebokoek ez zioten garbi jakinarazi, nonbait, bigarren errelebokoei «suspentsioaren» esanahi zehatza. Behe aldeko herritarren kontzentrazioa ez zuen gutxi berotu apaizaren agerpenak. Bere longain gorri-laranja eta urdin biziaren azpian, distantzia batera fenix lurreratu bat zirudien. Agente sosprestuek aise onartu zuten suspentsio-oharra zelakoaren iragarpena, honela egin zuena ordutik ordura pizten zen Don Fidelek:

–Kristau agurgarriok! –beso biak jasoz, «Jauna zuekin» agurrean bezala–. Pentsatutako meza hamarretan ospatzerik ez dugunez gero, hamaiketan saiatuko gara. Goikoei zeuek

pasa abisua, ze niri difficile erit. Hamaiketan similiter gerta baledi, hamabietan dateke ultimus conatus. Eta bestela, arratsaldeko arrosarioan, in nomine Patris eta Filii eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Azken hitzon bedeinkapen keinutik, inertzia formalak «Aitaren» egitera arrastatu zituen agente benemerituak ere, zeintzuek gero ez baitzituzten hortzak gozo karraskatuko, apaizak zer abisu eman zuen jakitean, latina baino hizkuntza ilunago hartan. Hamaiketan eta hamabietan argi zegoen jarduera berdinak jarraituko zuela, errutina bihurtzetik salbatuko zuten nobedade batzuk salbu. Guardia zibilari ez zitzaion falta bestelako lanik ere, zeren, kalea errepide nagusia zenez gero, trafikorik ezin baitzen moztu, geroz ugariago berau haran jendetsuan zehar, batez ere, kostaranzko norabidean, hondartza exzitanteen bila. Hain kale estuan, igandez erdi galdurik zebilen kamioiren bat agertzen bazen, diseinu geometrikoak egin behar ziren tanketekin gurutzatzeko, alde bietatik elkarri musu eman nahirik lez luzatzen ziren balkoiak ez jotzeko.

Hamabietako meza-sarrera entzun behar zenerako, herria kaos totala zen. Guztien pozerako, hamabi eta erdietan apaiza kaleko jantzirik irten zen, eta kaosa, bat-batean, gardentasun bilakatu zen. Herritar eta erbestetarrek apaizari kemen eta zorion opatu zioten. Guardia zibilek ere, bat-bateko euforia garaile baten eztanda zirudien hura nola gobernatu duda handiak zituzten arren, erretira gozoa irudikatu zuten kuarteleko bazkarirantz. Apaizari kostatu zitzaion kale burura iristea, non jendeari orri bat entregatu baitzien. «Laburra eta erraza da, ahoz aho zabaltzeko modukoa». Guardia zibilari ere eskuratu zion kopia bat, esanez: «Zuei ere ondo etorriko zaizue jakitea, inor jazartzen edo interrogatzen ibili beharrik

izan ez dezazuen». Agenteei hitz horiek eta herritarrei «gero artel!» esanik, berrogei bat metro beherago, ibai ondoan zeukan Guzzi moto gorri singlea harturik, apaiza mendaterantz aldendu zen.

Minutu batzuetara, guardia zibilaren kapitain entzutetsuari norbaitek itzuli zion orriak zer ipintzen zuen. Bere Patrolaren barruko kanpaina-telefonora itsatsita zegoen, okertasun groteskoan, guanteratik entzungo balu bezala, gorputza zurrun, baina esku libreak konexioa ala haserrea adierazten zuen ez igartzeko moduan. Gobernadore jaunarekin hizketan zirudien. «Eta orain zer egin behar dugu? Apaiz zerri honek, arratsaldeko arrosarioaren ordezt, meza iragarri du. Bai, jauna, baina zer? Destakamendu guztia arratsaldera arte berton egonarazi behar al dut? Bai, noski, horretarako gaude. Ez, jauna, ez! Eliza hutsik dago, baina kaleak beterik. Ondo dago. Gelditu behar bada, geldituko gara, baina hau oso okerrerrantz doa. Bai, jauna, bai! Izango du berorrek informazio zehatza eta etengabea».

Apaizaren azalpen-orriak zioen:

«Kristau eta herritarrok! Badakizue gaurko goiz guztia nola joan den. Parrokia honi meza bat eskatu zaio Txabi Etxebarrietaren arimaren alde, ustezko lehen ETAkide hila berau. Eliza ez da nor gizaki baten arima kondenatzeko. Areago oraindik, zenbat eta bekatariagotzat joa izan, hainbat beharrago da haren arimaren alde otoitz egitea. Elizak ez ditu ukatzen gerrako kriminalen alde eskatzen zaizkion mezak ere, ondo dakizuen moduan gure azken gerran galtzaile gertatzeko zoritxarra izan zenutenok. Gaur zuen fede-eskubideei aurrez aurreko eraso guztiz bidegabea egin zaie, noren eta katolizismoa bere lege organikotzat aldarrikatzen duen

erregimen konfesional baten aldetik. Oinarrizko elkartasun fedezko eta herrizko horretantxe saiatu gara, kristauok egintzarik sakratuentzat daukagun meza santuaren bitartez. Goizean ezin izan denak merezi du ahaleginaren jarraipena. Beraz, arratsaldeko lauretan, ohiko bezpera eta arrosario santuaren ordeztu, meza izango duzue, eskaintza eta intentzio berdinez. Lauretan ezin balitz, bostetan, bestela seietan, bestela zazpitan, eta azken ahalegina, zortzietan. Itxaron dezagun eragozleek eta eragozleen goi agintariekin birpentsatuko dutela, eta lauretako elizkizunarekin amaituko dela gure fedeak eta herritasunak merezi ez zuen amesgaitz hau. Zuen abade, Don Fidel Uralde».

Hiru eta erdietan, apaiza bazetorren elizarantz kale luzean zehar, ibai lehortuan behera ur bila letorkeen lehoi nabarra bezala.

–Arratsaldean ere jarraitu behar al du festibalak? –galdetu zion Canela kapitainak elizpeko sarreran. Erantzuna ez zen berehala etorri apaizaren aldetik.

–Bai, nonbait, zuek ere zain zaudete eta.

Apaizak kanpai-sokara jo zuen zuzen, berak ondoen zekien edo itxuraz gehien gozatzen zuen langintzara. Laurden gutxiagoetan, Canela kapitainak kalea husteko agindua oihukatu zuen, kanpai luzanga antzeko esku-megafono batetik. Ezetz? Tiro bat airera! Hain kale estu eta balkoitsuan, airera tiratzeko punteria behar zen. Beste bi tiro entzun ziren gorantz eta beherantz, eta kalea txistuka eta garrasika hustu zen, edo ezabatu zen. Lauretan, apaizak ohiko hiru dandak jo zituen, astiro eta sendo. Inor ez zela inondik ageri ikusirik, kale bururantz abiatu zen. Canela kapitainak bidea moztu zion, esanez:

–Ez da hemendik pasako berori.

–Pozik nentzuke zergatik.

–Neuk diodalako!

Don Fidel elizpean paseatzen hasi zen, alderik alde. Meza-jantzien solemnitare bakartiak inpresio zentzugabea zeragien, denboraren lentotasun urdurigarrian. Lauretan, bostetan, seietan, zazpitan eta zortzietan erritual berdina errepikatu zen. Canela kapitainak, bere Patrolaren barrutik, lepo-zainak lehertzeaz oihukatzen zuen:

–Bai, gobernadore jauna! Berorrek entzun duena berbera. Festibalak datorren igandean jarraituko du! Igande osoan, bai! Haur mukizu bati kendu diogun paper kakatsu batek dio: «Eskerrik asko eta zorionak herriaren okupazioari horren tinko eta duinki eutsi diozuelako. Gaur ez digute utzi arima baten aldeko eginkizun kristau eta onbera bat betetzen. Agintariak, bai zibilak, bai eliztarrak, aste barruan giza eta kristau senara itzuliko diren itxaropenez, datorren igande goizeko zortzietan izango da Txabi Etxebarrietaren aldeko meza. Ordu horretan ezin balitz, kanpaien bitartez jarraituko dugu harremana. Bego Jainkoa zuekin, toki guztietan dagoenez gero». Zer deritzo berorrek? Bai, jauna! Berorren aginduko beti.

Canela kapitainak iragarritako «albisteria» abian zen, itxarotekoa zenez, komunikabide guztietan. «Apaizen errebelioa». «Zisma politikoa Elizan». «Biolentziaren estalpea aldarera». «Separatismoa mezako janzen». «Ordena publikoaren indarrei laido». «Erregimen ongileari desafio bat». «Nork geldiarazi behar du eskandalu hau?». Egunean bertan eta hurrengo aste guztian, telebisioa eta irrati eta egunkariak titular horiekin zebiltzan. Asteko egunek aurrera egin ahala,

iganderako espektazioak areago zorrozten eta tenkatzen zituen aldeko eta kontrako sentimenduak.

Kontuan izanik egintza hura (Etxebarrietaren aldeko meza) ez zela nobedade puntual bat, baizik Euskal Herri osoan zebilen kanpaina bero baten katebegi bat gehiago, kontatzen ari garenak, bere gauzatze hain bitxi eta luzatuaren ondorioz, aktualitate gorria ezarri zion egoera orokorrari. Egun hura gutxik itxaroten zuen hurrengo igandean errepikatzeko erarik izango zenik, baina milaka lagun hurbildu ziren, edo hurbiltzen saiatu ziren, oraingoan Euskal Herri osotik.

Gutxik itxaroten zuen, baina gertatu zen. Diktadurek ere badakite, batzuetan, ezustekak izaten. Apaiza ez zen izan atxilotua, ez meza debekatua. Aldagai bakarra, aipatu herriaren okupazio bortitzez gainera, izan zen ezen, zortzietako meza zapuztuaren ondoren, apaizari ez ziotela utzi elizpetik inoratzen, meza-deia hurrengo ordura pasatzen zela iragartzeko. Beharrik ere ez, guztiek baitzekiten aurreko igandeko gidoia errepikatuko zela. Don Fidelek bere kanpai-jotzeari ekin zion, mezako jantzita beti ere, solemnitaterik osoan.

Kalearen mutur batean, baserri urruneko esnezale bat, andre adintsua, astoarekin agertu zen, urian ohiko esne banaketa egitera, ondoren meza nagusia entzuteko asmoz.

–Andre eta asto! Ezin da pasatu! –hots egin zioten guardia zibilaren kordioan, eta andreak galdetu:

–Lasterketaren bat dago ala?

Eguna tentsioz kargatzen joan zen. Kanpai-danden eta tanketa burrundaren nahaste eskizoida. Eguerdia iritsi zen, eta Canela kapitainak birao egin zuen suturik:

–Putxa doneen urdemaria! Apaiz pitogorri batek kanpai-joko xotil batekin lortu behar al du nahi duena, geu bitarteko garela? Kabo gidari! Hasi kalea tanketatzen, gora eta behera.

–Behera beharko, jauna, arrankatuko badu.

–Gora esan diat! Egin agintzen zaizuen.

Don Fidelek, bazkal ordua libre utzirik, arratsaldeko lauretan berrabiatu zuen bere langintza: kanpai-sokari tiratu eta meza iragarri. Canela kapitainak bere aparatu txikitzaile guztiari eusten jarraitu behar izan zuen. Eta jendearen pilaketa handitzen zihoan ordutik ordura. Don Fidelek azken mezaren kanpaiak iluntzeko zortzietan jo zituen. Joaldi uste baino laburragoaren amaiak indar benemerito guztien gogoak baretu bide zituen, operazioaren azkena hurbil ikusiz, baina aurpegiak laster zimurtu ziren berriro, organoaren hotsa entzun zenean, tutti fortissimoan. Händelen «Alleluya».

–Apaiz musikaria, gainera? –galdetu edo purrustatu zuen Canela kapitainak—. Zertatik diat nik musika horren aditzea?

Oroitu zen, Francoren Bilbora etorrerako segurantzaren parte hartzea egokitu zitzaionean, esker-ematearen elizkizuna amaitutakoan, musika harek hotsanditu zuela Begoñako basilikatik irteera. «Alleluya! Alleluya! Alleluya!». Zerbait handia ospatzen zen orduan. «Zer ospatzen ari gaituk orain?». Canela kapitainaren oroitzapenak ezin izan ziren asko luzatu, musika entzuten erdi suspentsuan egotetik oso berehala, apaiza jada kaleko agertu baitzen elizpera. «Consumatum est!». Bazihoan inori ezer esateko asmo gabe, eta Canela kapitainak eraso:

–Amaitu al da festibala?

–Nirea bai. Zuen ez dakit. Eskerrik asko, meza soil bat eragotzi nahian, omenaldi ikusgarriena eskaini diozuelako... arima aipaezin horri.

Don Fidelek ezin izan zuen meza troiar haien jarraipenik iragarri hurrengo iganderako, bera ordezeko egiten ari zen parroko titularra iluntze hartantxe itzuli baitzen kargura, Errioxako oporretatik. Hala ere, hirugarren igandean, Canela kapitainaren mandatariak paisano agertu ziren Don Fidelen sermoiak entzutera. Apaizak aurreko bi igandeetako mezak debekatu izanaren salaketa «predikatu» zuen. Hiru sermoi, hiru isun. Don Fidelek, iluntze hartan, hizketa labur bat izan zuen parroko zaharrarekin, zeina ere ekintzaren konplizetzat joko baitzuen gero poliziak, zer zetorren jakinean utzi ei baitzuen parrokia apaiz gaztearen esku. Kasu hartan, poliziaren susmo sistematikoki gaiztoa ez zebilen egiatik guztiz at.

Biharamun goizeko zortzietan (orduaren konkordantzia garrantzitsua zen), gizon bat agertu zen Bilboko Autobus Geltokian, motxila eran egokituriko maleta bat soinean zeramala, eta bisera bat aurrekoz atzera buruan. Autobusak banan-banan behatzen, kasik usnatzen zituela ikusiz, pentsa zitekeen oso ibilgailu edo noranzko jakin bat bilatzen zuela, baina badirudi, azkenean, autobusik hutsena nahi zuela. Dozena bat lagun jada barruan ziren batera sartu zen, irten zen, eta dozena erdi bidaiari hauteman zituen beste autobus urdin batera aldatu zen. «Autobuses Moreno». Kobratzailea harritu zen, bere «nora?» galderari bidaiariak erantzun zionean:

–Autobusa doan lekura.

–Aizu! –muzindu zen kobratzaile azal-zimurra–. Solisombra bat edanda nator, baina oraindik ez da adar-soinuen ordua gero!

Azkenean, bigarren autobus urdinetik irten eta lehenengo urdinera sartu zen. Denak ziren urdinak.

–Nora? –galdetu zuen hemen ere kobratzaileak, nahiko adintsua berau.

–Autobusa doan lekura.

–Ez nauk, ba, gogoratzen nora doan! –erantzun zuen agian solisombra bi edanda etorria zen kobratzaileak, jarraian txoferrari deiadarka: –Hi, Boni! Autobus hau nora zihoak?

–Niri diostak? –txoferrak hanpatuki–. Heu haiz kobratzailea!

–Entzun duk! –kobratzaileak–. Hemen inork ez zekik ezer.

–Orduan zeren kontzeptuan kobratzen duzue? –Don Fidelek.

–Hiri, doan. Esaera duk munduan denetik dagoela, eta hi bezalako bat ere behar genian.

Ordu biren buruan, haranak eta mendateak igarorik, autobusa iritsi zela azkenera jakinarazi zioten. Irten beharra zegoen. Hiri bat ez zen, baina herri handia zirudien. «La Bonanza» izeneko kafetegi bateko terraza mahats-parradunean, gosari «konpletoa» eskatu zuen, susmatu gabe klausula horretan egunkariak ere barne zirela. Nora joan ondo zekien txakur baten kokotsa izterrean pausatu zitzaion. Biak madalena busti bati begira, egunkarien lehen orrialdeak agertu ziren. «Apaiz separatista baten igande turbulentuak». Horrelako tituludun kronikak eta iritziak irakurtzen ziharduen, irribarrera iristen ez zen aurpegi okerberaz, zeharka zekusan txakurraren imitazioz. Irakurri ahala, Don

Fidelek sabelpeko sentrazio huts-bete bat nabaritu zuen, munduaren ardatz saltatua izatearena.

Episodio hauetatik gutxira, alderantzizko episodio bat gertatu zen Bizkaiko beste herri batean. Funts berdintsukoa izan arren, genero pikareskoan sar daitekeena. Irailaren zortziko Andremari eguna, herri hartako ospakizun nagusia. Bere langintza orokorrean ere asto-narru bat zen alkateak ez zuen huts egingo meza nagusira sartu gabe bandera espainolarekin eta udalbatza osoarekin. «Apaizaren nahiz Erromaren gainetik!». Artean oso berotua zen giro orokor hartan, apaizak bazekien egun gatazkatsua zetorkiola gainera, nahiz eta bera ez izan ezertan sartzekoa, ez nabarmentzekoa. Aurreko igandeko meza nagusiaren amaieran, beste ohiko abisu batzuen artean, honakoa iragarri zuen:

–Datorren Andra Mari eguneko meza nagusia Txabi Etxebarrietaren arimaren alde izango da.

Halako eskari bat iritsiz gero, eliza batek ezin zuen ezetzik esan, zenbat eta arima behartsuagoa izan, hainbat komeniago baitzen haren aldeko otoitza. Apaiz hari ez zitzaion eskari hura inondik iritsi, baina halaxe izan balitz lez iragarri zuen berak. Nola jakin hori, dena baitzen, definizioz, sekretupekoa? Kontua da –horixe baitzen kontua!–alkatea eta udalbatza ezin zirela etorri halako meza batera bandera espainolarekin. Herritar gehienak pozik, alkatea sutan bere etxean, eta apaiza konpromisotik libre, garbi-garbi.

BANDERA ESPAINOLA ALDARERA

Garai astindu haietan, lagun baten kasutik atera nuen apaiz baten kalbarioa osa dezakeela honako ezaugarrien hirutasunak: lerdan, atsegin, beldurti. Azken hau hobe litzateke, beharbada, «gizajo» definitu, kalifikazioak delako pertsonaren irudia gehiegi uzkurtuko ez balu. Don Anton bezalako gizaseme bat, metro eta laurogeitik gorakoa, lerdan eta atletikoa, berezko sinpatian gaintiezin, ustekabean hagin bat galdu duen haurra bezala negarrez ikusteak gizajotik ere jaisteko gogoia ematen zuen. Zer gertatzen zitzaion gizon hari, mahaiaren beste aldean, gorputz erdi bere malkoen eta auhenen gainean, aflikzio errenditu bat emateko, «bazekiat nondik datorren» zotinka?

Neska bat beragandik haurdun zegoela zabaldu zuten beste zurrumurru batzuen errematetzat, hala nola, etxean zeukan lehengusina hura neskame bat baino «gehiago» zela. Lehengusina hura beste neska batzuen, haurduna barne, erreklamua zela, haren lagun aitzakian etorri eta lehengusu abadearekin «jolasteko». Lekeitiotik Ondarroara bitarteko haitzetara apropos joaten zela apaiza, bazekielako, toki diskretua izatearen babesean, bere ohituraren berri zekiten neska-taldeak —eta mutilak ere!—harantz inguratuko zirela arnasa hasperen bihurtzera, sotanapean imajinatu ohi zuten

gorputz oparoa bainu-jantzian askoz ikusgarriago aurkituko zutelako. Egia da Don Anton, bere lerdentasun fisikoez gainera, gizon atsegina eta jendekina zela, baina «nik zer erru daukat horrenik?» auhenka, desesperaturik ikusten nuen, eta ez nekien zer egin, aldi berean haren arrakasta bekaiztu eta haren patuaz errukitu.

Badirudi izaki dohaintsuei berez, ia nahitaez dagozkiela amodiozko nahaspilak, suposatzen baita «dohainek» –batez ere, norberak ez dituenek–erabiliak izan beharra dutela, kontrakoa naturaren errorea bailitzan. Orduan, norabide gehi grina horretan, gezurra eroso zabaltzen da, ura kristalean bezala, egia bilakatzeko segurtasun labainaren gainean. Azkenean, gertaerek alderantzizkoa frogatu badute, beti dagoke onarpen orokorreko deitore baten arrazoia: «Pena da, ba, gezurra izanal».

Seminarioan ikusi izan nituen mutikoak eta nerabeak negarraldi amaigabean, ohe gainean kakalardo eginda. Edo lotegi kolektiboko armairu-ate irekiko ispiluaren aurrean, ez euren buruak ikustearren, ondokoengandik ostentzearren baizik. Sekula ez nuen pentsatu, ordea, honelako korpulentzia sotanadun bat honen arranpalo ikusterik, zergatik zehazki jakin gabe. Sukaldera sartuz batera, bere gorputza mahai gainera jaurti zuen, harakinak txahal larrutua bezala, eta negarrari eman, «hondatu nahi naute!» errepikatuz. Aldi batean asaskatzen utziz, baina amaitzeko itxurarik ezin hartuz, tentaturik egon nintzen trufatzeko: «Anton, Anton Piruleron! Hi mutil handiegia haiz, horren umeki negar egiteko». Azkenean, honela erasan nion:

–Anton! Negar gero egingo diagu. Orain esaidak nik zertan laguntzea nahi duan.

- Ezin duk ezer egin.
- Motiboa zein den jakin ere ez?
- Bazekiat nondik datorren! (Negar, negar, negar).
- Hori lehen ere entzun diat. Negar-uluok ere bai. Emaidak xehetasun bat. Izen bat, ahal balitz.
- Neugatik ez zidak hainbeste ardura. Ba al dakik neska batzuentzat, neure etxeko lehengusina barne, eta euren familientzat, zelako lotsaria sortu den?
- Hori guztia bazekiat, Anton, hik beste sentitu ezin badiat ere. Esaidak, behingoz, noren susmoa duan.
- Beldur nauk esaten.
- Anton! Katakumeak al gaituk? Sukaldea malkotzera bakarrik etorri al haiz niregana? Herriko idazkaria?
- Ez duk herrikoa.
- Eskualdeko falange-burua?
- Hurrean habil.
- Fuldain?
- Bera!
- Mekabuen El Fulminio Dartañaga Inkamendios! Hori joan den astean neugana ere etorria duk mehatxuka, «Fuldain, txibatoa eta puteroa» delako orriaren erantzule naizela salatuz.
- Nirea beste kontu bat duk, latzagoa eta direktoagoa.
- Hasi kontatzen, orduan.
- Bandera kontu madarikatua! Santa Eulalia zelaian, Oizko mendi maldaren balkoi gunee batean, badakik.
- Baseliza hori ez duk zuen herrikoa.
- Hango abadeak eskatu zidaan, Don Hilariok, bera haraino igotzeko zahartuegi zegoela eta. Ikusiak ikusita, susmoa diat hura zerbaiten beldur zela. Joan ninduan sano-sano, eta

hamaiketako meza aurretxoan, inguru guztia jendez beterik, eguna ere halakoxea, gazte-talde bat zetorrek esanez:

–Barka, jauna, baina gauza bat ohar araztera gatoz. Susmoa dugu alkatea eta agintariak mezatara sartzeko asmotan direla, bandera espainolarekin.

–Espainiako... –ez nekian zer esan.

–Berberarekin! Horrelakorik gerta baledi –gazteek–, zin dagigu, mezerdian himno nazional espainola hasiz batera, baseliza airean joango dela.

–Eta nik zer egitea nahi duzue? –Don Antonek larri.

–Esan alkateari, bandera espainola elizan sartzen badute, ez dagoela mezarik.

–Baina, gazteak! Ordezko huts bat naiz hemen, herrikoa ere ez naizena. Zelan suspendituko dut meza, beren beregi etorritako hainbeste kristauren aurrean?

–Dozena erdi jauntxo beste guztiek biziki eskertuko dute, baita goretsi ere, berorren zintzotasun profetikoa.

–Ene Jainko ezkutu! Ni ez naiz heroi bat. Zergatik ezartzen nauzue ezpataren eta zezenaren artean?

–Alkatearekin berba eginda, jakinarazi ahal dio berorrek zer istilu-asmo sumatu duen.

–Txibato lana egiteko agintzen al didazue?

–Aurkituko du berorrek era nobleago bat.

–Eta jaramon egitera ukatuko balira, prebisiblea denez?

–Orduan, gure zina literalki betea izango da.

Minutuak baino falta ez zirela, baseliza eta inguruak jada jendez beterik, mezako janzten hasia zen Don Anton erantzi eta kanpora irten zen, formazioan sartzen hasteko orduaren

zain zeuden agintariengana. Bandera tente, baina oraindik zabalatzeko zeukaten.

–Zu al zara alkate jauna, mesedez? –galdetzen du Don Antonek.

–Jainkoaren eta Espainiaren zerbitzurako.

–Etorriko al zara, mesedez, aldare ondora, gauza bat komentatzeko?

–Berton ez al da berdin, gauza larriren bat ez bada?

–Ba, begira! Bandera hori mezara sartzen baduzue, baseliza airean joango delako mehatxua jaso dut.

–Nork? Zelan? Geu barruan gaudela? –alkateak.

–Banderarik mezara ezin sartu? –banderadunak—. Berehala zabalduko dut.

–Mosedez! –Don Antonek—. Itxaron apur batean. Saia gaitezen berbaz aditzen. Derrigorra al da, Jainkoa zerbitzatzeko eta Santa Eulalia ohoratzeko, oihal hori aldareraino sartzea?

–Bai noski, mehatxu horiei lepoa mozteko.

–Eta mehatxuak beteko balira?

–Astaputz bedeinkatuak! –alkateak—. Guardia zibila zertarako dugu hemen?

–Barka, jauna, baina pentsa non gauden. Guardia zibil bikote batek zer egin behar du gazteria oso baten berotasunaren kontra?

–Hori ikusiko dugu. Nahastaile txoriburu batzuen mehatxuetara makurtzen hastea besterik ez genuke behar, gerra bat irabazi eta gero!

–Ez dago atzerarik, beraz?

–Ez atzera, ez albora! Zabaldu geure bandera salbatzailea, eta aurrera!

–Geldi apur batean! –Don Antonek—. Zeuen Txit Jeneralak elaboratu eta sinatutako Konkordatuaren arabera, zuek ezin zarete agintari moduan eliz eremuan sartu, eliz arduradunen baimen barik. Arduradun hori, ordezeko banago ere, neu naiz gaur hemen.

–Elizara sarrera ukatzen digula esan nahi al du berorrek?

–Ez dut hori esan, eta ez dut esango. Bakarrik diot ezin zaretela nire gainetik pasatu, berbak amaitu aurretik.

–Berkak amaitu dira, eta, gainera, ordua da! Jendea alarmatzen baino ez gabiltza hemen. Aurrera!

–Orduan, alferrik sartuko zarete. Ez da mezarik izango, hori ere zeuek eman nahi ez baduzue.

–Mezarik ez... gugatik? Herriko agintariengatik? Bandera ofizialagatik?

Ez ziren sartu. Meza tentsoa, eztenkorra izan zen, jendeak nabari baitzuen zerbait goria gertatua behar zuela agintariak ez sartzeko. Don Antonen ardura nagusia izan zen eskuen dardararik ez igartzea, baina, ostia eta kaliza santuak jasotzean, Jesukristori perlesiak eman ziola zirudien. Sermoia laburra eta mordoiloa izan zen. Laburragoa izango zen, pentsatutako unean amaitzen asmatu izan balu. Jendeak atera zuen argitasun bakarra izan zen Santa Eulalia trikitilari ona izan zela.

Ezusterik handiena meza osterako zeukan destinoak. Haitzezko horma bertikal baten erditik arpoi antzera irteten zen haitz-adar batean, ikurrin itzel bat agertu zen dingilizka. A zelako zalaparta eta zoramena sortu zen! Guardia zibil bikotea eta agintariak laukoan abiatu ziren beherantz, errefortzu bila

edo. Ezustearen handiena ez zen, oster, mugida hura guztia izan. Zelaia astrapalarik zaratatsuenean harrotzen zen bitartean, hor datorkio apaizari Fuldain, agintariekin artean isilik egona. Heltzen dio esku batekin paparretik, eta bestearekin ikurrin eskegia seinalatuz, marru egiten du:

–Ikusten berorrek hori? Ikusten berorren mehatxugile kontsentituek gure bandera nazionala zerekin laidotu duten? Hau ez da horrela geldituko, eta berori ere ez da protagonizatu duen txuleriagatik heroi bihurtuko, mehatxugile burubero horien izenak salatzen ez baditu.

–Fuldain! Azkenean, gizakume ikaratu bat besterik ez naizen hau lortu behar duzue benetako heroi bihurtzea. Nik ez daukat ezelako zerikusirik gaur hemen gertatu denarekin. Heroia ez naiz, baina Judasenik ezin dut egin.

–Handiagoa egin du berorrek! Judasen azkena badaki, ezta? Ba, hasi zuhaitz bila, soka neuk ekarriko dut eta. Elizan bandera espainolik behar ez bada, abade «puteroak» ere sobra daude.

Hitz zantar horiexek airera jaurtita aldendu zen mendizidorrean behera, pinuei, ezker-eskuma, makilada gorrotozkoak jaurtiz, apaizak hartu beharrekoen esanguran lez.

–Ez daukat dudarik –amaitzen du Don Antonek –nire kontrako infamia guztiaren estrategia Fuldain izan dela. Gizon horrekin ez dut ezelako etsaigorik gura, irabaziko nukeela jakinda ere. Horixe da nire historia tristea.

Fuldain madarikatua! Astakirten huraxe zela, beraz, eskualde guztiko ofentsibaren arpoi nagusia. Ni zorteko nintzen, ze gure alkatea, herriko jaiak inguratzean, desagertu egiten baitzen urtero, Errioxara edo inork garbi ez zekien

norabait, liskar posibleetatik ihesi. Alkatearen faltan, zinegotziek ere ez zuten ezertan sartu nahi izaten, eta jaiak inon baino baketsuago joan ohi ziren. Don Antonek duinki gainditu zuen trantzea, herritarren aurrean ia heroi eran, baina bera oso eraginda gelditu zen luzerako.

FULDAIN

Fulminio Dartañaga Indamendi. «Fuldain». Amorotoko abade-etxe bietako batek gelatxo bat zeukan behe solairuan, kalearen parean, leihoak plazara emanaz. Berau zen, une hartan, eliz bulegoa, non erregistro liburuak eta gainerako eliz liburu, dotrina eta paperak pilatzen baitziren. Itxura nahiko abandonatua zeukan, heze usain mingostua barne. Aurreko abadeak baino gehiagotan sartzen banintzen, bertan harmonium txiki bat zegoelako zen, zeinak, bere ajean, pieza alaiak, tibiri punbara pun, hobeto afinatzen baitzituen gregorianoa baino. Paper eta liburuxka kolorge batzuei hormarantz sakaturik, mahai gainean esertzeko tokia libratu nueneko, leihoa beteko buru bat agertu zen plazatik, bilatzen zuen piztia barruan ote zegoen begira bezala. Kareharri landuetan emmarkaturiko leihoa ez zen handia, baina buru batek dena okupatzen duela iruditu zaizunean, gorputzak makurtzea gehiago eskatzen du ihes egiten saiatzea baino. Buruak ukabil bati toki egin zion, zeinak kristala kax-kax jo baitzuen, tamainak ematen zuena baino gozoago.

—Egun on! —diotsot, leihoa zabalduz, gorputza ere buruaren araberakoa dakarren gizonari—. Zer nahi zenuen?

—Berorrekin berba egin beharra daukat.

—Oraintxe bertan?

–Ahalik arinen, lanari bitarte bat kenduta nator eta. Guk ez daukagu abadeen lanegunik.

–Hobetu genezake, baina ezin gara kexatu. Zu ez al zara...

–Fulminio Dartañaga Indamendi. «Fuldain» esaten diotena.

–Ez naiz harritzen. Bakarrik al zatoz?

–Konfesioa bakarka izan ohi da, hori ere aldatzera ez badoa orain.

–Elizara joango gara, nahi baduzu.

–Ez da konfesio sakramental.

–Segi orduan tabernara. Berehala joango naiz.

–Bakarrean gurago nuke, berorrek arazorik ez balu.

–Sartu orduan barrura. Eseri hementxe –diotsot Fuldaini, gela barruan aulkitxo bat erakutsiz—. Ez da bulego apainegia, baina moldatzen gara.

–Berorrek ez al du Gizaburuagan lo egiten?

–Han zein hemen, eta batzuetan, ez han, ez hemen.

–Nonon lo egingo beharko du!

–Ez beti. Eternitatea predikatzen dugunok sinetsi behar dugu gero ere badela nahikoa denbora lotarako.

–Oraingo abade modernoek edozer.

–Uzten zaien neurrian, ze, ordena-gizon batzuekin, tabernan ere ezin baita ahorik ireki. Suposatzen dut, orain bi igande, taberna hartan izan genuen intzidenteaz berba egitera zatozela.

–Ez guztiz, izan liteke baina. Motibo latzagoz nator berorregana.

–Niri hura ez zitzaidan biguna begitandu.

Herriko taberna batean autu baketsuan ari ginen herritar mordo bat, meza oste batean. Herrikoa ez zen gizon puska bat

sartu zen tabernan, eta airean harrapatu zuen berbatxo bat aitzakia hartuta, Francoren miraria ahotik sartzen hasi zitzaigun. Baina hau geroago kontatuko dut.

–Ez nago ahaztuta –diost tabernako pasarteaz–. Gaur beste kontu bat argitu nahi nuke hemen, berorrek zerikusi zuzena eduki lezakeela susmatzen dudana. Hau zer da? –galdetu zidan mehatxu tonuan.

Kartazaletik atera eta orri erdi bat luzatu zidan, hizki gutxiz baina larriz idatzitako postal itxurakoa, zioena:

Fuldain, txibatoa eta puteroa

Herriak laster jakingo du
zure bateko ofizioa
eta besteko bizioa

–Hau zer da? –neuk ere.

–Galdera hori neuk egin diot berorri.

Berorika apropos nabarmentzen ari zela zirudienez, intonazio eta guzti, neuk ere apropos saihestu nuen zuka egiteko eskatzea. Indarra trataeran ez dagoela jakin arren, formalismoak lagun dezake premian dagoena kementzen, ni orduan bezala. Beldur bainintzen, ahalegin guztiak eginda ere, ez ote nuen lortuko biziki sentitzen nuen urduritasuna, animalia batek berehala sumatuko zukeena, dardara puntura ez iristea. Nahiz eta, bestetik, dudak ere jotzen ninduen berorika hanpatu hark, halako gizon baten ahots sendoan, ez ote zion beldurgarritasunari osotasun bortitzagoa eransten.

Gizon puska galanta zen, izan ere, eliminatua izatetik libratzeko ezaugarri nazietan osorik sartzeko moduko,

kalabaza helduaren kolorazio eta guzti. Janzkeran, errepide zaintzako ardura batek (Aldundiko langilea) eskatuko ziokeenaz bestera, bere soineko komunek ematen zuten arruntasun ia familiarrak guztiz alderantzizko efektua eragiten zuen bere oinetako inponenteen gainean. Berna erdirainoko bota kasik burdinazkoak eurok, gerra irabazira bailihoan. Praka-barren pitin bat altuen zola eta punta prepotenteak ez ziren gehiago bistaratzen gorantz ezkutatzen zena iradokitzen baino. Harmoniumaren kontra tente, esertzeko gonbita ukatu izanak ere bortizki sendotzen zuen irudia. Neu ere, lehenengotan eserita, zutitu nintzen bulego-mahaiaren kontra, baina ezin nuen neutralizatu neure kikiltasun sentipena, basabere askoz handiago baten aurrean. Kemen-egintza guztiz kontzientea behar izan nuen, bihotz-taupadei intentsitate jasangarrian eusteko.

–Ez duzu usteko libelo hau nik idatzia denik, ezta? –galdetu nion.

–Libelotzat al dauka berorrek?

–Bertan egiten zaizun kalifikazioa definitzen ahalegindu naiz.

–Niri berorren iritzia interesatzen zait.

–Iritzia? Guardia zibilarekin daukazun harreman disimulu gabea zail da deportiboa bakarrik izatea, ez baitut uste kuartelak kiroldegizat bisitatzekoak direnik.

–Ni formalitateak betetzera bakarrik sartzen naiz kuarteletan.

–Beste batzuok ere bai, baina sarrarazita.

–Ez behar beste, baina hori ez da kontua orain. Kuartelean euren kabuz sartzen diren guztiek txibatoak izan behar al dute?

–Nire ahotik ez duzu horrelakorik entzungo, baina bai entzungo duzu zuk badituzula aurrekariak, txibatotza zeregin naturaltzat esleitzeko modukoak.

–Horregatik induzitu al du berorrek libelo hori?

–Ez daukazu eskua pistola eran zuzendu beharrik nire paparrera. Frogatua dizut badakidala gauzak aurpegira esaten, ez balientea naizelako, baizik badakidalako, hemendik ez hain luzera, preso amaituko dudala. Zu poztuko zara, baina egun ez hain urrun batean, gauzak aldatuko diren itxaropenari eusten asko lagunduko dit atseginak ezen zeuri zuzenean esan nizula orain zure beldur diren guztiek zutaz sentitzen dutena.

–Ederto! Pentsatzen nuen guztia pentsatzen nuen baino argiago utzi dit berorrek.

–Beldurtzen nau zure modukoak pentsatzen hasteak.

–Segi dezagun pentsatzen, orduan, ea bigarren parte horretaz («puteroa») zer dakien berorrek.

–Hortxe ezin dizut zehaztasunik eman, zeuk ondoen dakizunetik gora. Kanpaiak entzun ditut, noski, herritar guztiek lez, baina konfesio-legeak entzungor egitea agintzen dit.

–Nik noiz konfesatu diot horrelakorik berorri?

–Zuzenean ez bada zeharka, badakizu konfesioan gauza asko jakiten direla, baina egon lasai, ez baita sekreturik hautsiko. Lehen puntu zital horretan («txibatoa») agertu dizudan frankotasunetik, bigarren salapen horixe da zure pertsonari egingo niokeen azkena. Nahiz eta zu zeu ez zaren –eta hau jakinean diot–horrelako maiseoen zabaltzaile txikiena, abade batzuk difamatzea denean.

–Gauza larregi kateatzen ari da berori, kalabaza artean esku-bonba bat ezkutatu nahian lez. Libelo horren egiletzan zein

esku ibili den bakarrik jakin nahi nuke, eta horretan ziur naiz berorrek asko dakiela, edo jakin dezakeela.

–Hara, Fuldain! Zuen Txit Jeneral ñarroaren seberitate disekaturainoko zintasunik jaso ez badut ere, banaiz berbak ez biolatzeko bezain fidagarri, eta zin dagizut ez dakidala ezer paper horren jatorriaz, ez zabalkundeaz, baina saiatuko naizela jakiten. Atrebentzian bazaude, astebete barru etorri eta berba egingo dugu.

–Nire atrebentziaz dudatzen berorrek?

–Zatoz orduan gauez, egunez zu nirekin ikustea komeni ez bada.

–Gauez zein egunez, zein edozein ordutan!

–Zatoz orduan gauez, neugatik.

Atrebentziarenak efektua eragitea eskertu nuen, neure eskaria izatetik libratzeko. Fuldain eskualde guztian ikusiko zenuen bere karguagatik zegokiona baino harago eta honago. Hegazti planeatzaileei bezala, inguruarekiko gaintasunaren exhibizioa jaitsiera pikatuetan finkatzea gustatzen zitzaion, aipatu taberna bateko enkontru batetik atera nuenez. Huraxe izan zen nire lehen episodioa Fuldainekin.

Amorotoko taberna batean geunden, goizeko meza osteko solas niretzat gozagarri haietako batean. Herrian hau, munduan hori, ilargian bestea, bazirudien goizaren argitasun gazteak, pare bat zurruten graziak eta aste-barru sarritan bakartiaren elkar-goseak herritarren asmamena disparatzen zuela. Norbaitek «bota beste bat» agintzen zueneko,

zerbitzariak egina zuen lana, berbaroan murgildurik zebilen inork «niri ez!» esateko astirik izan aurretik.

Igande hartan ere, ohi bezala, handiegia ez zen tabernako barre-karkaxak barruan kabituko baziren, lantzean batek, uhin hedakorrak egotzita bezala, kanpora irten behar izaten zuen, espaloi kontrako auto baten gainera, esanez: «Eskerrak hauxe zegoela hemen, bestela banoak errepideaz handiko hormaraino». Aktualitatean zebilen krisiaz (gero bizi guztian entzungo nuen «krisiaz»), batek esan zuen: «Hemen gerrikoa lepoan estutu beharko da laster».

Iluntasun bat zabaldu zen barran. Zer izango eta gizon puska baten itzala sartu zen atetik. «Berbak neurtu beharra izango da oraintxe» ahopetu zidan batek. Nik zergatik galdetzean, berak «kontuz horrekin!» alertatu ninduen. Esplikazioa gizon haren ahots trumoizkoan etorri zen.

–Lepoan? Batzuek merezi lukete, bai, lepotik ere! Noiz bizi izan gara oraingo moduan? Nork ekarri du hona lana eta prosperitatea? Alferrek eta nahastaileek? Separatismo zikinak ekarriko dizuela uste al duzue orain daukagun komenentzia?

Banuen zerbait entzute «Fuldain» zelako bat bazela eskualdeko herri batean, frankista sutsua bezain asto-narrua. Lehenengo ezaugarria normaltzat jo behar zen, frankista izatea zaila baitzen sutsua izan gabe, baina bigarrena ez zen derrigorra. Baziren agintariak, eurekin korrekzioz konpontzen nintzenak, edo, gutxienez, aurkaritza jakina halako distantzia instituzional batetik elkarri jasaten genionak. Batzuetan, adeitasun egiazkotik ere ez genbiltzan urrun, herri txiki bateko harreman nahitaez hurbilei zegokienez, konfesioa bera barne.

Baina Fuldain! Taberna txiki bateko lagunarte inofentsibo baten gainera albo-herritar bat hain bortizki oldartzeak halako

amorrúa sortu zidan nola Jesukristori elizan merkatariak aurkitzeak. Beste solaskide guztiek isiltasunean makurtu zituzten buruak. Hain umiliazio zapalgarrian, ez nuen ahotsik jaso, herritarren gainean eszena biolento bat eragitearren. Argiago esanda, ez nintzen izan erreakzionatzeko gauza. Argitasun osoz esanda, koldartasunak gehiago egin zidan. Ahots trumozkoak bere erretolikan zerraien.

—Entzun zuek Radio París, Radio Pirenáica eta horrelako zaborreriak! Horiek ekarriko dizuete etxeetara ura, kaleetara argia eta bankuetara interesak. Krisia barik guleria dago hemen! Orain arte denak isil-isilik, eta orain, ia luxuan jartzen hasi garenean, dena erreboluzioa eta zerrikeria?

Gizona joan zen, eta berriz hizketan hasia kostatu zitzaigun. Inork ez zuen Fuldainen jokaera onetsi, baina nor egon zitekeen seguru taberna hartan ez zegoela norbait, haren diskurtsoari hain gaizki irizten ez zionik?

Neure abade-etxe zaharrean bakartu nintzenean, ezin nuen gainetik kendu halako umiliazioaren zama eta, batez ere, neure koldarkeriaren alhadura. Ez, ba! —pentsatu nuen—. Honek ezin dik horrela gelditu. Baita pensatu nuen:

—Herritarren aurrean ezin dut gelditu hain izaki txepel bezala, autoritate handi baten kondizioa gainean daroadala. Banekien gizonarekin non topo egin eta, kortesiazko agur-hitzen ondoren, esan nion:

—Aizu, Fuldain! Lehengoan tabernan isilik gelditu nintzen, baina pensatu dut neure kontzientziari zor diodala zurekin hizketaldi bat, onartuko bazenu, beti ere.

—Zergatik ez dut, ba, onartuko? —Fuldainek airoso—. Non nahi du berorrek?

—Abade-etxea ez litzateke txarra, han neu bakarrik bainago.

–Bakarrik? –murrika airean berak—. Ez dakit beste inon badabilen berorren etxean beste jende!

–Ez arduratu! Zu zatozenez, garantizatzen dizut biok bakarrik egongo garela.

Goiz batez, Fuldainek atea jo zuen, ireki nion, sartzera gonbidatu nuen, sukaldean eseri ginen, ardo bat eskaini nion, ezetz esan zuen, aurrez aurre eseri ginen, horma-erloju handiak hamaikak jo zituen, begiratu zion arretaz, «hots gozoa!» esan zuen, bigarrenak jo arte itxaron genuen, bitarteko isiltasunak apur bat zapaldu ninduen, elkarri begiratu genion «mundua badabil» keinu eginez, eta hizketa hasteko moduan ginen.

–Berorrek esango du zer nahi duen –aurreratu zen Fuldain.

–Tabernan bertan esan behar nizuna, baina ausartu ez nintzena. Zuk uste al duzu arrazoizko dela albo-herritar bat, beste herri bateko taberna batean, bakez-bakez zegoen eta zuk ondo ezagutzen duzun jende bat halako ataka biolentoan ezartzea?

–Elizan elizakoa eta herrian herrikoa! –Fuldainek—. Egiak edonon balio behar du, eta gezurra edonon ito behar da.

–Han inork ez zuen ezer esan zure kontra, ez inoren kontra. «Gerrikoa estutzea» bezalako esamolde topiko bati zertatik zegokion halako oldarraldi zapaltzailea?

–Berorrek elizan egiten duena besteok ezin al dugu egin handik kanpora?

–Bai, noski, baina edonon eta edozelan ez dut uste –nik mantso-mantso—. Aipatu duzun egiak nondik dauka eskubidea, edo gezurrak nondik meritua, beste herri bateko jende bati motibo gabe erasotzeko? Zeure herrian ez al daukazu nork entzunik?

–Ez daukat herririk, neurerik ez besterenik, esan beharrekoa isilaraziko didanik. Berorrek agindu behar al dit non berba egin?

–Orain neure etxean zaude. Alegia, zuen katolizismo konfesionalak beneratzen duen Elizaren abade-etxe batean. Biok biotara gaude, era guztiz pribatuan. Nik ez dizut berbarik galarazi, baizik elkarrizketa batera gonbidatu. Eta onartu egin duzu. Taberna hartan bezala berba egin nahi badidazu, neu ere berbetan ikasteko lekuetan ibilita nago.

–Badakit ondotxo ere berori nor den. Sermoiak apur bat laburtzea hobe lukeen bat. Noiz predikatu behar du zelan abadetza baliatzen duten, inguruetako gazteria nahasteko?

–Eskolatzeko, areago. Gazteriak jakin behar du –neu ere berotzen ari naiz–euren guraso asko zelan hil ziren gerran, edo zelan fusilatuak izan ziren, euren herrikideek salatuta. Ez da nire irakaspena, baizik gazteengandik eurengandik ikasia, inguru honetako bat baino gehiago dautzala lurpean, Fuldain delako batek bidalita.

–Zer? Esan al dezake berorrek –heltzen dit paparretik–nortzuk dautzan lurpean, Fuldainek bidalita?

–Mesedez, Fuldain! Paparretik helduta, ni baino gehiago zara. Hau berbaz konpontzekoa da. Nortzuk dautzan lurpean esango nuke, euren senide bizien zугanako beldurra errespetatzeagatik ez balitz. Kontua da zure historial mardula ezaguna dela.

–Eta ohoragarria!

–Bai, bai! Baina kontua da zuenganako beldur ustez garaiezina ere badoala apalduz. Badoa amaituz Francoren fragatan bazentozte lez edonon inperatzeko gailentasuna.

Beraz, ohoreak zeuretzat gordeta, hurrengoan sar zaitez lagunartera gizalegez, gizontasunez ezin bada.

–Sartuko naiz neure kontzientziak agintzen didan moduan.

–Fuldain! Ez dago dudarik zure kontzientzia eta nirea kontrakoak direla. Zuk, kontzientzia horren arabera, taberna hartako episodioa errepikatzen baduzu, isilduko naiz. Baina hurrengo igandean, zin dagizut nire sermoia zure jokaeraren salaketa publiko bat izango dela.

–Ajaja! –burlatzen zait gizona, tentetasun arranditsuan—. Izango du berorrek ordaina, erraz ahaztuko ez zaiona.

–Bai, Fuldain! Gizonetik gizonera hitz egiteko bildu garenez gero, nik badakit nire destinoa zein izango den laster, zuen presondegi katolikoetan. Ez dakidana da zeu ohartzen zaren zeure destino hurbil eta errukarriaz. Ni, handik itzuleran, tabernako jende hark beso zabalik hartuko nau. Eta zu, bazterren batean, burua agertzeko lotsaz egongo zara. Beldurrez ere bai, beharbada. Eta amorraturik eguzkiarekin, argi egiten duelako.

Azken paragrafoa lasaiago eta ozenago jaulki nion, kasik deklamatuz, tabernako bere hitzen mehatxu tonua imitatuz. Irteeran, bostekoa eman zidan, onartu nion, eta jaitontasun berriazko bat izan zuen eskertzeko hain argi hitz egin izana. «Orain badakigu nor garen nor». Handik egunetara, berriz elkar ikusi genuenean, eta berriz bostekoa luzatu zidanean, pentsatu nuen ezen, azkenerako, etsaitik etsaira, adiskide amaitu behar genuela. Zorionez, berriz ez zuen jo nire bulego-gela koxkorreko leihorik, eta tabernako intzidenterik ere ez zen errepikatu nire aurrean.

NIK EZIN DUT HAU SINATU

Goiz hartan, abade-etxea bereziki garbi zegoen, bisita solemnea itxaroten baitzen. Eskualdeko gotzain-ordezkariak, artzapezak, pare bat laguntzaile kanonikoz aldamendurik, erregistro-liburuen urteko sinatze arauzkoa formalizatu behar zuen. Taxia errepidean utzirik, astiro-astiro jaitsi ziren abade-etxerako arrapalan behera, bazterrak begiekin adoratuz, batez ere, gerri aszetiko baten erpinean, bizia zeruan hedatzen zuela zirudien palmondoa. Atarian itxaron nien, ni ere neure lekuaren jabe. Elkarri bostekoak emanik, barrurakoan apaizkapela beltzak erantzi zituzten, etxea buruen aski babes baitzuten.

Lepagora zuriaren firrindaz beste belztasun orokorrean (neu ere sotanadun), artzapezaren zapaten distira nabarmendu zen. Pasilloan zeharreko hitz bareak eta adeitsuak apur bat mozturik gelditu ziren, aurreko urteetatik ezagutzen zuten bulegoa logela bihurturik aurkitu zutenean.

–Beste gela biekin areto bat egitea pentsatu dugu, umeentzat batez ere.

–Hara! –hots egin zuen doi-doi artzapezak.

Mahai gainean jada zabalik zeuden hiru liburuen gainera makurtu zenean (bataioak, hiletak, ezkontzak), eskuan luze zekarren urre koloreko idazluma, agian urre-urrezkoa, airean

gelditu zitzaion, noraezean, eskolan paperezko hegazkintxoak jaurtitzea gelditzen genuenean bezala, maisua begira sumatzean.

–Baina... –Duda-mudaren terminoak ezin lotuz, azkenean asmatu zuen: –Hau euskaraz dago!

–Bataioak, hiletak eta ezkontzak ofiziatu ditudan moduan.

–Eskatu al diozu gotzainari arautegia hausteko baimena?

–Ez dut pentsatu ezer hausten nuenik. Sakramentua bera euskaraz jator burutu bazen, erregistro soil bat ezin al zen hizkuntza berean egin?

–Aurreko erregistroak ez al dituzu gaztelaniaz ikusi?

–Horiek sakramentuak latinez zirenekoak izango dira. Orain, elizkizun oro ama-hizkuntzan egitea onartua denean, erregistroek zergatik ezin dute izan era bereko?

–Nik ezin dut hau sinatu.

–Jainkoak sinatuko luke.

–Erregistroak ez dira Jainkoarentzat idazten, beharkizun mundutarrentzat baizik.

–Nork erabaki du euskarak ezin duela bete munduko beharkizun bat?

–Bidaliko dut txostena gotzaindegira, eta izango duzu beharreko erantzuna.

–Zergatik ez duzu zeuk galdetzen gotzaindegira ea sinatu ahal duzun euskarazko erregistro bat?

–Ezin dut eztabaidan jarraitu.

–Orduan azalduko diot herriari zure jokaera, eta izango duzu zeuk ere beharreko epaia. Eta zuek –laguntzaileei–, sinaduraren lekuko zentozten moduan, ukoaren lekuko ere egingo duzuela itxaroten dut.

Laguntzaileak ahalik hitz gutxien egiten saiatu ziren, etxearen arkitekturari buruzko iruzkin distraktibo batzuez beste. Adeitsu eta paternal sartu zen artzapeza, gizaseme ohartuki lerdan eta lerdan zaindua bera. Serio eta apur bat itxurgaturik, pasillo estuaren alboei sorbaldaka bezala irten zen. Kanpoko aireak eta argitasunak berreskuratzen lagunduz gailentasun hierarkikoaz, taxian sartzea estimatu zuela iruditu zitzaidan. Baldin sakramentuaren balioa, ezkontzena, adibidez, formalitate horren gorabeheran bazegoen, inor ez zen gehiago niregana etorri erregistroak sinatzera. Egintza burutuek, batzuetan, onerako ere balio izan zuten.

DÉJENME SOLO CON ESTE CURITA

Nahiz eta hamahiru urteko karrera azterketa etengabeetan eginak izan, apaiztu eta gero ere azterketa bat gainditu behar zen, «lizentzien» jabe izateko. Hots, meza eman, predikatu eta sakramentuak banatu ahal izateko. Azterketaren emaitzen arabera, denbora bat zehazten zen, zeinaren amaieran «lizentziak» berritu beharko baitziren, beste azterketa baten arabera. Talde-azterketak izaten ziren, idatzizkoak, epaimahai batek baloratuko zituenak. Gotzainak ez zuen parte zuzenik izaten.

Behin, ordea, Bilboko gotzain agurgarriak, On Pablo Gurrpide Beope otsagabiarrek, azterketa pertsonal batera deitu ninduen, orduko *Zeruko Argia*-n idatzi nuen artikulua bat zela eta. Laburki esanda, mezak latinetik herri-hizkuntzetara pasatzea baimendu zenean, defendatu eta argudiatu nuen kristau euskaldun batek ez zeukala igandeko meza entzuteko obligaziorik, baldin bere parrokian eskaintzen ez bazitzaion euskarazko mezarik, herri handi samar gehienetan edo askotan gertatzen zen moduan. Gotzaina sutu zen eta bere aurrera deitu ninduen.

Atxurin hamarretakoa eginda, abade talde batek lagundurik, garaiz azaldu nintzen Mazarredo etorbidera, liburuei begiratu ere egin gabe, azterketa inbertitzeko asmoz. Zenbait ate

suzesibotan zeremonia guztiak beterik, areto nagusira sarrarazi ninduten, Gotzaina berehala etorriko zela esanez. Bazetorren, eta ez nolanahi.

–¡Hombre, Amuriza! ¡Por fin estás ante tu obispo!

–Bai, gotzain jauna. Zergatik ez nintzen etorriko, ba?

–¡Retírense todos y déjenme solo con este curita!

Niri lehen jarleku-lerroaren erdian esertzeko agindu ondoren, berak, eszenatokira igorik, besaulki luxuzko batean apatx egin zuen. Haren janzkera hanpatuan, kapa, solideo, galtzerdi, besaulki eta atzeko oihalaren gorritasunean, kostatzen zen bereiztea gotzain «elfoaren» tipula ilun koloreko aurpegi esferikoa. Oso goi eta txiki nekusan bera, plano uniforme handi bateko orban bat bezala, eta nago berak ere ni halakoxe txikitasunean ikusi behar ninduela, posizioen desnibel hark aproposkoa izateaz beste zentzurik ezin baitzuen izan. Azterketa hastera zihoala, diotsot:

–Barka, Gotzain jauna, baina aurretik, berorrek txarto ez baleritzo, papertxo bat irakurri gura nioke, azterketaren aurre-puntu batzuk azaltzeko. Gaztelaniaz dago eta laburra da.

–¿Otra vez con papelitos?

Ez zidan baimendu gura, baina nik ekin, ahalik apalen. Azkenean amore eman zuen, «arin irakurtzekotan», mahuka nasaietatik doi-doi bistaratzen zitzaion eskutxo bat presa-keinuan astinduz. Papera gaztelaniaz neukan, euskara-erdaren tirabirez harago, gauza batzuk argi entzun eta uler zitzan segurtatu nahi bainuen. Oraindik ez nekien euskaraz bazekienik.

Handik urtebetera jakingo nuen, Abadiñoko udaletxeak antolatu zuen efemeride handi batean. Gotzaina eta bere segizio guztia, gobernadore zibila eta item, eta Bizkaiko beste

agintari handiak han ziren. Ekitaldiaren barruan, Gulpide gotzaina agertu zen udaletxeko balkoi batean, bere hitzaldia jaulkitzera, eta hara non, nire eta gehienen harridura osorako, euskaraz sarrera luzea egin zuela, bere Otsagiko euskararen.

Gulpidek ez zekiena zen ni bertsoara deitua izan nintzela, herriko beste bertsolari batekin. Ekitaldiaren une jakin batean, udaletxearen beste balkoitik kantatu genuen. Gotzaina harritu zen, ni han ikustean. Isil-isilik entzun behar izan gintuen. Ekitaldia amaitutakoan, eskaileren barrenean topo egin genuen, edo egitea bilatu nuen. Bere gotzain-eraztunari muin ematera makurtu nintzenean, hots egin zidan:

—¡Pero, hombre, Amuriza! ¿Tambien te dedicas a eso?

—Berorrek ere euskara dotorea egiten du, jauna. Lastima gehiagotan ez egitea.

Nik euskaraz eta berak erdaraz, elkarrizketa laburra izan zen. Hainbeste agintari eta laguntzailearen artean, ez zeukan luzatzeko gogorik.

Aipatu azterketara itzulirik, «papertxo» irakurtzen hasi nintzeneko, gotzain koxkorra bere besaulkian bihurritzen eta sumintzen nabari nuen. Apropos ahalik laburren paratua neukan irakurgaia amaitzeko astirik ez zidan eman.

—¡Basta! ¡Fuera de aquí!

—Eta azterketa, gotzain jauna?

—¡He dicho que basta! ¡Fuera! ¡Llévense a este cura, y que no aparezca más por este obispado!

Götzaindegiko kalonjeak eta idazkariak ikaraturik sartu ziren, zer ezbehar gertatu ote zen. Gulpide txikiari txinpartak zerizkion, sopletea aplikatu bailioten. Hamaika aldiz penatuko nintzen gero papertxo hura ez gorde izanaz, beste asko ere gorde ez genituen bezala. Gutxi gorabehera, Euskal Herriaren

eskubideak, kasu hartan euskararena, errepresioa, Elizaren morrontza politikoa eta horrelakoak jaulki izango nituen «papertxo» hartan. Kontua da azterketa egile esertzetik salatzaile zutitzera aldatu nintzela. Eta bidalia izatera, neure atsegin handiz.

HEMEN DUZUE KOPOI SANTUA

Haran zabal, bigunki irregular, begientzat ia lau, jendearen etorrera gehikorra besterik ez genekusan alde guztietatik. Saiak airean birundatzea bakarrik falta zen. Apaiz talde handi bat ere etortunen artean ginen Bizkai guztitik. Herrira iritsi ginenean, bi eraikinek arretarazi gintuzten: elizak eta udaletxeak. Elkarri begira baino jarkiak eurak, bietako batentzat hilgarri izango zen borrokan sartzeaz ziruditen.

Eliza konparazioz askoz handiagoak ezin zion beldurtzeari utzi, udaletxe zurixka, zapal, kasik ziztrinaren begirada besanikoaren aurrean. Imminentzia lazgarriren bat sumaturik-edo, herriguneko beste eraikinek ere kikildurik ziruditen, ia ikusezin, ostea eskainiz plazara iristen saiatzen zen jendea. Eta oste bera eskainiz guardia zibilei ere, plazara iritsi nahi zutenek beldurraren kontzientzia har zezaten.

Autoz edo errepidez zetozenak bideko ilaretan atxikiak izateak (atxiloak barne) ezin zuen eragotzi beste hainbeste lagun soro eta landetan zehar sartzea. Haiek eta hauek sutsuki jarraitzen zituzten bozgorailu ezkutuen kantak: *Gu gira Euskadiko, Gazte gera gazte, Bakearen urzoa...* Motiboa zein zen ez zekitenek, denetik baitzen ibilbide udatiar batean, ez zuketena pentsatuko erromeria zentenario bat ez zenik, zeren,

gorderik zetorren tentsioaren gainetik, dantzazko jauziak eta mugimenduak ere nabari baitziren.

- Alto! Nora zoaz? –guardia zibilaren kontrolean.
- Hamarretako meza nagusira.
- Nondik zatoz?
- Albo-herritik.
- Zeuen herrian ez al zen mezarik?
- Betidanik daukagu ohitura jaiak diren herrira joateko.
- Zu ere albo-herrikoa?
- Ni bilbotarra, jauna, baina herrietako jaiak maite ditut.
- Eta elizkizunak?
- Meza ere entzun behar da nonbait.
- Meza bakarrik?
- Ez dakit, jauna, zuek ere hemen baitzaudete.
- Adar-soinuan, gainera? Atera dokumentuak!
- Etxean utzi ditut.
- Horma kontrara!

Eliza eta elizpea bete-beterik zeuden, ateak zabal-zabal, eta plaza eta kalekak gainez, edo guardia zibilaren jeepek moztuak. Gu ere bagindoazen hurreratuz, besteak baino errazago, apaizak ginelako. Masa orokorki ezezagunean, denek lagun ziruditen, aurpegi susmagarriak barne. Bazabilek txibatotan! –entzun nion bati. Elkarren ezagunak ere ez ziren gutxi, poza eta urduritasuna batera islatzen zutenak.

Bozgorailu indartsuek hedatzen zituzten kanten azpitik (jende batek ez zuen kantatzen, entzute anbientalaren zirraran), txistu zoli bat eta danbolin bizkor bat hasi ziren trinkotasun inguratzailea arindu guran, hots, normaltasun folkloriko bat ezarri guran. Zer izango eta udaletxetik zetorren

hotsa, nondik udalbatza formazioan abiatu baitzen elizarantz, bandera espainola aurrelari zela, oso goi eta flamante berau. Marmario gori bat zabaldu zen herrigune guztian, oihuetara iritsi gabe, berriz ere musikaren zirrara (oraingoan, *Bakearen urztoa*) osokiago sentitua izan zedin. Atzeko kale-aho batean, guardia zibil batek bere kideari galdetzen dio:

–Alu hauek zergatik ez dute bandera espainola ikusi nahi?

–Ikusi nahi balute, ez ziren hainbeste alu bilduko.

–Baina ez dute nahi!

–Espainia txikiegi iruditzen zaielako izango da.

Dozena bateko guardia zibil talde bat bidea irekitzera irten zen, kale nagusian eta plazan. Irekiera istantekoa, gai inflamableen pasaera bailitzan. Plazakada urduriaz handik, bozgorailuei geroz irmoago laguntzen zion jendetzak: *Gu gira Euskadiko gaztedi berria...* Badirudi *Bakearen urztoa* isilik entzun zutenek gaztedi berriarena ezin zutela zirrara soil gisan jarraitu. Guardia zibil taldea, bandera eta udalbatza elizpean entregatzeko, alde bietara erdibitu zenean, apaiza agertu zen elizako atean, mezako jantzita. Ofiziodunen galazko eta begiraleen jaizko jantziak biziki talkatzen ziren hilkutxa baten harrerako isiltasuna zirudienarekin. Apaizari ezker-eskuin laguntzen zioten akolito mutikoen buru geraka eta begi abidoetan sobera islatzen zen egoeraren tentsio multiplea, zerbait gerta zedin grina barne, gehi euren txikitasunetik hauteman nahi eta ezin zuten gain-giroaren zalantza. Elizpeko sarreraren altuera mugatuak bereziki nabarmentzen zuen alkatearen korpulentzia westerra, zeina bandera tente eta altiboak bakarrik gainditzen baitzuen. Bien artean, segizioko idazkari eta zinegotziei kaskartasun komikoa ezartzen zieten.

Gerra irabazira zetozelako sentipen gailenak ezuste bruskoa aurkitu zuen apaizaren galderan:

–Hori eta guzti sartzeko asmoa al duzue elizan?

–Zer da... “hooori”? –Alkatearen marruak elizpea dardaratu zuen—. Hau geure bandera bedeinakua da, Espainia bat eta handi dagiena, eta Elizari jaten damaiona.

–Jainkoaren izenean eskatzen dizuet uzteko Elizari beste batasun mota batean oinarritzen.

–Matxinokeria horiek jaurtitzera irten al da berori elizako atera?

–Meza anaikor eta bizigarri bat ospatu guran baino ez nabil.

–Zergatik aldatu behar da beti egin duguna, eta Eliza osoak onetsi duena?

–Beti ez da horrela izan. Baina izan balitz, bidezko da hoberantz aldatzea.

–Ala nahasterantz? Nork ekarri du jende hau guztia, komediantek ikustera lez?

–Jende hau zu eta ni bezain kristau dira, eta nire eginkizuna da fededunak elkertasunean batzea, ez etsaigoan.

–Ez da hori zuen gotzainak dioena, eta hain gutxi elizgizon batek eman beharreko etsenplua.

–Ulertzeko moduan hitz egin dudala uste dut. Gotzaina nire nagusia da, eta neu adituko naiz harekin.

–Neuk ere badut neure nagusia, eta laster jakingo dut erabakia.

Alkateak idazkariari hitz batzuk marmartu zizkion belarrira, eta hau berehala abiatu zen udaletxerantz. Ez dago dudarik gobernu zibilera telefonatzera zihoala. Itxarrotearen tentsio berretua marmario orokorrerantz laxatu zen. Elizako ate irekitik, barruko jende ilaren buruak atzera begira ikusten

ziren, pentsatu gabe eurok, seguruenik, elizan hain debekaturik zegoen irreberentzia hark bazuela, behingoz, motibo arrazoizko bat. Bozgorailuek *Asto Balaam* kantatzen zuten orain. *Gure astoa Balaam sartu zerauku elizan.*

Plazatik haragoko abeslari masaren korua bikoiztu egin zen. Batzuek, kantari aurkitu zioten aplikazio literalaz loriaturik, Balaam astoa ahoan txikitzen zuten bitartean, besteak *Gu gira Euskadiko gaztedi berria* izenekoan sutzen ziren, asto-koruari gain hartzea hil-biziko auzia bailitzan. Idazkari gorbata-horia laster agertu zen bueltan. Zekartzan hitzak alkatearen belarri makurtura xuxurlatu zituen, ezta xurgatzen ari bailitzan. Alkatea, bai-bai-bai keinu mailuzkoak eginik, malgukiz bezala tentetu zen, hots egiteko:

–Aurrera! Ikusiko da nor ausartzen den bidea ixten!

Apaiza eta akolito parek, zapalduak izan aurretik, biratu eta aldarerantz zihoazen. Atzetik, udalbatzak eta bandera espainolak aurreneko hiru bankuak huts-hutsik aurkitu zituzten. Inork ez zuen gordeak izateko agindu, baina inori ez zitzaion bururatu jarleku haiek okupatzerik, ezta aldekoiei ere, zeintzuek, herrian sobera ezagunak izan arren, ez baitzuten eman nahi hain konfirmazio agerien hizpiderik. Apaiza eta akolitoak kokatu ziren aldarean, apaiza urduri, zer izango, akolitoak pozik, presbiterioko altueratik ikuspegi guztia dominatzen zutelako, baina baita penaz ere, orain ezin zutelako kanpoko panorama ikusi. Aldare ingurua (presbiterioa eta udalbatzaren beste aldeko lehen bankuak) apaiz lagunek bete genituen, sotanaz, sobrepellizez eta estolaz jantzirik geu ere, sendotasun solemneago bat erantsi nahirik meza-emailearekiko elkartasunari. Honek, mezaren hasiera

iragartzeko hiru kanpaiak entzunaz batera, *Aitare*n egin eta dio:

–Kristorengan anai-arreba bihotzekook! Meza santua fedearen alkartasun salbagarrian ospatzeko egun aproposa genduan herriko zaindari San Joanena, ebanjelioak dinonari jarraituz: «Emoiozue Jainkoari Jainkoarena eta Zesarrari Zesarrarena». Eliza Jainkoaren etxea izanik, garbiena litzateke bertan ez exhibitzea ezein Zesarren sinbolorik. Herriko agintariai horixe proposatu deusiet, onez onean, baina, dakusuenez, ez dabe onartu. Gauzak horrela izanik, bidezko deritxot beste proposamen bat aurkezteari, alde biak konformatzeko balio leikena, salomonikoa izan barik. Udalbatzak bere nagusi errespetagarriak dituen lez, neuk be badot neure hierarkia agurgarria, Bilboko gotzain txit gorena, eta gorago Erroma. Badakit nire goikoen guraria eta agindua –eta obeditzea dagokit–meza nagusi hau emona izatea dela. Agindu ezin dabena da entzuna be izatea. Horregaitik, sinbolo zesartar horren zainpean, zeuen kristau kontzientzia bortxaturik sentitzen dozuenok meza entzuteko obligazinotik salbuesten zaituet, Jainkoaren aurrean neu erantzule nazela. Tarte bat emongo dot, gura dozuenok elizatik urten daizuen, Jaunaren bakean.

–Hau amarru indignoa da! –orro dagi alkateak, zutik eta sutan.

–Hau neure berbalekua da, jauna. Zagoz trankil, zuentzat ez da mezarik faltako eta.

Hasierako ezbaien ondoren, huste masiboa abiatu zen, zuloa libratzea kostatu zaion urarena bezalakoa. Aldare inguruko apaiz erdiek irtetunei jarraitu zieten, erabakia onesteko seinalean; beste erdiak meza-emailearen elkarkide

gelditu ziren. Denak plazaraino iristen eta han lehendik zeudenen artean zabaltzen denbora luzea kostatu zitzaien kanporatuei, eta ez ziren gutxi harritu aurkitzeaz ezen herriguneko etxe eta eraikinak euren tokian zirela berriro, berreraikiak izan bailiran. Ia ezabaturik iruditu zitzaiena udaletxea zen, dimentsio ziztrinetara uzkurtua. Eliza lehen baino handiago eta barrokoago ageri zitzaien.

Elizaren barrua, oster, errukarri, ia grotesko gelditu zen, zeren gorde senak udalbatzaren bankuak okupatzetik atzeratu zituenak orain harrapaturik aurkitu baitziren, zein baino zein hautu zitalagoko dileman: edo gutxiengo ezdeusean agertu nabe handiaren azpian, sutea pasaturiko lautadan zuhaizka bakan bizirauleak bezala; edo inondik ere nahi ez zuten ebidentzian gelditu. Diskrezioan pozik kanporatu izango zirenek bazekiten alkateak ez zuela aukerarik galduko, oraintxe ari zen bezala, atzera begiratu eta leialen kontaketa zehatza burutzeko. Euren joera politikoa hain garbi ezagutzen ez zen herritarrek ere, batzuek gelditu beharra sentitu zuten, gorde senak baino gehiago eraginik desertoretzat hartuak izateko beldurrak, edo kontrako bandoan aurkitzeko higuinak.

Honelako okasioetan, geldi egon ezinak edo xehetasun guztiak jasotzeko grinak zoko guztiak usnarazten zizkion ezagun batekin topo egin nuen, horma zahar baten ostean txizaginan biok.

–Zer? Larri al gaude? –hots egin nion parean jartzean, harri solteak kontatuz bezala jaisten zen bere zarrastadari begira.

–Animoso bakarrik! Herri honetan ez zuan jai gozatsuagorik izango, Butroeko jaunak Haroko kondeari hiria upa bete ardogatik saldu zionetik.

–Animazioa berotzea ere baliteke, eguerdia amaitzerako.

–Apaizak zergatik gelditu dituk barruan?

–Batzuk. Meza-emailea ezin genuen utzi otso-aldraren aurrean bakarrik. Bide batez, ez dator txarto geuk ere erregistratu ahal izatea zapalkuntza hau burutzen edo onesten geratu direnen izen-abizenak.

–Honezkero, ezagutu beharrekoak izendaturik zeudek hemen.

–Zeu, esaterako? –eraso nion intentzio osoz.

–Ni eta denak. Hemen ez zebilek inor, zertarikoa den ez dakitenik.

–Ba, zabilta kontuz, ze gure jende gehienek txibatotzat zauzka.

–Bibotea daukadalako?

–Eta betaurreko beltz alu horiek. Eta itxura falangista hori. Eta zoko guztiak muturkatze lotsagabe hori.

–Ez diat, ba, informazio gutxi harrapatu! Dozena erdi txibato eta beste hainbeste sekreta bazebiltzak hemen, neuk eurekin hitz eginak.

–Nor zaren bazekitenak?

–Hor konpon! Ni asteartean itsasora noak.

–Espioitzat balio duzu, baina hau ez da bigarren mundugerra.

–Batek bostekoa eman zidak, hi! Uste diat guardia zibil kamuflatua zela, geroago jeep baten kontra txizaginan erreparatu baitiot.

–Zerbait garen guztiok txizagintzan anparatzen ote gara?

–Nirea amaitu duk! –bragetari pare bat zaplada emanetz—. Goazen plazarantz, ea zer mugimendu dabilen.

–Et, et, et! Bakoitza bere aldetik. Ez dut nahi jendeak elkarrekin ikus gaitzan. Zu itsasora zoaz, baina nik hemen jarraitu behar dut.

Meza aurrera zihoan bitxiki, eliza ia hutsik, kanpoa beterik. Erbesteetatik inguratuek (Bizkai guztiko jendea ageri zen bertan) ez zuten inora mugitzeko itxurarik azkena ikusi gabe, eta beharbada, mugida berriren bat eragin gabe. Herriko bertakoak, elizaldera hurbildu zirenak, argi zegoen nor zein aldetakoak ziren. Erregimen zale argiak elizan, kontrakoak edo posizio gabeak plazan. Falta zirenak ere ez ziren gutxi, beldurrak etxetik inoratzen utzi ez zienak. Bitartean, elizan, organo-joleak mezako atal kantatu guztiak berak jo eta berak kantatzen zituen, hilabeteen prestatzen jarduna zen korua osorik kanporatu baitzen.

Hala moduz kantatzen, ordea, ez baitzen hartan ohitua eta gutxiago hartarako prestatua. Ahots txakila eta entubatua baitzeukan, meza-emaileak apenas laguntzen baitzion, apaiz laguntzaileek hutsunea elkartasunaren osagai on bat gehiagotzat baitzuten, eta udalbatzaren zeregina ere ez baitzen aingeru-lanetan hastekoa, solemnitatearen funtsa organoaren hauspora transferitu zen, firi eta furu, exekuzio nahiko patetikoan. Koruaren faltan, soinua hain single gelditzen zen nola azpi-arropen ilara bat kakoan. Jaunartzea iritsi zenean, ez alkateari, ez inori ez zitzaion bururatu izango eguneko ezusterik gogorrena gertatzear zela, meza-emailea esaten hasi zenean:

–Fedean senideok! Nire eskuek ezin dute Kristoren Gorputza ipini eliztar gehienek sentiera eta Elizaren ordezkaria bortxatuz sartu direnen mihian. Ukatu ere ezin dut

egin. Kontzientziak agintzen badizue, hemen duzue kopoi santua. Etor eta har zeuek bertatik.

–Hau zerrikeria da! –orro dagi alkateak, beso-goran zutituz.

–Ez da Jaunartze bati dagokion hizkera, baina izan daiteke diozuna, zeu ere hemen baitzaude.

Hitzok esanik, meza-emailea eseri egin zen aldarez handik, zain jarreran, bi akolitoak albo banatan. Hauei ez zitzaien erabakia lar gustatu, orain aldare zabalak ikuspegia eragozten baitzien. Leporik luzeenekin ere ezin zuten lortu altuera gainditzerik. Organo-jolea nora ezean gelditu zen, gidoitik at, eta apaiz laguntzaileek *Hona bildots ezitia* intonatu zuten, jaunartze-kanta txit ezaguna. *Hona bildots ezitia, egiazko ogia, zerutik da jatsia, Jainko maitea*. Kanpoan, doinua honako letra martxosoetara lerratu zen berehala: *Gora Euskadi askatua, gora gu ta gutarrak, kanpora txibato ta txakur zantarrak*.

Berehala trumonada bihurtu zen unisonoak areago aztoratu zuen alkatea, zeinak hitz batzuk marmarturik idazkariari, hau kanporantz abiatu baitzen, tente bezain oldarkor, olatu gailen baten bila bezala. Erdi bi egin zitzaion plaza zeharkatzean ere ez zen haren burua apaldu, nahiz kantua txistualdi gorgarrira aldatu. Udaletxean sar-irtena eginik (berriz ere gobernadoreari telefonatzeko, duda gabe), eta bueltan txistu eta oihuei berdin inpasible eutsirik, hitz lodiak transmititzen bezala ziharduen ergelki tente zerraien alkatearen belarrira. Honi kostatu zitzaion ulertzea, barruko apaiz laguntzaileak ere, kanpoko kantu kasik sismikoan beroturik, euren «bildotsarekin» ari baitziren, zeru osoa jan beharrean.

Alkateak kanporanzko higuin-keinu bortitza egin zuen, «goazen txerri arte honetatik!» aginduz bezala, eta bera eta segizio guztia bazihoazen bandera espainolaren atzetik,

elizako euren aldeko bakanak atzean arrastatuz. Elizatik udaletxerako bidea, plazako jendetza erdibituan eta berotuan zehar, mehatxuka baina bizkor egin zuten. Jaunartze-kanta «gora-euskaditarra» laster ematu zen, marmario bihurtuz, kausa direktoa desagertu zelako baino ez gutxiago, meza hain brast amaitzeak erabat desorientatu zituelako. Egia jakin ahala, jendearen entusiasmoa, baita deskojonoa ere, aurpegietan nabari zen.

– Hemen amaitzen al duk guztia? –entzun nion bati, jendea zabaltzen hasi zenean.

– Gutxi al da? –beste batek.

–Bizkai guztitik etorriak izateko, azkarregi amaitu duk.

–Egon lasai! –hirugarrenak–. Berotasun hau laster lehertuko da nonbaitetik.

–Ez dakusat zertarantz lehertu behar duen –bigarrenak–, batu gaituen helburua hain biribil burutua izan eta gero.

–Zer nahi duzue? Tiro bana? –entzun nuen lagun ala etsai zen dudan utzi ninduen ahots bat.

–Gogoa bero dagoenean baliatu behar ez bada –lehen ahotsak berean–, ez zekiat zertan gabiltzan jendea piztu guran.

–Baldin estrategia txar baten ezaugarria bada –diot neure zirkuluan–bataila bakoitzean gerra osoa jokatu nahi izatea, akats handiagoa da hartan tematzea, bataila bat irabaztea lortu denean.

–Zergatik ez dugu ardo bana jotzen? –ahots batek.

–Edo limonada bat.

–Edo nahaste bat!

Herriko jaiak ziren, eta bazirudien jende bat ez zela etorri kalapita hutsera. Bandera espainolaren gertakaria era ezusteko eta kasik kimerikoan garatu izanak jendearen dibertsio gogoa

areagotu zuen, eta arrakastaren sentipen orokorrak erromeria emankorrago bihurtu. Bazen arlo hori ere nasaitzeko premia, diktadura sektorialik ez baitago. Apaizok geure parroketara itzuli ginen, eta egunak, herri hartan, umoretik eta sarkasmotik jarraitu bide zuen, biharamuneko egunkariek «irain nazional bat» izeneko kronika martzialetan kontatu zutenetik.

DON, DON, DON

Maiz esan dut eta berriz esango dut nire bizitzako urterik emankorrenak gizartearentzat apaiz garaikoak izan zirela. Zergatik? Autoritate bat nintzelako, gaztea nintzelako, idealismo baten aroa zelako... Ez dakit. Izan zen. Araberako mugida orokor baten barruan, apaizek ere parte bat osatu zuten. Gutxiengo bat, noski, baina gutxiengo handia, ordena ezberdinetako fraideak barne. Kopuru bat emateko, izan gintezkeen Euskal Herri osoan ehunka batzuk. Horrek asko eman dezake, baina guztira, milaka baitziren! Gutxiengo hartan, nola ez, maila ezberdinak zeuden. Batzuk zorrotzagoak, beste batzuk apalagoak, baina guztiak ekarpen baten norabidean.

Gehiengo nabarmen hartan ere mailak zeuden, noski. Maila apal bat zen, adibidez, prismatiko batzuk erosi zituen apaiz bat, bere etxeko leihotik plazako erromeria ikusteko. Ez zuen inor salatzeko edo kontrolatzeko egiten, bere atsegin propiorako baizik. Eta, gainera, berak aitortzen zuen xaloki. Ez zen ezertan sartzen. Beraz, ia-ia, gutxiengo balidoan kontatzekoa zen.

Goi muturrean, askotariko bi adibide emango ditut. Bat, politikoa. Herri bateko parroko batek bandera espainola pulpituan jasorik zeukan beti. Behin gertatu zen norbaitzuek

bandera hura ostu zutela. Hurrengo igandeko mezako sermoietan, parrokoak, mehatxu latz batzuen artean, iragarri zuen: «Ez ibili alferrik bandera espainola pulpitu honetatik kentzen. Erroilo osoa daukat abade-etxean».

Hurrengoia adibide moralean sar daiteke. Apaiz batek, umeei dotrina emateko saioetan, neskatoak ilaran eser arazten zituen banku luze batean. Hankak mugiarazi eta esaten zien hatz erakuslearekin seinalatuz: «Zuk, eta zuk, eta zuk, eta zuk... esan amari gona horiek luzatzeko».

Okerrena zen, kasu askotan, alde politikoa eta morala batera zihoazela. Beste alde txar askorekin batera. Horrelako kasuak bil nitzake ehunka, bilduta daudenak aipatuz bakarrik. Baina ez zaizkit interesatzen hemen. Bai interesatzen zaizkit gutxiengo hartatik geratu zaizkidan adibide errepresentatibo batzuk. Apaiz izatetik aparte, «pertsoneaia» batzuk, euren mailan onerakoak izan zirenak, eta izaeraz maitagarriak.

DON BLAS

«Parroko zaharra». Don Blas. Apur bat gorra hasieran. Oso gorra laster. Guztiz gorra gero. Eguerdiko dotrinan, hamar aginduak esateko agintzen zigun, eta guk ozenki deklamatzen, «Raku» ikasle deabruaren eran:

–Eliza Ama Santuaren aginduak hamar dira:

Lehenengoa, Janikoa maite izatea. (Jainkoa).

Bigarrena, Janikoa alferrik ahotan ez hartzea. (Jainkoa)

Hirugarrena, jai-egunak luzatzea. (Jai egitea).

Laugarrena, aita-amei lotsa lehenbailehen galtzea. (Dedu eta lotsa izatea).

Bosgarrena, inor hil gabe ez uztea. (Inor ez hiltzea)

Seigarrena, haragikerian arin hastea. (Haragikeriarik ez egitea).

Zazpigarrena, ez ostea gauza txikirik. (Ez ostea)

Zortzigarrena, testigantza zuzenik ez ematea eta gezurra lasai esatea. (Testigantza faltsurik ez ematea eta gezurrik ez esatea).

Bederatzigarrena, inoren andrea maiz bisitatzea. (Errespetatzea).

Hamargarrena, hamaikagarrenari popatik ematea. (Inoren ondasunik ez gutiziatzea).

Berez, hamaikagarren agindurik ez zegoen.

–Ederto, ederto! –Don Blasek–. Orain, Eliza Ama Santuaren aginduak.

–Eliza Ama Santuaren aginduak bost dira:

Lehenengoa, domeka eta jaiegunetan meza dantzatzea (Entzutea).

Bigarrena, bekatu astunak, urtean behin gutxienez, denak egitea (Konfesatzea).

Hirugarrena, Pazkoetan Jaunarekin jolastea (Jauna hartzea).

Laugarrena, barau eta haragi-uzteak aldrebes betetzea (Betetzea).

Bosgarrena, Elizari bere premietan hor konpon egitea (Laguntzea).

–Ederto! Ederto! –Don Blasek–. Bihar gehiago.

Ume guztien santua izan zen Don Blas, gorreria abiatu zitzaionetik.

NON SINATU BEHAR DA?

–Zer zioke gure Origenes errebeldeak?

–Beti dioena gehi bat.

–Azkeneko erretirora ez hintzen etorri –diost Don Tomasek, erretirotik bueltan bera etxera eroateko desiatzen egoten naizenak–. Gazteak falta direnean, batzarrok ez zeukatek arimarik.

–Gaur ezin zaitut eroan, Don Tomas, baina, bihar edo etzi, egingo dizut bisitatxo bat, mandatu koxkor batekin.

–«Gehi bat» horrekin?

–Izan daiteke, baina hau ez da toki egokia azaltzen hasteko.

–Ondo zegok! Askari orduan etorri, bisita-aitzakia biok baliatu ahal dezagun. Bestela, gure Kasildak gauera arte mehetik edukitzen naik.

«Erretiroa» edo «erretiro eguna» eskualdeko apaizek hilean behin egin beharreko bilera eguna izaten zen. Don Tomas, herri bateko parroko zaharra, oraindik «buelaren zain» zeuden ameslari etsigaitz haietakoa zen. Garai hartan pasatzen ziren hegazkin bakanetako baten burrundara entzutean, aztoratu egiten zen, «bazetozak! bazetozak!» oihuka, inor aurrean ez zenean. Norbait aurrean bazen, ezin zituen ekidin, hegazkinen hotsa sumatzetik ezabatu arte, halako kurrunka

biszeral batzuk, pare bat dozenatik gora, Kasildak ondo kontatuak zizkion bezala.

Kasilda, Don Tomasen neskamea. Honek, eskura gertatzen zitzaionean, josteko makina martxa guztian jartzen zuen, mototseraino asperturik ei baitzegoen esaten: «Jauna! Berorrek itxaroten dituen hegazkinak egin ere ez ziren egin». Don Tomasek ezin zuen sinetsi Jose Antonio Agirre hegazkin gabe sar zitekeenik gerran, eta gutxiago, gezurrean zebilenik, laster etorriko zirela iragartzen eta eusteko eskatzen zuenean. Hegazkinok inon eraitsiak izaniko lorratzik aurkitu ez zenez gero, gutxien ustean itzuli behar zuten. Une hartantxe, adibidez, «bazetozak! bazetozak!», nirekin hartua baitzuen barrua askatzeko konfiantza.

—Ikusten plano hau? —diost, ganbara zaharreko mahai trauskil baten gainean, Euskal Herriaren formako paper handi bat erakutsiz. Lehenengotan txerria zatitzeko mahaia iruditu zitzaidanari gero sorginak erditzeko edo destripatzeko antza hartu nion.

—Nire batailoia —azaltzen du—hementxe ibili zuan Elgetatik Bilborantz, atzeraka-atzeraka, azkenean Santoñan bazterra jo arte.

—Plano zehatza dirudi, bonba-zulo eta guzti. Harritzen nauena da zergatik dagoen plano a Euskal Herriaren forma exaktoan ebakia.

—Mugakideak ez zaizkidak interesatzen.

—Arrazoi praktikoa izan daiteke, konbintzentea ez dakit baina. Zenbat gerra irabazi dituzu plano honetan?

—Asko!

—Eta galdu?

–Bakarra. Franco zerri hori mortuko eskorpioiek jan izan balute! Abade batek esateko ez duk txukuna baina.

–Txukunegia esango nuke, zeu ere frontean ibilia izanik.

–Basurtuko ospitalean kapilau-erizain, hankak mozten eta moztuak ezkutatzen. Kasilda! Askaria prest al zegoen?

–Bai, jauna! –neskameak, bi solairu beheragoko sukaldetik.

–Arrautzak ere pare bana?

–Eta urdai-xerrak, pare bina!

–Goazak! –hots egiten du, planoei berez biribilkatzen utzirik—. Urdai erre hoztua baino larriagorik ez zegok. Uste diat ardotxoa ere izango dugula! –gaineratzen du ahapeka, Eskoriala ganbaran bahituta balu bezalako ahogozoz.

Don Tomasek, bere planoekin eta bere liburuekin (erleak, hiztegiak, belarrak, profetak), ganbaran bizi zuen etorkizuna. Presentea baino askoz harago, nolanahi, oraindik ez baitzuen aipatu agindu nion mandatu koxkorren konturik. Askaritzat, pare bat arrautza eta urdaia iragartzen ziren, baina lukainkak ere baziren, gorri-ilunak, beroan okertuak, zaporean txerri bizia ikusarazten zutenak. Sukalde berez iluna ilunago zegokeen, Kasildaren aurre osoko mantal zuriak argi egin izan ez balu. Gorputz handiko emakumeak, adinean aurrera samar, mugimendu lentoak garatzen zituen, zartagineko keari nagitasuna erantsiz. Ardoa porroian mahairatu zuen. Ontzi hartatik lorrin gabe edaten oraindik ikasteke nengoen. Gero lorrina paparrean gelditzen zitzaidan, sotana beltzean ere nabarmen, oxidaturik bezala. Zain nengoen edontzia nola eskatu pentsatzen, eta don Tomasek dio:

–Atera edontzi bana ere, Kasilda, gaur apur bat kokoteko minez nabilen eta.

–Sabaiko lukainka sortara majo begiratzen du berorrek! – Kasildak.

–Labur eta kostata, Kasilda. Porroiak begirada luzea behar din–. Gero, niganako isil plantan, baina Kasildak entzuteko moduan, eransten du: –Igarriko huen honek porroitik zergatik edanarazi nahi digun, eztuk?

–Elegantziarren?

–Berbera! Ardoa elegantziaz aurreztearren.

–Hemen dituzue edontziok! –hots egiten du Kasildak, gorputz osoa mahaira okertuz–. Berorren min hori kokotetik burura pasatzen zaionean, badut erremedioa, azeri-buztan zukua.

–Mesedez, Kasil! Gaur ez azeri-buztanik!

Beti harritu izan ninduen abade batzuek –«batzuek» diot– neskamearekin osatzen zuten tandemak, «bikote» hitzaren deribazioak saihestearren. Izatekotan, «bikote perfektua» esan beharko litzateke, kendu beharrekoak kenduta. Hots, kendu izanagatik. Don Tomasen zurrutean, sudurra barruan zuen edontzi lodia betaurrekoetara hurbildu zenean, biek material bereko ziruditen. Askaria aurrera zihoala, dohatsu nintzen oso, gizon baten benetako zorion-une baten partaide eta, batez ere, obserbatzaile nintzelako. Kasildak kafea eta «kopatxo» atera zituenean –txikia eta lodi-lodia hau ere, betaurrekoen material bereko–, neure bisitaren xedea azaltzeko unea iruditu zitzaidan.

–Orain, don Tomas, lehengoan aipatu genuen «gehi bat» hura argitu beharko dizut, ezta?

–Zer diagu nik egitekorik?

–Badakizu lehen ere euskal kleroak –Kasilda neskamea igarri barik aldendu zela ohartu nintzen–dokumentu

garrantzitsuak sinatu izan dituela, Erroman aurkezteko. Kanpaina bat abian da hil honen...

–Dokumentua aldean daukak? –mozten dit azalpena.

–Bai, baina lehenik...

–Atera!

–Hauxe da.

–Non sinatu behar da?

–Sinatu hemenxe, baina...

–Kasil! Ekar horko luma gorri hori!

Agertu zen Kasil pasillo ilunetik eta bazekarren luma gorria, idulki eta guzti. Don Tomasek, betaurrekoak premiaz baino solemnitaterik doiturik, astiro-astiro sinatu zuen, bisturiaz bihotza zabaltzen ari bailitzan. Kasik inprentako kaligrafia estanpatu ondoren, harritu ninduten izenpearen bi azpi-lerro miragarriro paraleloek. «Beste bat!» hots eginik, hirugarrena marratu zuen, garrantzia nabarmentzeko asmo osoz bezala.

–Hirutasunaren intsinuazio heretiko samarra ez al duzu marratu?

–Urruntxo saltatu duk, Jainkoa leku guztietan egon arren.

–Sinadura hori badakizu ez dela izango Erromaren begiko.

Nolabait segurtatu nahi nuen zer sinatu zuen ondo jakinean izan zela.

–Erroma ere urruntxo zegok hemendik. Lerrook Jainkoarekin ez diate zerikusirik. Hirutasuna triangelua duk. Marra paraleloak elkarrentzat inexistenteak dituk. Niri ez zaidak erlijio ezberdinak ukatzerik gustatzen. Gurago diat denak salba daitezen. Orain esplikaidak zer sinatu dudan.

–Ez dakit, ba, jaurti berri didazun predikuaren ondoren!

–Datorren domekako sermoirako balio badu, ekarri hurrengoan botilatxo bat «botika gorri».

–Beno, gaur dokumentu bat ekarri dizut, eta hemen duzu testua. Kopiarik ez ematea erabaki da, segurtasun arazoengatik. Badakizu hemen deskuido txikia behar dela plan guztia hondatzeko.

–Ño! Sinadura batzuk ilustreak zeudek hemen: Esteban Bilbao, Careaga, Oriol, Areilza, Sukia, Ibarra, Castiella, Iturmendi, Iribarne...

Izen horiek ez ziren, noski, dokumentuaren oinetan ageri, bere sarkasmo egarberan baizik.

–Dokumentua ez al duzu irakurri behar?

–Zertarako, sinatuta badago?

–Ez dakizu zeure heriotz zigorra sinatu duzun ere.

–Hori ere ikusiak gaituk. Norbere heriotz zigorra norberari sinarazi! Batek itaundu zian ea sinatze hori heriotzaren aringarri bat izango zen, eta ezetza jasotzean, erantzun zian nahiago zuela sinadura gorde okasio hoberako. Badituk uneak non sendotasunaren formarik lirikoena zinismoa baita.

–Pare bat minututan irakurria dukezu.

–Egidak heuk laburpen labur-labur bat, luzean zer izan daitekeen kalkulatzeko diat eta.

–Ba, orain arte Erroman alferrik aurkeztutako dokumentuen...

–«Alferrik» hori sobra zegok.

–Beno! Orain arte Erroman aurkeztutako dokumentuen zerrendaren eta euren edukien laburpenaren ondoren, Eliza pobrea, bizia, askea eta bertokoa planteatzen da. Horretarako errepresioa salatzen da, eta errebindikatzen Euskal Herriaren

eskubide politiko, sozial eta kulturalak, eta gotzainen eginkizuna eskubide horien zaintzan, hizkuntza barne.

–Zenbat sinadura izango dituk?

–Ideala, seiehun bat, baina bostehunera hurreratuz gero, pozik.

–Ideala sei mila esan nahiko duk, Euskal Herrian garen abade eta fraide.

–Hori, ideala barik, idealismoa litzateke. Platon antzina hil zen, zoratuta.

–Zeuek jakingo duzue. Gu zaharrok ez gaitiztek inon behar, traban ez bada, baina gazteok ibil zintezkete argi. Horiek ez zekitek barkatzen gero!

Don Tomas! «Ni ez nauk balientea izan» esaten zuen, baina izan balitz baino maitatuago izan zen.

DON EUSTAKIO

Don Eustakio izaki makalago eta konplexuagoa zen. Bera baino zerbait zaharragoa zen parrokoaren mendean zeraman errepublikatik honanzko denbora guztia, gerratea barne. Jende aurrean ahoskera mehea, kasik emea zuena, bakarrean piztu egiten zen, konfiantzazko lagunekin. Susmoa daukat lagun horiek ez zirela dozena erdira iristen. Euretako bat neu izateko zortea neukan, ez dakit zergatik. Inoiz pentsatu izan dut, doilorki, efebo-grinaren bat ez ote zen tartean, neskamerik ere nahi ez zuenez gero. Parrokoaren etxean jaten zuen, eta badirudi horrek autoritatezko erlazioa asko zentratzen edo, gutxienez, finkatzen zuela. Garbitasuna ez neukan argi non egiten zioten, batzuetan sotana nahiko lorrindurik ageri baitzuen, txakurrak gainean lo egin balu bezala. Ez dago haragoko ondoriorik ateratzerik, parrokoaren sotan ere luzaro izaten baitziren zopa markak paparrean, botoi artean behera eski beltzean jardun balira bezala.

Don Eustakiok bizitza aparte egiten zuen, herrian ziren abade-etxe bietako zaharrenean, baina ez dakit baldintza horrena zen independentziari zion benerazioa, ala independentziaren sena zen bizitza bakartira atxikitzen zuena. Hura baino askoz argiago eta jakintsuago izan arren, bere burua parrokoaren menera mugaturik sentitzen zuen, zeinari,

bestalde, ez baitzizaion ikusten, bere txepelean, inor bereziki menperatzeko nortasunik. Hortik batzuetan pentsatzen nuen Don Eustakioarentzat parrokoa, nagusi jakin bat barik, dependentziazko ente bat zela, egintza aske eta boluntarioen zorabiotik libratzera behartzen zuena.

Kanpotik begiraturik, parrokoarekin zerikusi hurbilik ez zuten zailtasunetan ere, berez-berez ateratzen zitzaion leloa, formulazioa aldatzen saiatu arren (hau ere nahi gabe, seguruenik), funtsean berdina zena: «Baina gure parrokoari... badakik zelakoa den gure parrokoa... gure parroko zimel horrek... esaiok hori gure parroko horri...». Inoiz, gogorragoak ere bai, konfiantza kolerikoan, ezinari duintasun epikoa emanez: «Gure parroko zerri horrek... gure parroko potrozorri hori...». Tarteka, etsipen fatalistatik pasatzea ez zitzaion ahaztuko —«zer egingo zaiok, ba, horixe tokatu zaiguk etal!»—, beste ziklo marmarti bati ekiteko, atsedean bila bezala. Jaten mizkin samarra izanik, aszeta oso baten aurrean geundela pentsa zitekeen, harik eta hiru-lau koñak marka mahairatzen zizkizun arte, bitrinan utzi zituenen jatorriak eta ezaugarriak bertute teologalak bezain sentikor azaldu ondoren.

—Ardoa ona izango duk, baina beltzegia—dio. —Koñakak mezako ardoaren kolorea dik. Ulertzen? Jesukristoren odolaren antzekoago.

—Gizona eraisten ere abilago izango da hau —erantsi nion.

—Lantzean ukitu bat bakarrik. Egun guztian ere zenbat edango diat, ba? Kopa mardul bat, goia. Parroko zaharrari ez esan gero!

—Ño! Honek badaki nondik doan! —justifikatu nahi izan nuen eztula.

–Koñakak horixe egin behar dik. Bestela, ahotik urdailera zer bide dagoen ez haiz konturatzen.

–Eta burua?

–Berdin! Honekin eginda zegok gerritik gorako anatomia. Eta beste gauza asko. Jesukristoren odolarena ez diat alferrik esan, ze meza ere emanak gaituk honekin.

–Koñakarekin?

–Esanda ere ez zioke ardura, aspalditxo izan zuan eta. Badaezpada, ez inon ezer aipatu, eta gutxiago gure parroko zahar horri.

–Harritzen naiz!

–Mezako ardoaz neu arduratzen nauk, eta domeka goiz batean, ez nauk, ba, konturatzen meza-ardoa falta zela, bezperan ekartzea ahaztuta? Esaiok orain gure parrokoari, jendea elizan sartu eta gero! Koñaka urarekin apur bat moteldu eta «hic est enim calix sanguinis mei». Parrokoak ere huraxe. Ezer aipatu izan balu, ardoa ozpinduta

egongo zela esateko asmoa nian, baina ez zioan igarri. Labur samarra, badakik. Txarrena, akolito zapo batek tragoa egin ziola, baina hark ere ezin, ba, bekaturik deklaratu, karraskada batzuk egin zitian baina. Bekatua asmakari ona duk, gauzek gehiegi korritu ez dezaten.

–Gu errebeldeak ginelakoan...

–Ez zegok derrigorra bezalako errebeldiarik. Hasi hadi gure parrokoarekin lelokerietan. Gainera, zer? Ardoa Kristoren odol bihurtzeko gai den sakramentuak zergatik ezin dik berdin egin koñakarekin, ur sanoa nahasiz gero?

–Nik ez nuke eragozpenik, baina zure moduko batek hori egitea!

–Ikusiko duk, egunen batean honelako parrokoa egokitzen bazaik.

–Hori baino balentria apalagoa da proposatzera nentorrena, baina oraintxe ez dakit, ze, parroko hori akabatu ezik...

–Esan beldur barik! Badakik ni gauzak jakiteko eta onartzeko ere desiatzen egoten naizela, neu ez nauk hain suharra baina. Gainera, parroko horrekin!

Parrokoa, parrokoa, parrokoa! Banekien Don Eustakiok ez zuela dokumentua sinatuko, baina, giza konplexutasunean, egintzak berak adinako garrantzia edo handiagoa izaten baitu ingurura zabaltzen den uhinak, ez neukan ahalegina alferrekotzat jotzeko motiborik. Ez da berdin begigoa ala begikotasuna sortzea. Don Eustakio ez zen aurka maiseatuko. Ez gintuen, beharbada, agerian defendatuko, baina, segun non, bere erara, aldeko hitzak izango zituen, edo kontrakoei erreparoa jarriko zien. Koldartasuna eskubide bat da. Utzi egin behar zaio bere bidean joaten, eta ez, sugeari bezala, burua zanpatu, lurrean diskretuki limurtzeko izaera duelako.

–Hi etorri beti ere, zerbait egon nahiz ez –erregutu zidan agurtzean—. Gurea amaitu zuan, baina zerbait ikusteko irrika ez zaiguk joan. Linboan eta beldurpean bizi izan gaituk, hori ere ezer ez egiteko aitzakia izan daitekek baina. Ni asko pozten nauk, hi eta hire modukoak datozenean, zer martxa edo zer norabide berri dabilen jakinez goatzeko. Zeuentzat ere ez duk txarra izango gure modukoak ezagutzea, geldi dauden guztiak ez direla arerioak jakin dezazuen.

DON FERROL

Don Ferroli auzia nola aurkeztu zalantzan nenbilen, ezetz esango zuela suposatzen nuena baietzera ekartzeko bihozkada positibo baten bila. Apaiz gutxik lortua izango zuen «ahultasun» sinpatikotzat hartua izatea gehienengan bizio itsusitzat maiseatzen zena. Noiztenka itxura tamalgarrian atzeman zenuela baliatuz, ez hasi Don Ferrolez hitz txarrik edo dudazkorik jaulkitzen bere herritarren aurrean. Mundu guztiak zekien, «botila ardoa mahaian eta purua muturrean jarritz gero», harengandik edozer lortzea ez zela pizgarri horiengatik bakarrik, baizik berezko etorkortasun erraz eta, nik uste, kontzienteagatik, zeinari txurruplinak bai zemaion kolorea, baina ez muina.

Ikasketetan sobratu ez zitzaion argitasuna (edo gogoia) bizitza praktikokan ingenio bihurtzeko sena sobera erakutsia zuen. Bere ahultasun horri, aitzakiak bilatu beharrean, justifikazio biblikoa, kasik sakramentala aurkitu zion. Aski zuen jainkotasun guztia gizatasun ahulera bildu zuen Jesukristo hartzea babes, zeinak zerbaitegatik bihurtu baitzuen ardoa bere odol. Ahalmen mirarigile berberarekin, berdin hartu ahal izango zuen sagar-zukua.

Izan ere, badirudi, azken afarian, traidorearen aldentzeak Jesus bera ere apur bat «kolokatzera» animatu zuela, eskuren

zeukana transubstantziatuz. Horrek sakrilegio baino gehiago lirudike txolinkeria, bera hiltzeko atxilotzera etortzear zirela bazekienez gero. Ulergarri da sagar-zukua arbuiaua izatea, Ebaren ebokazio labainegiagatik. Baina hauta zezakeen, adibidez, esnea, «odol bereko» eta «esne bereko» esamoldeen sinonimia kasik naturala garatuz. Ba, ez! Ardoa behar zen, apropos duda gabe, Jesusen gogo esentzialki orokontzientean.

Aurrekari hauei guztiei berak sekula usainik hartu ezin izan zien argudiatze teologikoak eta filosofikoak utzirik, hor zetorren Don Ferrolen ekarpena, azaltzen zuenean ezen mahats-hostoak, Eba biluziaren irudietan, ez lukeela estaltzen duenik estaliko, sagarraren benetako esanahia era nabariagoan seinaltzeko ez balitz. Horrela, Jesukristok, ardoa bere odoltzat hautatzean, apaizaren grina edenikoa hostopeko misteriotik edari hartarantz desbidetu nahi izango zuen, egia baita, substantzia aldatu arren, ezaugarri akzidentalek (pizgarriek) berdin darraitela. Garbi esanda, ondorio naturala dela «akzidente» horietaz zaletzea. Eta, behin edo behin, estasiari azkeneraino jarraitzea ez dela besterik misterioaren aitormen gorena baizik.

Hori guztia ofizioaren deribazio santutzat jo behar zen, hostoa mugiarazten ez zen bitartean. Argudioaren logika lar ortodoxoa ez izateak bide zemaion don Ferroli elementuak ordena ezberdinetan erlazionatzeko eta, beti ere lagunartean arabera eta ingenioaren laguntzaz, efektu ezberdinki graziosoak edo xarmagarriak lortzeko, apaiz baten ahotik arte zaila bazen ere.

—Ni alera noak, ez hostora—esango zizun batean.

—Gaur aihena tokatzen duk —beste batean.

–Erdibidean, beraz? –galdetzen bazenion, erantzun zezakeen:

–Baina gorantz beti, kaliza bezala.

Susmoa neukan, gainera, «edan txarrekoen» kontraposizioz, funtsean, «edan oneko» izatearen kontzientzia laketua zeukala. Eliztarrei entzungo zenien edanak Don Ferroli ez ziola egiten berezko ontasuna nabarmendu besterik. Izan zitekeen, gutxienez, gogaikarri jartzea, baina horixe ere ez. Mihia trabatzen hastera zihoala igarriz batera, entzun eta barre egingo zizun, lantzean behin «bai, ezta?, esan ere!, eta?, hori duk ona!» eta horrelako makulu errazekin solaskidea anparatuz. Hain zirudien bere izaeran konfiantzadun ezen, behin edo behin, bere kabuz etxeratu ezin izateraino deskuidatzen zenean ere, ziur zegoen kontu eta begirune osoz erretiratua izango zela, eta inork ez zuela bere kontrako hitz zakarrik zabalduko. Edo zabaltzen zuenak bere burua izen-txartzea besterik ez zuela lortuko.

–Joño, Gorki! –hots eginez besarkatzen nau, nik jotako atea ireki duenean.

–Trotski esan gurako duk.

–Trotski txakurra zuan gurean. Ez duk gurako harekin berdintzea, eztuk?

–Txakurrak ez dituk, ez, sotana zale. Hilaren lehen ostiraletan, gaixoei Gure Jauna banatzera noanean, a zer eskandalua sortzen den bazterretan, inkisizioa baletor lez.

–Nik hori laster konpondu nian. Txakur-larru figurako humerala eroaten hasi nintzenetik, zoratuta lez ezkututzen dituk.

–Gaixoen aurrera ez haiz humeral horrekin azalduko baina!

–Gaixoeak nora alde egingo diate, ba?

–Logelan sartzerako, soineko liturgikoari buelta eman, gutxienez.

–Deabruaren beldur den arimarentzat, txakurra ez duk ezer. Tragotxo bat ez al duk gura?

–Hori azkenean. Tratua itxitakoan.

–Orain ere ba al dakark lorrinen bat?

–Esan nian lehengoan nola adierazpen garrantzitsu baterako sinadura bila gabiltzan, Erromara bidaltzeko eta mundu guztian zabaltzeko, euskal kleroaren izenean. Herritarrek ezingo luketena ea abadeok apur bat itxuratu ahal dugun. Hemen daukak testua.

Irakurtzeko plantan, ziur naiz, bere begi pitin bat okerrezt, sinadura erantsiak dezifratu guran zebilela. Sukaldea ez zen nirea baino asko berriagoa. Lixibak jandako karlista aroko armairu batean, oraintsu ordeztuak ziruditen tiradera izeizkoek Elizaren aggiornamento ahaleginaren irudi larri samarra emango zuketena, goieneko aurre kristalezkodun bi apaletarik azpikoan botilak ageri izan ez balira. Edariak eta tomate poteak nahastean. Eta gainekoan, altuera berdintsuko, baina oso forma ezberdineko edontziak, Ama Birjina ala Santa Katalina ote zen garbi ez zegoen iruditxo irribarretsu bat erdian zutela. Sukaldeko bi leihoetako baten orri-bitartea luzera osoko kartoi-tira doblatu batekin harturik egoteak esan nahi zuen haizea han ere ez zela lagun gogokoa, uda gainean izan arren. Don Ferroli begira, seminarioan noiznahi gertatu ohi zen unea gogoratu zitzaidan, bertan ikusten bezala. «Ferrol Goitiandia!» deia, eta berak: «Presente!». Formula militarra ikasia zuen, nonbait, etxeko anaia zaharragoen kondairetatik. Haren buru atabikoa aldatzeko arautegi eklesialik ez zegoen. Oraintxe ere ikusten ari naiz nolako kontzentrazio itxura

ematen zion testu-liburura begiradari, pentsamendua auskalo non zerabilela.

–Ederto zegok! –hots egin zuen, dokumentuaren exegesitik bueltan bezala.

–Heuk sinatzeko pentsatua zirudik.

–Hik badakik ni horrelako kontuetan ez naizela errimea.

–Baina, Ferrol! Abadeok ere apur bat bultza edo tira egin beharko diagu, ez al duk uste?

–Badakik nire lema zein den: «Laissez faire. Lasai, Ferrol!». Seminarioan urteak egin nitian horixe esan nahi zuelakoan. Gero, zer zen argitu nintzenean, pentsatu nian: «Lasai, Ferrol! Utzi lasai jendeari». Egin gura duzuela? Egin! Nire zeregina ateei zabaltzen uztea duk.

–Ate guztiak ez dituk berez zabaltzen.

–Niretzat nahikoa duk traban ez jartzea.

–Gauden diktadura politiko-moralean, kostako zaik guztiekin «laissez faire» aplikatzea.

–Ezin direnekin gurago diat iskin egin, aurrez talkatu baino. Ni ez nauk balientea. Geldi dagoenarekin ez haserretu, eta egiten duenari ondo esan.

–Eta txarto egiten duenari?

–Ez ondo esan. Orain arte honelaxe konpondu nauk, eta jendeak maite nauela uste diat.

–Dokumentu hau sinatzeak ez zeukak gutxitu beharrik maitasun hori.

–Gurago diat ez probatu.

–Ondo zegok. Itxaroten nian.

–Hi, orduan, neurekin egotearren etorri haiz. Jo dezagun tragotxo bana, ez garela haserretu ospatzeko.

Egia zen. Ezin zen haserretu Don Ferrolekin. Ikusten nuen iritzidun ezberdinek eta iritzigabe ezberdinek berdintsu maite zutela. Mirari bat. Kapilau militar joatea egokitu zitzaionean, soldaduekin ondoegi konpontzen zelako, betiko lizentzia eman zioten. Ezein agintarirekin haserretu gabe! Mirari hori diktadura batean lortzea beste mirari bat zen. Sinadura baten bila nindoanean, amorru pixka bat ematen zidan, baina beharturik aurkitzen nintzen hura maitatzera. «Maitatzera» eta «beharturik» kontraesana dela? Beste mirari bat.

DON KASTOR

Erratu nintzen herri txiki bateko koadjutoreaz, zeinari geure zirkuluan «Barbarroja» deitzen genion. Eskailburu erdi-ilunetik, nire ate jotzeari igotzeko aginduz erantzun zion. Sukalde desbiztandu itxurakoan eseri ginenean, horma lodiko leiho txikitik zeharka eman zion argiune batek pentsarazi zidan haren betaurreko gizenen atzetik ostra maskor gabetuek begiratzen zidatela.

–Barka, Don Kastor, baina gaur ez nator gosaltzeko astiz. Jario luzeak diskurtso laburrera ekartzen trebea zarenez gero, itxaroten dut hitz gutxitan ulertuko duzula beste batzuentzat azalpen luzea beharko lukeena.

–Ondo hasteko, hitz gehiegi egin duk.

–Ona! Apaiz-talde bat ekintza nabarmen samar bat egiteko gara. Baliteke zuri gaizki begitantzea, baina, beste sentimendu batzuetan daukagun kidetasunagatik, eskertuko genizuke aurkaritza publikorik ez agertzea.

–Nortzuk hil behar dituzue?

–Don Kastor! Nondik pentsatu duzu inor hiltzera goazenik?

–Heuk nondik pentsatu duk nik aurka egingo dudanik?

–Beti entzun baitizugu errebeldiak gaitz handiagoak dakartzala, obedientziak jasanarazten dituenak baino.

–Esaidak behar denean behar dena, eta pentsatuko diat zer egin. Sar nazakek koldarren artean, baina ez aluen. Hain gutxi, traidoreen.

–Barka nire aurreiritzi okerra. Sekula ez naiz gusturago zuzendu. Laster izango duzu behar den guztiaren berri.

–Dena delakoa dela, ez zekiat noraino defendatu ahalko zaituztedan, baina ez duzue entzungo Don Kastorrek gaitzetsi zaituztenik.

Horrela hartu zaituen batengana nola ez zara, ba, itzuliko?

ANAIA APAIZAK

Biztanlez baino ospez handiago zen herri batean, bi anaia zeuden parroko eta koadjutore, biak adinean aurreratuak. Kasu deigarria, ez hainbeste bi anaiek herri bereko bi postuak betetze txit ohigabeagatik, nola hain denbora luzean elkarrekin ondo konpontzeagatik. Biki biologikoak ez izan arren, beste guztian halaxe ziruditen, gorpuzkera handi eta lerdinak barne. Gaztetan sekulako mutil puskak izanak behar zuten. Biak ziren ahots sendoko eta sermolari handien famako. Haien atea jotzen bazenuen, biak irtengo zitzaizkizun, edo bakarra agertu bazen, berehala deituko zion besteari esanez:

–Anaia! Begira nor dugun hemen.

–Bai gero! –hots egingo zuen bigarrenak, bisitaria ikusiz batera–. Honelako ohorerik ez nian gaurko eguzkitik itxaroten!

–Sar barrura, sar! –jarraituko zuen lehenengoak–. Gure harrera onartzeko beste asti baduala emanik, jakina.

Bigarrenak abade-etxe handi zaharrean nonbait zebilkeen neskameari zuzenduz, hots egingo zuen:

–Engrazi! Topa botila gozo horietako bat, honelako bisitarik ez dinagu egunero izaten eta.

Gero, prestakuntzek ziragarten bezain mahai ez hain ugarian, laster ohartuko zinen batak zioena ez zela posizio irmoa, besteari begiratu eta honek berretsi arte, buru-keinuz eta «hm, hm!», edo «bai, bai!», edo «ez, ez!». Norberak ere laster ikasten zuen, bata hizketan ari zela, besteari begiratzen, baietz ala ezetz erantzun behar zen jakiteko.

–Karrera handia egingo duk hik... –batak.

–Bai, bai! –besteak.

–...bahaizena gainditzen ez duk erraz izango baina –batak.

–Hm, hm! –besteak.

Batak zioenari zuzen erantzuteko lasterbidea alferrik zen, besteak memoria harrigarri literalez errepikatuko baitzuen aurrekoarena, «bai» edo «ez» bat erantsiz, enuntziatua noiz burutzen zen nabarmentzeko. Adibidez, bataren «karrera handia egingo duk hik» esanari «ez hain handia ere» erantzuten bazenion, besteak «karrera handia egingo duk hik, bai!» errepikatuko zuen ozenago, zure erantzuna anulatuz. Orduan lehenengoak «hm, hm» baieztatuko zuen, errepikari lehentasun originala emanez bezala. Orduantxe has zintezkeen erantzuten, biek arreta espektante berdina jartzen zutela.

Esaldiak luzeago zirenean, banaketa oratorioa egingo zuten, kadentzia eta guzti.

–Lehengoan, bati entzutea gertatu zitzaiguan..

–Hm, hm! –besteak.

–... hor sermoi ospetsuren batean aldarrikatu huela...

–Hm, hm!

–... Josafateko zelaia pinu sartu dutela.

–Bai, bai!

–Burutazio ingeniosoa duk hori ...

–Bai, bai!

–... baina ez zekiagu, ba, abade baten ahotik...

–Hm, hm!».

–... horrenbesteko nobedadeak zabaltzea prudentzian sartzekoa den.

Eta abar. Kontua da bi anaia sermolariok hizketa arruntean ere ez zekitela oratoriatik libratzen, ohituraz eta oharkabeen ziurki, lehenago ondo kostata trebatu izango zirelako edo. Bazuten, aldi berean, solaskideari eder egiteko joera bilateral bat (bakoitza albo banatatik, alegia), gratuito izatetik elegantziak salbatzen zuena, eta zurikeria irudiaraztetik, ironia puntu eskolastikoak. Nahiz eta norbera, alderantzizko oratoriaz, tonua apaltzen ahalegindu (oratoria berau ere), une batzuetan ezin zenuen ekidin haien unisono goratzailea sinesteko banitatean jausterik.

Bi anaion portaera losintxaria maila edo kargu bateko pertsonekin izango zen, noski, fama baitzuten herritar soilekin goitasun ondo markatua garatzen zutela, horixe ere, beharbada, sen oratorioz areago, prepotentziaz baino. Egia zena da, herri xehe baina berau ere ongizatatetik baino ironiatik hobeto hornituaren aurrean, nahiko unisono beldurgarria osatzen zutela. Eliztarrek, oster, herriaren harrogarri bat gehiagotzat kontatzen zuten haien iraupen bitalizioa bertan, aipatu oratoria txit baloratuaren poderioz.

Neu ere hortik ausartu nintzen gure operazioaren berri haiei kontatzen, pentsatuz ezen, sermoigintzan hala nabarmentzeko, hizkuntzan ere saiatuak izan behar zutela. Eta garaia zen bezalakoa izanik, arrandia oratorioaz edo berotasun kristauaz beste sentimendu batzuk ere derrigor ezkutatu behar zirela hizkuntza horren (euskararen) ahaleginean. Elkarrekiko

agur- eta sarrera-hitz borobilen ondoren, eta Engrazi botila gorri-ilun bat mahaian utzita joan zenean, neu ere, tonutik ez jaisten saiatuz, hasi nintzen:

–Zuei bisita niretzat hutsean ere atsegin gainezkor bat den arren, gaur badu beste motibo txiki bat, berba labur bezain lagunkorretan azaldu nahi nukeena. Baliteke zuek eta ni, adinagatik gehienbat, ideia orokor batzuetan dibergenteak izatea, baita, beharbada, aurkako ere, baina zuei jakinarazten ausartuko naizena nahi nuke ez dezazuen hartu errespetu faltatzat, zuen gizatasun jatorrak eta araberako entzuteak damaidaten konfiantza moduan baizik. Bizkaiko abade-talde handi samar bat, gazteak ez ezik, helduak ere bertan ugari direna, ekintza nahiko zaratatsu bat egitekotan gara, Aita Santuari bidaliko zaion ordezkaritza eta guzti. Eliza barruko auzitatzat formulaturik egon arren, argi dago eduki politikotik ere ez daukala gutxi. Areago, esango nuke Euskal Herriaren aldeko aldarri politiko bat dela funtsean, Elizaren barne kontu moduan aurkeztua. Seguruenik, erantzuna eskatzen zaion Erroma bakarrik isilduko da, Jainkoa imitatuz. Eta zeuek ere konpromisoan aurkitzea probableena izango denez, beti izaten den maltzurren batek edo kokolo inoportunoek zirikatuta bada ere, eskatuko genuke, ez, jakina, defenda gaitzazuen, baizik zeuen etorri gozagarri eta edonon ospetsu hori ez dezazuela gure kontra sutsuegi hustu, gero ere denok hementxe, elkarren inguruan bizi beharko baitugu.

–Goitik ez ote gaituzte gurutzearen kontra estutuko? –batak.

–Ez ote gaituzte...? –besteak.

–Ziur gotzainak gutun pastoralen bat zabalduko duela –nik–, eta elizetan irakurtzera derrigortuko zaituztela. Zuek ez

daukazue gotzainari desmen egin beharrik. Nik esan gabe ere baduzue sobera argitasun, baina nahikoa zenukete predikatzea, adibidez:

–Munduan handiak ikusteko jaio ginela, baina, kristau maiteok, haxe ere ez da txikiena. Badakizue guk beti predikatu dugula obedientzia santuaren lehentasuna, eta gaur ere ez daukagu horretan dudarik. Hona gure gotzain agurgarriaren gutun pastoral, gure aldetik errespetu osoz irakurria izango dena.

Irakurri ondoren, jarrai zenezakete:

–Gure aldetik, ezin dugu aldeztu abadeen errebeldiarik, baina gauzak zuzen jakiteko eskubidea duzuenez gero, euren agiria ere, Erromari zuzendua, irakurriko dizuegu, gero fededun bakoitzak, kontzientzian, bateko eta besteko arrazoiez, bere iritzi kristaua eman ahal dezan.

Edo beste gabe, idazkiaren kopiak elizako irteeran jar ditzakezue, nahi duenak har dezan.

–Proposatzen duzuen bigunen horixe egiteko ere balientea izan behar duk! –batak.

–Proposatzen duzuen bigunen horixe ere... –besteak.

–Ba, orduan utzi bertan –nik–. Laster iritsiko zaizue kopia bat, eta zeuek ikusiko.

–Zismaren bat probokatzera ez duzue joko, ezta? –batak.

–Hm, hm! Zismaren bat..., ezta? –besteak.

–Ikusiko dugu eliz hierarkiek nola darantzuten –nik–. Gure asmoa egoera bat azaltzea eta salatzea besterik ez da, Ebanjelioaren izenean. Eta eliztarren eta herritarren (Euskal Herriaren, garbi esanda) eskubide batzuk errebindikatzea. Ziur gaude gure agirian zeuen sentimendu sakon batzuk ere

aurkituko dituzuela, nahiz eta ez, beharbada, zuen trebetasunez azalduta.

–Jakin-min zorrotzegian uzten gaituk –batak.

–Hm, hm! –besteak. Hasieran aipatu duan konfiantzara...–
batak.

–Hm, hm!

–... xehetasun txikiren bat aurreratzerik ez al daukak?

–Xehetasun txikiren bat...? –besteak.

–Ziur nago, ni joandakoan, zuen argitasunak gehiago eskertuko duela espektazio hutsean gelditzea, huskeria baten jakintzan baino.

–Ondo zegok! –batak–. Batzuetan, elkarri zer esan ere ez diagu jakiten, eta zeri ekin utzi diguk, behintzat.

–Utzi diguk, bai, zeri ekin –besteak–, batzuetan elkarri zer esan ere ez diagu jakiten eta.

DON ZIRILO

Beste elizgizon bat ere tentatzea pentsatu nuen, uda-herri ospetsu batean aspalditik apaiz bakar zegoena. Aurreko bien antzera, harrigarri zen nola zenbait kasutan, praktika orokor ororen aurka, herri bat estreinatua zuen apaiz lerden bat bertan zahartzen zen, azken hitz goibela ez aipatzearren. Don Zirilok herri baten memoria osoa hartzen zuen. Ez nengoen ziur errespetu adina onarpen bazuen, baina, badaezpada, Don Zirilogatik ezin zen herri hartan ironia dudazkorik jaregin. Herriaren bereizgarri bat bezalakoa zen. Noizean bisita bat egina nion, eta aitor dut, haren kasuan ere, euskaraganako igarri nion ardurak eroan ninduela suposizio orokor baikorragora, pentsatuz sentimenduak ezin direla izan lehoi nabarra bezain bakartiak, ez zebrak bezain gregarioak.

–Gaur kontu dorpetxoagoz nator, Don Zirilo.

–Nire adinean dena duk dorpea. Ahaletik gora, berdin duk kilo bat izan zein bi tona.

–Lurbira osoa ere bai, orduan.

–Baita unibertso osoa ere! Ezinarentzat ez zegok toperik.

–Joño! Honen izaki tristeontzat, bada nahiko kontsolagarri jakitea zerbaitetan infinituak garela.

–Eskerrak Jainko errukior bat daukagun! Zer dakark?

–Ez dakit aitita maitagarri bati bezalako txera hartu dizudalako ala zergatik den, baina ezin nintzen baketu zuri sekretutxo bat aitortu gabe, beharbada nahigabea hartuko duzu baina. Sarritan entzun zaitut esaten: «Apaiz geldigaitz horiexek hondatu behar zigutek gure sosegu ondo kostatua».

–Astakeriaren bat ez huen egingo, eztuk?

–Egiteko gara.

–Gara? Nortzuk?

–Bizkaiko apaiz-talde bat ekintza ozen samar bat egitekotan gara, laster-laster.

–Eta nik zer egiteko diostak hori?

–Zuk ezer ere ez, Don Zirilo. Hain zuzen, zukanako konfiantzak ezer ez egite horrexen erregura nakarkizu. Alegia, ez zaitezela gure aurka gehiegi oldartu, zure hitzak hain beneratuak diren herriaren aurrean.

Don Zirilok burua makurtu zuen bere arnasa jada estuaren gainera. Nire azalpen mantso eta suabeari, konfesioko xuxurla bezalakoari, noizean sobresalto antzeko hasgoraz erantzuten zion, sorbaldek buru gainera igo nahian. Une batez larritu nintzen bihotzekoak emango ote zion. Txorien agoniaz gogoratu nintzen, zeina umetan loarekin erratu nahi izaten bainuen. Tente egon nahi zuen burutxoa alborantz jausten zen, begiak bai itxi, bai zabal. Neure ahurrean gertatzen zen heriotza ñimiño eta epel hark nahigabez itotzen baninduen ere, ezin nuen bat egin gero aurkeztuko zidaten heriotza terrorifiko harekin. Don Ziriloren burua ere, sotana beltzaren gainetik zurtasun guztiz borobila eta homogeneoa hedatzen zuena, oso alborantz makurtu zen.

–Don Zirilo! Ondo al zaude?

–Zergatik kontatzen didak sekretu hori?

–Ezin dizut erantzun buru hori goian ikusi arte.

–Hainbesterako bagaituk! Ezin al dituzue gauzak beste era batera egin?

–Zuk ez hainbeste begiratu erari, nola edukiari.

–Modus est res. Era duk zera.

–Erromatar jakintsuak berdin trebeak ziren esaera zorrotzak asmatzen, nola gero elkar hiltzen. Baliteke era ere izatea zera, baina, gure kasuan, oso zati txikia izango da. Eta nago gure aldarriak zeure sentiera ere adieraziko duela, neurri handian areago txikian baino.

–Bizi guztiko leialtasuna hauts dezadan eskatzen al didazue?

–Ez dizugu ezer eskatzen, Don Zirilo. Zugana jotze hau neure buruera guztiz pertsonala izan da, zuri dizudala badakizun txeraren erakusgarri. Ez bazenekien, oraintxe aitortzen dizut.

–Eskertzen diat hori, baina barruregi hator nire kontzientzian.

–Segi beza zure kontzientziak bere osotasun ukiezinean. Bakar-bakarrik opa dizut, gertaeren berri jakiten duzunean, ez zaitezela gure aurka gaitzitu bitarteko txera apurtzeko beste.

–Ez nagok haserre berriak erakartzeko adinean. Julianatxo! –deitzen dio neskamea zela uste nuenari, baina arreba zenari– . Gizon hau ezingo dinagu bidali etxe hutsera etorri balitz lez!

Gehiago ez nion ekin, probidentzia deitzen zitzaion destinoaren esku ere utzi behar baitzen zerbait.

AITA FIDEL

Zailtasun gutxiago izan nuen prestatze kanpaina hartako azkentzat utzia nuen karmeldarren komentu batean. Priore argal eta luzeak, abitu marroi-argiz are luzeago ematen zuenak, irribarre jarraikorrezt eta hizkera kadentziosoz hartu ninduen kapera antzeko egongela batean, non sarrarazi baininduen atezain baxu baina mardo batek, esanez: «Itxaron apur batean. Etxean dagoela uste dut, dena jakitea ez da nire zeregina baina». Hitz truke kasik erritual baten barruan, prioreak «zer dugu, ba?» galdetuz batera, ez nuen erreparorik izan gaira zuzen jotzeko.

–Begira, aita Fidel! Konfiantzaren abantaila handietako bat denbora laburtzeko balio izatea dela jakinik, gakora noake zuzen, itzulinguru labainak utzita. Bizkaiko apaiz-talde batek ekintza deigarri bat burutzea erabaki dugu. Ulertuko duzu zelakoa izango den aurretik ez zehaztea, baina laster jakingo duzu guztia. Zuri dizudan begiruneak eta egiazko sinpatiak agintzen zidaten gure asmoaren berri zuzen eta pertsonalki eman behar nizula. Aita Santuari zuzendutako agiri bat publikatuko da, bertan ekintzaren arrazoiak eta eskakizunak azaltzen direna. Neu arduratuko naiz zuri hutsik gabe hel dakizun. Badakigu, alde asko eta indartsuetatik, aurkaritza gogorrak eta desprestigio kanpainak altxatuko direla. Horrek

ez gaitu beldurtzen, areago motibatzen baizik, zenbat eta hots handiagoa sortu, hainbat urrunago iritsiko baita oihartzuna.

Zuk ez daukazu, noski, ekintzaren formarekin bat etorri beharrik, batez ere segurutzat aurreikusirik gotzainak gaitzespen latzeko gutun pastoralak publikatuko duela, Bizkaiko eliza guztietan irakurria izan dadin aginduz. Ez daukazu gure agiriaren atal guztiekin bat etorri beharrik ere. Bakarrik ausartzen naiz eskatzen ezen, gure herriari buruzko sentimendu komun askoren izenean, saia zaitezela agirian aurkituko dituzun zati onesgarriak nabarmentzen. Eta aurkakoetan edo dudazkoetan, ez dezazula agertu gaitzespen garratzegirik, indar zapaltzaileak poztuko dituenik. Komentuan zenbat abitu, hainbat kontzientzia izango zaretenez gero, zeuk dakikezu ondoen gaia nola bideratu komunitatean.

–Ordenaren arau eta obedientzien barruan, ahaleginduko gaituk jokatzeko Jainkoaren herriari eta geureari ongarrien izateko moduan.

–Herri hori, Jainkoarena eta gurea, Euskal Herria, aspaldion asko ernatu da.

–Komentuan ere ez duk dena otoitza eta loa, astakeria handiren bat burutzen ez baduzue.

–Handia, badaiteke. Astakeria, ziur ezetz.

Aita Fidelek, ekintza agerian aldezteko saihestu bazuen ere, azpi-lan handia egin zuen informazioa zabaltzen, orriak eta abar.

EAKO KUARTELEAN

Bizkaiko Ea izeneko kosta herrian, gure autoak elizaren kontrako zubitik kuartela ikusi zueneko, alto eman ziguten. Eako erdigunea plaza txiki bat besterik ez zen, errepidearen eta kale biren gurutzeak sortzen zuena. Kale bata porturantz eta hondartzarantz galtzen zen, eta bestea mendi kontran hiltzera. Kuartela erdi-erdian zegoen, etxadi baten angelu eginez. Aurrez aurre, beste angelu bat eginez, eliza. Bien posizioak elkarri begiratzera behartzen zituen. Gu gindoazen norabidetik ezkerrean, taberna zabal eta argitsu bat zegoen, eta eskuinean etxadi antigoaleko bat, bere balkoiteria beiradunak beti arretatu izan ninduen, baina ondo behatzeko astirik eman ez zidana.

Sasoian eta ordu jakinetan, udatiar koloretsuen joan-etorri trinkoa aurkituko zenuen, kuarteleko arkupeetan izan ezik, balkoitik masta sendoan dilindatzen zen bandera espainolaren azpian. Gu gentozen orduan, goizeko hamarretan, plazatxoa huts-hutsik zegoen, probidentziaren batek berariaz disponiturik lez. Alto ematen ari zitzaigun agente-bikotea bakarrik ageri zen, balkoitik ia euren buruetaraino jausten zen oihal gorri-horiaren azpian, zeinean, eguzki diagonal goiztiarrez, gorriak minago eta horiak ahulago ziruditen. Falta zitzaizkigun hoge metroetan, abiaduraren desazelerazioa

ondo kalkulatu behar zen, errespetuzko hurbiltzea adierazteko moduan, beldur susmagarririk iradoki gabe. Lau segundotan estrategia osoa taxutu behar zen. Ez ginen abilegiak, baina esturak lan bizkorrak egiten ditu.

–Hi trankil! –diotsot lagunari–. Neu egingo nauk behar den guztiaren erantzule.

–Txofer neu noa. Eta autoa neurea da –lagunak.

–Neuk eskatu diat hiri ni Gernikara eramateko.

–Gernikara zertara?

–Artzapezagana.

–Artzapezagana zu? –lagun harrituak.

–Eliz liburu zahar bat ikusi gura nukeela.

–Eta poltsa hori? –lagunak, estutzen hasita.

–Neuk sartu diat maletegian. Hi isilik!

–Eta banatzen bagaituzte?

–Dudazko guztia neuri bota. Hik ez dakik ezer.

–¡Buenos días, señores! ¿Tienen la amabilidad de salir del coche?

Gure sotanak ikustean, banuen itxaropen bat jarraitzeko aginduko zigutela, baina ez zen hala izan.

–Usted puede quedarse –diost bigarren agenteak niri.

– Si me permite, casi prefiero estirar los pies –nik berari.

–¿Estirar los pies?

–Bueno, respirar un poco.

–Acompáñennos los dos a la oficina.

Bidean ez nuen ezer pentsatu nahi, baina pentsamena bazebilen. «Hau ataka modular» –pentsatu nuen pentsatu behar zuela nire lagunak. «Hau ataka zuloa! –nik neure kautan–. Nola ez zaiguk gogoratu goiko errepidetik joatea?». ».

Lapur-begirada bat jaurti nuen atzerantz, norbaiten ezagutza edo txera bila. Beltzez jantzitako atso baten paparretik gorakoa bakarrik hauteman nuen elizpeko horma gainaz handik. Elizako ate ondoko bankuan eserita zirudien. Taberna irekitzeko zegoen, eta balkoi beiradunetan eguzkiaren islak ez zuen ikusten uzten inor begira zegoen.

Kuarteleko pasilloko zoru-harriei izerdi iluna zerien, eta sabaiko zureria zaharrak txerri-erretze baten kearekin pintatua zirudien. Katu usaina zabaltzen zuen. Hormek kareztatuak ziruditen. Izurriren bat izana behar zuen noizbait. Ate bat ireki zen eta bi agenteek haranzko pasilloa moztu ziguten, alboranzko atetik sartzeko keinu eginez. Atearen itxiera entzun genuen, eta bi agenteak atzean tente jarri ziren, hurbiltzeko aginduz. Mahaian idazmakina pretoriano bat zegoen, tekla-hizkiak ia ezabaturik. Mahaia zerezkoa zen ikusterik ez zegoen, paper horixkaz eta karpeta berdez gainezka, kontsentitua zirudien desordenan.

—Bulego bat dirudi honek —hots egin nuen distentsiotik hasi nahian.

—Zer itxaroten zuen berorrek? —galdetu zuen agente gidaria zirudienak—. Billar-areto bat?

—Gure apaiz-bulegoak ere antzekoak baitira —jaulki nuen, biok apaizak ginela nabarmentzeko.

—Hona sartzen direnak ez dira horren hiztun hasten—. Ironia mehatxuzkoa iruditu zitzaidan.

—Gure apaizetxeetara oraindik ez da iritsi idazmakinarik.

—Kopiagailuak iritsi dira, ba! Eman biezat dokumentazioa, mesedez! —diotso nire lagunari.

—Autoan utzi dut.

—Joan eta ekar, mesedez.

–Gaixo samar dabil aspaldion –esan nuen lagunaz, irten zenean–. Motorra kaltegarri zaiola eta autoa erosi diote. Don Kersen oso maitea da herrian.

«Kersen» izenak apur bat inpresionatu zituela iruditu zitzaidan. Isiltzea erabaki nuen, ohartzen bainintzen maleziak baino esturak hitz eginarazten zidala. Kuartelaren txikitasunak konfiantza zerbait eman zidan. Guztiz irrazionalki, noski, zeren han tortura-gelarik ez zela jorik ere, amen batean eraman gintzaketen Gernikako kuartel zentralera, Hidalgo kapitain gorrotatuaren erpeetara. Neure pentsakizunetan itotzen ari nintzela, mesede egin zidaten galdetzean:

–Gizaburuagako ala Amоротoko apaiza da berori?

–Bietakoa aurtendik.

–Berorren laguna nola da Mendexakoa bakarrik?

–Esan dizuet nire laguna osasun mugatuan dabilela.

–Berorrek kantatu ere egiten ei du.

–Apaizok ofizio dugu kantatzea, batzuetan motiboa ez da hain alaia izaten baina.

–Elizatik kanpora esan nahi nuen.

–O! Zuk «bertsolari» esan nahiko zenuen. Apur bat zale naiz, baina oso gutxi nabil.

–Sotana eta guzti?

–Jakina! Guk ezin dugu uniformeak erantzi zuen moduan.

–Gitarra jotzen ba al daki berorrek?

–Nahi nuke, baina ez. Bertsoa a capella izaten da.

–Elizetan hasia da, ba, gitarra ere entzuten!

–Nobedade hori inguru hauetaraino ez da iritsi oraindik. Guk ere, zuek bezala...

Amaitzeko gogo handirik ez neukan esaldia Kersenen sarrera txit oportunoak moztu zuen. Eskuetan zekartzan dokumentuak agente zaharragoari luzatu zizkion, eta honek paperak aztertzen edo azter planta zegien bitartean, saiatu nintzen neure pentsamen trabatua apur bat laxatzen eta estrategia imminentea zerbait taxutzen. Izatez, ez zegoen taxubide handirik. Maletgia irekiarazten bazuten, zetorrenari aurre egin behar.

Kersen eta biok ez ginen ausartzen elkarri begiratzen, begirik kentzen ez zigun agente gazteak pentsa ez zezan zerbait elkarri adierazi nahian genbiltzala. Agentearen begiradari eustea ere ez zen batere animagarri, eta burua berez makurtu zitzaidan. Nire begi zeharrek Kersenen zango bat ikusi zuten. Harritu nintzen lagunaren praka nasaiak hain geldi egoteaz, gauza hain zaila berau nola litzatekeen zango-hezurra dardaran eta mamiak bare.

–Dokumentu hauek ondo daudela dirudi. Utziko al dit nortasun agiria, mesedez? Berorrek ere bai, ardura ez badio –diost niri–. Hauek ere zuzen dirudite. Tori! Nondik datoz eurok?

–Gentozen aldetik ez dago Lekeitio besterik –diot.

–Lekeitio zer dute eurok elkarrekin?

–Gaur tailer bat –diot–, nire motor aberiatua utzi eta Don Kersenen autoan abiatzeko.

–Norvegiarra edo dirudi berorren izenak –diotso Kerseni.

–Ez, ez! –Kersenek–. Bertoko petoa da. Kresentzio→ Kresen→ Kersen. Batzuentzat, Kertsen.

–Izenak kamuflatzeko joera handiegia ez al dabil inguruotan?

–Ni Kersen deitzen naute guztiek, hizketan hasi berriek barne.

–Nora doaz eurok?

–Gernikara –darantzut azkar, Kerseni ahalik isilen egoteko mezua transmititu nahian.

–Jakín al daiteke zertara?

–Gandara deiturako abade eta idazle antzinako baten datu bila nabil –diot–, eta artzapezaren baimena behar dut, eliz liburu zahar batzuk ikusteko.

–Liburu zaharrak? –erantsi zuen «zaharrak» markatuz.

–Zaharrak izan ziren berri, eta berriak izango zahar –jaulki nuen.

–Arrazoi biribila, liburu zaharrak estalgarritzat erabiliko ez balira –agenteak.

–Ez dut ulertzen zer esan nahi izan duzun, jauna –esan nuen, apur bat kokolo agertu nahian.

–Neuk ere ez garbi-garbi –agenteak, zutituz–. Ikustea komeni da. Irekiko al digute, mesedez, autoaren maletegia?

Oraintxe bai ez daukagula eskapurik!

–Jaurtik giltz hori! –diotsat bidean Kerseni, ukondokada disimulatuan.

–Hemen ezin da hizkuntza hori egin! –mehatxatu ninduten.

–«Artis clitoris!». Latina zen. –Ulertuko ahal du behar denak «clitoris» horrek «giltza» esan nahi duela!

–Ez latinik, ez errusiarrik! Hemen hizkuntza bakarra dago, eurok ondo dakitenez.

Korridore berez ilun eta zoru malkarrekoan ez zegoen erraz pausoak kateatzen, batez ere, agenteak aurretik zirela, kanpoate irekitik iristen zitzaizkigun argi-tarteen itsumenez. Gogo-

indar guztiak pilatzen ari nintzen lagunari mezua helarazteko ezen giltza galdu behar zuela, edo irekieran okertu, edo infartu bat jasan, edo zernahi, maletegia irekitzea izan ezik. Bi numeroak autoaren albo banatan kokatu ziren, matrikula osatuz bezala, eta bazirudien Kersenek atzeman zituela nire mezu mentalak, kapota irekitzen hasi baitzen.

–Hortik zer erakutsi behar digu berorrek? –galdetu zuen agente batek.

–Irekitzeko ez al duzue agindu? –Kersenek halaber.

–Ireki zer baina? Itxi hori eta ireki maletegia! –haserre tonuan.

Kersen hasi zen maletegia irekitzen, eta ezin zuen giltza biratu. Horrek urduriago jarri ninduen, argiago ikusten ari bainintzen, hainbat traste eta paperen artean, poltsatxo zorionekoa, zaldiaren gorotz bat denda-leiho erdian bezala. Kersen giltzarekin eta giltza ezinarekin teman ari ziren, agente batek esan arte:

–Ez al du ireki gura?

–Giltza edo sarraila, hemen beti da zerbait zaila –dio Kersenek.

–Utzi biezat neuri –agente nagusiak–. Hara! Erraz-erraz baitzegoen!

–Eskerrik asko! –Kersenek–. Ofizioa beti da ofizio.

Ene ama! Zer ikusi behar ote dugu oraintxe? Maletegiaren estalkia bazetorren gorantz, kontuz-kontuz, hipopotamo erdi-loaren goi masaila bezala. Estalkia iritsi zen goraino, autoa zaldi-ostikada baten forman gelditu zen, agentea hasi zen trepetxuei eragiten, eta ez nuen inon ikusten ikusi nahi ez nuena. Etenda gelditu zitzaidan arnasaren bila, burua jaso nuen hasgorapen eutsian, plaza txikian lagun solte batzuk

hauteman nituen, denak geuri begira, tabernako atea zabalik zegoela konturatu nintzen, eta aibadios! Hara non erreparatzen diodan zorioneko poltsatxoari, tabernaren hurrengo portalean, horma kontrara bermaturik, «hemen naiz!» intzirika lez.

–Kersen! Zer gertatu duk hemen? –oihu dagit neurekiko.

–Itxi dezake berorrek –agintzen du agente gidariak.

–Irekitzea baino errazago izango ahal da! –Kersenek.

Krank! Ondo itxi zela zirudien. Zer besterik itxaron nezakeen hoberik?

–Jarrai dezakete eurok.

–Taberna hori itxita al dago beti? –galdetu zuen Kersenek.

–Zabalik dago, ordea! –erantzun agenteak tonu lehorrean.

–A! O! Lehen itxita baitzegoen.

–Zuen altoagatik izan ez balitz –erantsi nuen–, kafe bana hortxe hartzekotan ginen.

–Ba, ikusten dute hartu ahal dutela. Tabernara badoaz, aparkalekua aldatu behar dute. Kuartel aurrean ezin da autorik utzi.

–Eskerrik asko! Kale-zulo horretan aurkituko dugu tarteren bat.

Kersen autoan eta ni atzetik oinez, kalea ez zen asko luzatu, erreka kontran gora. Kersenek autoa ez zuen berehala utzi, baina bazetorren bueltan, bera ere oinez. Adi-adi ni beraganantz, bera ere berdin niganantz, irribarre artikoz. Elkartzera iritsi ginenean, oraindik neure belaun-dardaran, ahapeka galdetu nion, hegats guztiak belarri iruditurik:

–Kersen! Zer gertatu duk?

–«Santa Poltsaren miraria». Pare bat kandelak aldamentzea bakarrik falta!

–Txantxarik ez, mesedez! Esadak garbi, libreki lasaitu nadin.

–Dokumentuen bila bidali nautenean, plazan inor ez, eta dida! Andretxo batek erreparatu dit leihotik, baina ez dut uste jaisteko gai denik. Bizkor ibili behar dugu, txakur batek pasaeran usain egin baitio. Poltsari usain eta autoari txiza. Orain esaidazu zer dagoen poltsan.

–Kopia ilegal batzuk.

–Bakarrik?

–Bakarrik? –haserretu nintzen—. Ez zeudek gutxi luzerako preso, orri soil bat aurkitu zietelako.

–Orduan hasi zelan jaso pentsatzen. Geuk ezin dugu, kuartelaren begiak gainean dauzkagu eta.

Tabernara sartu ginen, poltsari begiratu gabe. Barran emakume bat agertu zen, eta hots egin nion:

–Egun on, etxekoandre! Kafesne bana, mesedez?

–Atoan! Hara! Berori ez al da Gizaburuagako abadea?

–Eta Amorotokoa. Eta lagun hau, Mendexakoa.

–Jesus! Induljentzia batzuk baditugu orduan gaur ere.

–Semea ez al dago etxean?

–Zein seme, bost baitira? –hots egin zuen, kafe-makinari zartakoak emanez, seme bakoitzeko bat.

–Tabernan egoten dena. Lotxo ez al du izena?

–Ezizena. Izena, Takio.

–Ez dakit berori ez den egokiago ezizentzat –erantsi nuen.

–Hemen ez zaio begiratzten egokiari, aldrebesari baizik. Izatez, Eustakio, baina denentzat Takio. Edo Lotxo. Hau ez dakit zertatik.

–Etxean al dago bera?

–Portura joan da arrainetan. Ezin du askorik tardatu, ze nik laster autobusa hartu behar dut Gernikarako. Tori kafesneak.

Mahaian eseri ginenean, presarik ezaren itxura agertzeak ez ninduen kezkatzen, hori apaizengan irudi normala baitzen, baina ez nengoen lasai. Kersen ere ez zela egongo suposatzen nuen, ondo disimulatzen zuen arren, kikara ertzera binaka zetozen euliei begira. Lotxo ez zen ageri. Poltsa alua! «Titanic-aren salbamena balitz ere!». «Jainkoak zertarako egon behar du toki guztietan, toki gehienetan inor ez badago?». Han zetorren noizbait Lotxo, amaren autobusa pasatua zela.

–Hauekin!! –haserretzen da etxekoandrea—. Orain, hurrengo autobusa nork ekarri behar zidak?

–Ezin izan naiz lehenago etorri, ama! –dio Lotxok.

–Bidean zenbat taberna topatu dituk zabalik?

–Ama! Zuk egin beharrekoa berdin egingo duzu arratsaldean joanda ere.

–Bai, ba! Amen egin beharrekoa edonoiz izaten duk egingarri.

–Eroango zaitugu, nahi baduzu, geu ere Gernikara goaz eta –eskaini nion.

Etxekoandreak borondatea estimatu zuen, esanez ezen, behin hartara ezkerro, biharamunean joanda ere berdin ziola. Etxekoandrea ezkutatu zen eta Lotxo mahaian eseri zitzaigun, bezero bati «oraintxe» esanez.

–Gure ama! –Lotxok—. Arratsaldean berandu zena bihar ondo datorkio. Zuek zelan hemendik?

–Kafe bat derrigor hementxe hartu behar genuela otu zaio honi –erantzun Kersenek.

–Entzun, Lotxo! –hasi nintzen ahopean–. Gauza bitxi bat gertatu zaiguk plaza horretan, eta heure laguntza behar diagu.

Guardia zibilak tabernara noiznahi zetozenez, haiek baino hobeto zekizkien Lotxok kuarteleko xehetasunak eta ohitura txikiak. Nire kontaketa bizkorra eta urduria entzun zuenean, ez zitzaion marmartzea baizik otu:

–Poltsa ziztrin bat al da kezkabide guztia?

–Kuartelaren pare-pareko atean zegok! –nik.

–Hori geure portalea da –Lotxok–. Nora ekartzea nahi duzue?

–Ekarri ez, koño! Erre edo jaurti leku segurura! –nik.

–Egin bedi zure nahia –Lotxok ironia liturgikoz.

–Metodo batzuk aldatu beharrean gaudek –hasperentzen naiz, buruari belarri bietatik helduta–. Amaitu zuan apaizak garelako «puede usted seguir» entzutea.

Lotxo laster itzuli zen berea eginda, irribarrean adieraziz: «Hau al zen guztia?».

Tabernatik irteeran, Eako plaza nerabeen bi solairuko autobus gorri batekin topo egin genuen, eguzkiari jarkitzez distiratsu bera, eta ia plaza guztia okupatzen. Tabernako etxekoandreak ezuste pozgarri bat iragartzeko bihozkadak jo ninduen, baina lotsaritik salbatu nintzen konturatzean autobusa ez zihoala Gernikarantz, Lekeitiorantz baizik. Bidaia gehienak emakumeak ziren, jaitsiak baino gehiago aurrera zihoazenak, leihoak behera eta buruak kanpoan, non zer ikusiko, eskursionistak lez. Uste dut batzuek airera egiten zutela agur, nonahi ezagunak edukitzeko kategoria luzitu nahian. Edo ezaguna izan zitekeen norbait agurtu gabe uzteko

beldurrez. Guk ere denak agurtu genituen badaezpada, inoiz ez baita jakiten konfesioko sareta forratuaren beste aldean nor belaunikatu izan zaizun.

Plazatik kale-zulorantz astiro-astiro, poltsa arraioa uranio-hondakin bat bezala egona zen portalera begiratu nuen. Luzaz behatu nuen atea, orain zeruko berbera zirudiena. Ez zegoen, ba, poltsarik, eta zerua bere irudi arrunt eta errealerantz itzuli zen. Kale-zuloan autorantz ezkutatu ginenean, «amaitu duk!» diotsot Kersen, zeinak indar-husturik bezalako ahultasunez erantzun baitzuen:

–Ez guztiz. Autoak plaza beretik irten behar du.

–Eta bertan kuartela, izorrai, mertxikan hezurra lez!

–Edo hezurra gorgoilean lez.

–Orain maletegia garbi zihoak.

–Egia izango ahal da! –hots egin zuen Kersenek, niganako mesfidantza iruditu zitzaidan tonuan.

Isilik gindoazen, autoaren tarrantada ez-uniformea entzunez. Natxitua gainetik Ibarrangelurantzko jaitsiera suabea, zain nengoen lagunak «txiza egin behar dugu» esan zezan, baina ez zioen, eta aurrera. Elantxoberako bidegurutzea oharkabea pasatu ondoren, Ibarrangelu barreneko bidegurutzean esan nuen:

–Hoa kostatik.

–Lehen ere badakizu zer zorte izan dugun... behetik.

–Hoa orduan erditik!

Berak «behetik» baino txakurkiago jaulki nuen nik «erditik», eta balio izan zuen, isiltasunak jarrai zezan. Lagatik Laidara iristear, Izaro irlaren begirada granitikoa. Laidan geraldari bat, itsasoa lehen aldiz ikusi bagenu lez. Kanala, Arteaga eta Kortezubin zehar, Gernikara iritsi ginenean, txakolin bana joz,

mahai bat eskatu genuen Boliña Zaharrear. Bazkariaren kontua eskatu genuenean, eguneko bigarren sustoa: bazkaria ordainduta zegoela. Nork ordainduta? Ez zuela identitaterik eman nahi izan.

¬ ¬ ¬—Oskua! —hots egin nion lagunari—. Gaur ez diagu, ba, ezeren ordainik merezi.

—Zuk ez, baina nik bai! —lagunak.

Lotsaz isildu nintzen, baina lotsa dohatsua izan zen.

DON KASIANO ERE

Gernikan bazkaldu ondoren, goizean Eako kuarteletik irteeran baino gorputzaldi hobez eta argitasun lasaiagoz abiatu ginen pentsatu ibilbidea osatzera, alderantzizko norabidean. Azkarrago eta magistralago, orrien falta diskurtsoz hornitu beharko baitzen. Ekimena onartzeko edo, gutxienez, entzuteko prest zeudenak bakarrik jorik ere, azkartasuna ez zen errazena, zeren, gezurra bazirudien ere, hain ondo bizi ei ziren apaiz askoren arerio nagusia asperdura baitzen. Aldarte horretan dagoenak hizketa luzeak nahi ditu. Don Kasiano izeneko apaiz baten etxean, jada heldu samarra bera, eragozpen bitxia aurkitu genuen, berak begi on eta beroz ikusten zuen ekintzarako.

–Barruak ez zidak ematen horrelako ekintza batean agertzea... sotana eta guzti!

–Ez zara bakarra izango. Begira geu ere! Oraindik asko gara jantzi-aldatze hori erabaki ez dugunak.

–Bakoitzak berearen barruan joan behar dik.

–Hobe baino ez, deigarriago izateko. Denok prakadun joanda, kapaz lirateke epaitegiko langileak garela pentsatzeko.

–Sentitzen diat, baina oraingoan paso. Balitekek superstizio bat izatea, baina neure irudi pertsonifikatua den prenda hau ezin diat eroan berarekin inoiz ibili ez naizen arlo batera.

Alferrik ekin genion. Zein zen ekintzaren motiboa, Eako kuarteleko orriek informatu nahi zutena? Abade baten motorraren enkantea Durangoko epaitegian. Sermoi bat zela bide, haren motorraren enbargoa agindu zuen gobernadore zibilak. Abadeak zeukan ondasun fisiko bakarra.

Ostegun goiza behelainoz argitu zuen, hots, argitzea kostatu zen. Hamaikak eta erdietan, kontsigna zen moduan, Durangoko Andra Mariko elizpean, eguzki-izpiak, hezetasunez distiratsuago, hasiak ziren, nondik ikusten ez zela, kale-zuloak asaltatzen, operazio xeheki koordinatuan. Lainoak, goratu ahala, atzean freskura suspergarria uzten zuen. Bizkai guztiko eta batzuk urrunagoko ehun bat apaiz, gehienak oraindik sotanadun, kale ezberdinetatik, minutu baten barruan elkartu ginen, beste minutu baten buruan epaitegirantz abiatzeko. Erraztasunik ez zitzaien eman behar, nahiz eta, aurreikusia bazuten, irispidea mozten ez zuketena zail. Hala izatera, elizpe inguruan denak kontzentratzea garantizatu nahi zen, epaitegian ezin bazen, hiriaren erdigunea okupatzeko.

Apaizek nagi fama zutela, baina goiz hartan majo bizkortu ginen, ordu eta toki doian egoteko. Masa beltza kale luze eta estuan zehar gindoazela, oinezko ugariak apartatzea gutxi kostatzen zen, eurak baztertzen baitziren, Orgaz Kondearen hileta bailetorren. Zenbaiten begi txundituetan edo espresiorik aurkitu ezinekoetan, sinpatia ezkutu bat nabari genuen. Jarrera etsaikoek ez zuten inolako erreparorik euren begirada errabiatua nabarmentzeko, oihu madarikatzaileak barne.

—Abade txerriok! Pikotx eta palarik ez al zen zuentzat?

–Baziren, baina ehorzleei utzi genizkien –darantzu gutar batek ahapeka.

–Utziek bakean! –agiraka egiten diogu ingurukoek.

Gure kontsigna zen bizkor aurreratzea, inori ezer erantzun gabe, ez aldeko, ez kontrako, epaitegian sartzea lortu arte. Harakin bat irribarretsu agertu zen bere dendaren atean, bere matrail gorriak, mantal zuri gorrixkatua eta eskuan aihotz odoldua erakutsiz. Hain prozesio ezohikoaren zergatia jakitean, ez zuen izan hots egiteko beldurrik: «Eman denari su, koño, zuek infernua zer den badakizue eta!». Mozketarik ez zegoen aurreikusita, antza, eta gure marmario trinkoa, grabea, soinu-iturri bakar bat zela pentsatzeko bezain enpastatua, bazihoan kale estuan aurrerantz, lantzean oihu baten gainean eta balkoietako buru ugalkorren azpian. Hartan, sorbaldako bat eman zidaten atzetik.

–Don Kasiano! –hots egin nion–. Zu ere hemen azkenean?

Isiltzeko keinua egin zidan, banku bat atrakatzera bailetarren. Jarraian, beste keinu batekin, sotana seinalatu zuen.

–Azkenean, berarekin etortzea erabaki duzu!

Berriz ere isiltzeko keinua, ezkutupe osoan pasatu nahi bailuen. Ikuspen bitxia zen hura, trantsizio baten irudi drastikotzat jo zitekeena, historiaren aldakuntza sakonak oso inprobableak ez balira. Oraindik klero sekular gehiena (komentuetan zer esanik ere ez), konbikzioz, lotsaz edo beldurrez, sotanaz zebilen aro lokatuan, ugalduz zihoazen erantzeko baimena baliatzen zutenak. Suposatzen da halako kontestazio-ekintza bateko partaideek itxuran ere aurreratuenak izan behar zutela, baina oraindik euron artean ere proportzioa ez zen nagusitu janzkera laikorantz. Erdiak

sotanadun izanik, bilerak oso bitasun arraroa ageri zuen. Kanpotik ikusten zuenak ez zekikeen aurrerako ala atzerako inflexioa ginen.

Don Kasiano burua albo-makur zuela bildu zen nire ondora, bere presentzia ezkutatzeko abaro bila bezala. Badirudi itxura mundutarreko norbaitengan bermatu behar zuela, ekintza mundutar batean seguru aurkitzeko. Ni, berriz, sotana egun haietantxe utzia, Don Kasianoren sotanara arrimatu nintzen, neuk utzi berri nuenaren faltak sentiarazi zidan indefentsioa neutralizatu guran. Bikote biologiko bitxia osatzen genuen, non biok elkarren parasito genirudien, nor norengan zebilen duda handiekin.

Kontzentrazioan zetozen guztiak, proportzio berdintsuan banatuak, antzeko sentieran aurkitzen zirela suposatu behar zenez gero, ezin genuen sentsazioa ekidin ezen espezierik insolitoena osatzen genuela. Espezie bizidun orok, organismorik pentsagaitzenez harritzen gaituztenek barne, aldakuntzak gauzatzeko denbora kasik infinituak behar dituzte. Gure bitasun hura, oster, gure arteko itxuren diferentzia nabarmen hura, oso aro igarokor eta laburra izango zen. Urtebete ez zen mendeetako sotanak jausten hasi zirena, eta beste bat nahikoa izango zen sotanosauroak iraungitzeko, denean izaten diren nostalgikoak salbu.

Pentsakizun esentzialok egunaren urduritasun kateatuetatik bereizi ezinik ari ginela, zangoak bizkortasun independentean aitzinatzen ziren, harik eta, epaitegiaren atarian, sarrera mozturik aurkitu genuen arte, segurantza-indarren aldetik. «Txapelokerrak» ez baziren, «grisak» izan behar zuten.

–Zuek ezin zarete sartu!

Harmailadian pilatu ginen, hiru txerritxoei bisita moztu baliete bezalako tentel aurpegiz, beste atea nondik zen galdez.

–Ez dago beste aterik!

Ilargi laurdenean inguratu ginen eta patruila-buruak:

–Esan dut ezin zaretela sartu!

–Zergatik?

–Agindua da.

–Aginduaren arrazoirik ez al zaizue eman?

–Ez da behar.

–Hau enkante bat da. Audientzia publiko bat.

–Hau aginduak dioena da.

–Orduan, nola egin behar dugu eskaintza?

–Bistatik alde eginda.

–Prezio ona eskaintzeko asmoa genuen, ba!

–Eskaintza kolektiboak ez dira zilegi.

–Gauza bat da eskaintza eta beste bat ordaina, denon artean egiterik debekatu ezin zaiguna.

–Barreia zaitezte berehala!

–Epaitegiko presidentearekin hitz egin nahi dugu.

–Epaitegiko presidenteak ez du zuekin hitzik nahi.

–Ez dakusagu zergatik.

–Lau minutu dituzue barreiatzeko edo ondorioei aurre egiteko.

–Ordezkaritza bat ezin al dugu epai-gelara bidali?

–Ez!

–Zigortuari itxaroterik ez al dago, hemen gaudela adierazteko?

–Hiru minutu!

–Emango al diguzu zeure identitatea, mesedez, presidenteagana heltzea nork moztu zigun jakin dadin?

–Bi minutu!

–Ahaztu al zaizue erregimen katoliko eta konfesional baten zerbitzari zaretela?

–Minutu bat!

Atariko agente-multzoa harmailak jaisten hasiz batera, epaitegiaren alboko eta atzeko arkupeetatik hogeita hamar bat aleko pelotoia agertu zen. Alde bateko kulatak bultzaka hasi ziren, eta beste aldeko sotanak aurrean lerrotu ziren. Borrak ez ziren jotzen hastera ausartzen, ohitu gabe, seguruenik, halako espezie bati erasotzen. Inork ez zuen aurrera egiten, inork ez zuen nahi atzera.

–Ez ezazue lelokeriarik egin! Ez gaitzazue behartu! –mehatxatzen zuten.

Bultzadak eta euspenak trinkotuz zihoazen, lehertzea imminentea zen, eta oihu egin genuen:

–Erretiratuko gara, baiki zuen beldurrez, areago geure borondatez.

Borondatea halaxe erabakia baitzen aurretiaz. Ez zen tentazio insolidarioen unea, konbentziturik ezen, kinka larrietan edozein erreakzio ulergarri delako ustearen aurka, orduantxe dela jokaera batua haustea gutxien justifikatzen dena. Erretira beste kale batetik izan zen, halako eran non zaila baitzen manifestazio bat ez zela pentsaraztea. Gobernadore zibilak aurreko manifestazio batean definitu zuen «plan prozesionala» ere nekez zetorren bat martxa pausatu eta marmartsu harekin. Ibilaldia Andra Mariko elizpera iritsi zenerako, jende mordoa zen bertan pilatua, batzuk aldeko, asko nonzeberri, eta ez gutxi arerio porrokatu edo

maiseatzaile ahobero. Eako kuarteleko beldurra poz bihurtu zen Durangotik Gernikarantz, nahiz eta ez, seguruenik, intentsitate berdinez. Gure adimenak eroriago dirudi beldurrerantz pozerantz baino.

KUARTELEAN I

Astrapalan sartu dira eta arrastan naramate, ez beltzek edo zuriek, bitartekoek baizik, grisek, berdeek, marroiek, moreek... ia kartarako koloreek. Nik zer egin dut, ba? Kuarteleko ziega tutu batera jaurti naute (komun anulatu bat dirudi), eta ateaz kanpotik, krink-krank, entzuten dut: «Eduki apur batean, eta hasi gero masajeak ematen, memoria argitzeko». Ezer ez dakidala eta nahita ere ezin dudala ezer esan jakiteak, lasaitu beharrean, izutu egin nau, nahi dutena esan arte hartzen jarraitu beharko dudala pentsatuz. Paisano jantzitako bat sartzen zait eta lasaitzen nau, kolega eran: «Goazen gela txukunagora. Hau ez duk hik merezi duana». Bagoaz pasilloan zehar, pasatzen gara «masajisten» aurretik (horrela ikusita, humanoak dirudite), eta Iberduerokoa edo Gotzaindegikoa izan litekeen bulego batera sarturik (eseri, eseri, lasai!), haritz zaharra imitatzen duen mahaiaren beste aldetik diost:

–Neu arduratuko nauk inork ukitu ez hazan, baina hik bandera-erretzailea nor izan zen esan behar didak.

–Zelan esango dizut, aurpegia estalita bazeukan?

–Baina hi hur-hur hengoen.

–Ni ez nengoen ez hur, ez urrun. Ni bakez-bakez nengoen eta bera etorri da, gero zeuek etorri zareten moduan.

–Nor izan duk?

–Neuk beste ikusi duzue! Zeuen profesionaltasun guztiaz ikusi ezin izan duzuen nik zelan ikustea gura duzue?

–Baina hik badakik nor zen.

–Ez dakit! Badakit hemen ez jakiteak ez duela balio, baina ez dakit.

–Zigarrotxo bat?

–Ez dut erretzen.

–Ni baino balienteago haiz.

–Erretzen dut, baina orain ez daukat gogorik.

–Horrelaxe komeni duk hemen egia esatea. Nor izan duk?

–Jo nazazue, gura baduzue, baina nik ezin dut...

–Et, et, et! Jo konturik inork ez dik aipatu hemen. Hik esan izen bat.

–Izan ez dena?

–Izan zitekeena.

–Edonor?

–Ulertzen duk.

–Ba, neu orduan.

–Hirea bazekiagu. Beste bat.

–Ene ama! «Kantatzeaz» gainera, desafinatu egin behar al da?

–Goazen lehengo gelara.

«Goazen gerrara» entzutea gurago izango nuen, baina hasierako gela tutuan nago, komunera ere iristen ez dena bera, daukadan txizalarria inori ezer eskatu gabe bideratzeko. Pentsatzen dut: «Larri nagoela igartzen badidate, garagardoa sartuko zidatek». Hormak berak daukan irtenunean eser arazi nau. «Masajisten» agerpenaren zain nagoela, solasak jarraitzen

du, bera tente eta kolega airean, apur bat tonu zirkunstantzialagoan.

–Espainiako bandera zertarako erre gura izan daitekeela uste duk?

–Ez dakit. (Jeneral bat erretzea gurago al zenukete?). Ni ez naiz horretan ibiltzen.

–Baina heuk ere gorroto duk «piperpotoa» esaten duzuen.

–Nik ez dut gorrotoan sinesten.

–Maite duala ulertu behar al diat?

–Maitasun derrigortuan ere ez dut sinesten.

–Orduan, hiretzat zer duk Espainia? Indiferentziarako motibo bat?

–Ez hainbesterik, bere himnoa ere euskaldun batek konposatu baitzuen. (Heuri esango diat Espainia zer den niretzat!).

–Bai, ba! Euskaldunak izan dituk betidanik Espainiari gehien eman diotenak.

–Baskoak, areago. Euskaldunak, ez hainbeste.

–Diogun bietarik.

–Ba, bai. (Put! Orain kakalarria ere bai).

–Franco hil zenean, xanpaina edango huen.

–Apur bat, ez desentonatzearren. (Esaiok honi xanpainak Carrerorekin amaitu zirela!).

–Eta orain zer motibo daukazue bandera espainolak erretzen ibiltzeko?

–Esan dizut ni ez naizela horretan ibiltzen.

–Baina badakik nortzuk ibil litezkeen. Pentsatzeko astia emango diat. Bueltan natorrenerako, gogoratuko haizela itxaroten diat.

Aingeru konstituzionalak atea kanpotik itxi duenean, gorputzaren premia larriak ahaztu egin zaizkit. Hain lazgarria da unea non nahiago baitut etor daitezen, ez bainaiz gai sentitzen neure izuari bakarrean eusteko. Zorionez, ez dute askorik tardatu. Atea ireki dutenean, nire gorputza jauzian zutitu da. Eta nire gogoa josita gelditu.

Hortik aurrerakoa nahiago dut inork ez entzutea. Behin egokitu zitzaidan entzun beharra ziega batzuk haragotik zetozen garrasiak, eta ez dut nahi errepika dadin, kasua neurea izanik ere.

KUARTELEAN II

Oraingoa fortunatsuago izan zen aurreko zenbait baino. Aldean ezeren kargarik ez eroatearen segurantzak ia bazilatzeko ere ausardia ematen zuen. Motibo erritualak edo zaintzakoak bide, elizak eta kuartelak elkarren ezagutza hurbilean, hurbilegian bizi ziren. Kaboak «itxaron hemen!» agindu zidan. Sarjentua pasilloan honantz zetorren, zapaten eta oholaren batura nabaria zen oin hotsekin. Eta entzun nion:

–Utzi neuri abadetxo errebelde hori! Motorra ondo arakatu al diozue? –itaundu zien gero neure bistan kabo laguntzaileei.

–Bai, jauna! Ez dugu ezer ilegalik aurkitu.

–Ez gero? Egunen batean aurkituko diagu, ba.

–Bila eta aurkituko duzue –gaineratu nuen.

–Berori isilik, neuk galdetu arte! –sarjentuak, garratz.

–Hemen ezin al da ebanjeliorik aipatu?

–Hau ez da Gizaburuaga edo Amorotoko pulpitua... aita!

Azken hitz horri eman zion tonuak, hartarako ezgai banintz bezala, mindu ninduen, baina pentsatu nuen: «Beto zartada psikologikoak, besteak saihesteko diren bitartean».

–Zuei ere nire sermoiak interesatzen zaizkizuela sumatu izan dut.

–Interesatu? Sotana kondenatu hori daroalako, niri ez dit abadetxo batek barrabilik igurtziko gero!

–Badaukazunik ere ez dizut galdetu.

–Uste dut auzia alderantziz ulertu duela berorrek. Gainean da eguna, sotana horren azpian zer dabilen xheki konprobatuko duguna –sarjentuak.

–Oraintxe altxatzeko ere ez daukat eragozpenik.

–Niri, maitale pulkroari bezala, lagunaren prendak neuk erantztea gustatzen zait.

–Nik ez nuke espektazio handiegirik jarriko. Beletik muskerrera aldea salbu, nire eta zure uniforme azpian, txakiltasun berdintsua agertuko da.

–Hori ikusiko dugu. Itzul dokumentuak eta doala! –agindu zien menpeko numeroei. Kuarteleko atalburutik kalea zapaltzera nindoala, atzean entzun nuen:

–Badaezpada, hurrengoan larrua ondo zailduta ekarri!

EZABAPEN OROKORRA

Orria esku etsaietara iristea ez zen zaila izan, taldean beti izaten den balienteago batek guardia zibilaren kuartel aurrean jaurti baitzituen kopia batzuk. Mezua herrian eta inguruetan zabaldu zenean, gazte batzuk berehala pasarazi zituzten kuarteletik. Gernikako kuartel zentraletik bereziki etorritako Hidalgo kapitain beldurgarriro entzutetsuak egoera esploratu zuen, era probisionalki zibikoan.

–Hik idatzi al duk panfleto hau?

–Ez, jauna.

–Ezagutu ere ez?

–Nik ez dut horrelako zerrikeriarik irakurtzen.

–Zerri artean dabilena zer duk? Untxia?

–Lekeition bada familia bat, «Untxianekuak».

–Gure familia zer duk Lekeition?

–Nik beti «kuartela» entzun dut, jauna.

–«Txakur» konturik ez al duk entzun?

–Hori ez entzuteko, gorra izan behar da.

–Oraindik ez didak argitu gure familiarena nola litzatekeen.

–Ba... uste dut...

–Esak beldur gabe!

–Inoiz entzun izan dut... «Txakurranekuak».

–Heuk ez al duk sekula esan?

–Oraintxe, lehenengoz.

–Iritsiko zaizkiala uste diat maizago esateko motiboak. Oraingoz, irakur ezak orria arretaz, eta idatz itzulpena atzeko aldean. Itzulpen zehatza gero! Bakarra ere ez haiz izango eta. Hire eta pasatuko diren guztien artean, kontraesanik aurki baneza, denak batera pasaraziko zaituztet mahaitik, era... txakurrangoan!

–Nik erdaraz gutxi dakit, jauna, eta besteek ere askorik ez.

–Dakizuen idazteko ez duk behar jakintzarik.

–Bai erdara diferenteak egingo ez bagenitu.

–Alua! Hori ere bai? Gerra bat irabaztea hainbeste kostatu zitzaigularik, orain hizkuntza nazionala ere puskatu behar al diguzue?

–Euskaraz horrelaxe ohituta gaude, jauna.

–Euskara eta kaka zaharra, gure instituzio garbi hau aparte! Gaztelania bat eta bakarrean idatziko didazue, aitzakiak uzkitik sartuta. Entzun? Hasi!

Adi, Lekeitio!

Atención, Lequitto! (Kaka zaharra! Hau zelan idazten da? Lek... Leq... Lequeitio... Leputio!) *Atención, Lequeitio!* (Orain zelan ezabatu behar dut lehenen idatzi dudana? Lequicho... Lichoque!).

Erregimenak eta bere laguntzaileek egun apalgarri eta txakurgarri batera deitzen digute...

El régimen y sus colaboradores nos convocan a un día humillante y... (dios! hau horrela ipintzeko...).

– Itzulpen literala esan diat gero! (bai, ene kapitain! Literal como un entierro) ... humillante y... perrífico (hor konpon!)... «Bienvenidos a ...».

–Barka, jauna, baina utzi biezat, lehenik, orria astiz irakurtzen, gauza batzuk ezin dituk ulertu eta.

–Bi minutu dauzkat irakurtzeko, eta bat, ulertzeko. Ez nauk Bermeotik etorri, zomorro inkompetentekin denbora galtzeko.

–Gernikako kapitaina ez al da berori?

–Ni kapitaina nauk... potroak zabaltzen zaizkidan edonongoa, entzun?

– (Eskerrak horixe itzuli beharrik ez daukadan!).

–Hamar minutu barru natorrenean, dena ondo ulertua eta hobeto itzulia ez badaukak, metodo ortodoxora pasatuko gaituk.

–(Kasik hobe bera, gero berdin izatekotan!)

–Zer izan duk ezpainketa sibilino hori?

–Mater amabilis, ora pro nobis, jauna.

–Ekin orduan, orria uzkitik nahi ez baduk!

Adi, Lekeitio!

Erregimenak eta bere laguntzaileek egun apalgarri eta txakurgarri batera deitu digute, «Bienvenidos a Lekeitio» aldarri lebantinoaren azpian. Lekeitiarrok ez daukagu gure itsasoa gozatzerazatoztenak eskertu beharra besterik, herri honekiko errespetuz zatozteino. Lekeitio kosta-herri euskaldun bat da, bere izatea berreskuratu eta baliarazi nahian

dabilena, Euskal Herri osoa bezala. Zuek eta gu, elkarrekin askatzen saia gaitezen nahi dugu, etorkizun burujaberantz.

Badakigu udal agintariak eta beste erakunde eta elkarte batzuetako ordezkariak (batzuek gogoz, ez gutxik derrigorrez), eta aktuatzaileak (musika-banda, dantzari eta abar) zail duzuela asistentziatik libratzen. Izazue, gutxienez, parte-hartze lotsatuaren duintasuna.

Badakigu eliz agintariak ere zail duzuela eskatu zaizuen meza nagusi solemnari uko egiten. Zer zentzu luke, ordea, zuen presentziak plazako ekitaldi viva-españarrean eta gainerako jai osagarrietan, bazkaria barne, baldin Elizaren mentasun indignoa eta antikristaua errepikatzeko ez bada?

Eta zuek, herritarrok, berdin lekeitiar zein aisian etorriok! Ez dago esan beharrik menpeko dohakabeon beldurra, baita izua ere, ez dela arbitrarioa, oso motibo lazgarrietan oinarritua baizik. Ez dugu konpromiso heroikorik eskatzen. Bakar-bakarrik, ez parte hartze kolektibo bat. Inasistentzia soil bat. Inor ezin dute jazarri, ikusle agertu ez delako. Egizue lo, gaixotu zaitezte, zoazte edonora, desager mapatik, baina ez ezazue zeuen presentziarekin duindu diktaduraren zutoinek eta herriko kolaboratzaile altiboek irentsarazi nahi diguten infamia. Gera bitez eurak bakarrik, euren prepotentzia kirten eta kabernarioan. Hauxe da herritarren eginkizun erraza:

Santiago eguneko ospakizunetan, DENOK ABSENTE!

Orria zabaldu zenean, kuarteletik eragin zuten lehen «iragaitea» pultsu-hartze prebentibo bat, kasik madrildar sainete bat izan zen, ospakizunen porrotik otu ere ez zitzaielako edo. Bigarren sarealdia erregimenaren esentziarik

berezkoenekin iritsiko zen, ikusi zutenean, egiazko egunean, nolako ridikulua irentsi behar izan zuen euren erakustaldi inperialak. Lekeition ez zebilen arimarik, erregimenekoez besterik. Biharamun goizaldean, dozena erdi gazte atxilotu zituzten, dozena baten bila joanik, erdiek zortea izan baitzuten garaiz ezabatzeko. Beldurrak euren burua atxilogai ikusarazi zien beste batzuk ere desagertuz joan ziren. Zaila zen neurtzea zer zen handiagoa, operazioak herrian zabaldu zuen izua ala pilatu zen amorrua.

–Nora goaz?

–Ez kutatzeko ez al duzue eskatu?

–Eskatu bai, baina...

–Orduan ez galde nora, ez zelan! Uzten zaituzteten tokian, egon hantxe geldi eta isil, maleta galduak lez.

–Eta kakalarria baletor?

–Eutsiezina bada, egin ahalik isilen, eta itxi maleta.

–Usainetik aurkitu gaitzaten?

–Arrisku bat duk «txakurrekin»

–Ederra animoa!

–Zaudete trankil, oilook, behar denik ez zaizue faltako eta!

Egun batzuen buruan, atxilotu batzuk kartzelatuak izan ziren, beste batzuk askatuak. Denak ere ondo apurtuak, miragarriro, «existitzen ez ziren» torturen bidez. Barruratuak izan zirenak ere, batzuk denbora batera askatu zituzten, bistara agertzeko moduan zeudela iruditu zitzaientean. Beste batzuek denbora luzea pairatu behar izan zuten. Izugarrikeriok gertatzetik berehala, berriz ere deialdi bat zabaldu zen abuztuaren lehen iganderako, herrian banatu ziren honako orrien bitartez:

Adi eta sendo berriro, Lekeitio!

Lekeitioko bizilagun guztiok! Berdin herri hau zeuen atsegin-leku hautatua duzuen erbestetar guztiok!

Lehenik eta behin, zorionik kolektiboenak, Santiago eguneko erakustaldi inperialari merezi bezalako absentziarekin erantzun zeniotelako. Irentsi behar izan zuten hutsune gloriosoaren ordainez, dakiten eta daukaten ordain bakarra eman dute: errepresio gordina eta itsua.

Herritar askok ezkutatu behar izan du guardia zibilaren jazarpenetik. Euren eskuetan jausteko patua izan dutenak basaki torturatuak izan dira. Batzuek oraindik euren atzaparretan darraite, herritar guztiok ondo eta saminez dakizuen moduan.

Armen basakeriari eta erregimen diktatorial honi jarki diezaiozun, berriz ere, herri baten duintasuna, izuaren aurrean ez makurtzea, eta geure giza eskubideei eta politikoei aurrerabide bat irekitzeko erabakia.

Datorren igande eguerdian, abuztuaren 4an, hamabietatik hiruretara, kaleak hutsik, hondartzak hutsik, elizak hutsik, herri osoa hutsik.

Ezabapen orokorra

OHAR GARRANTZITSUA: Ez zaizue eskatzen dendak, tabernak, establezimendu guztiak, elizak barne, ixteko konpromiso larririk. Ez dago zertan agerian arriskatu eurak hainitsuak diren errepresalia jakinetara. Horrela, herritarren ezabatze boluntarioa nabariago eta mingarriago geldituko zaie.

Eta erregimenaren leial agertu nahi dutenak argiago ezagutu eta kontatuko ditugu.

Jarki duintasuna errepresioari!
Jarki herri baten kontzientzia diktadurari!

Ekintza edo «desekintza» hasi zenetik ordu eta erdira, guardia zibilaren jeep berde batzuk, garbitu berritan ere zikin ematetik libratu ezin zirenak, gudu-zelaia zeharkatzera atera ziren. Herriaren erdigunean errusiarrak zapal berri zuten ilargiko mortuan bezain mamu ingrabidoen antzera zoruratu zirenean, ezin zuten asmatu zein kaletatik jarraitu, ez hainbeste, senak eskatu ohi zien ehizarik inorantz usnatzen ez zutelako, baizik desorientaturik bezala zeudelako euren kuartelaren posizioaz.

—Nor jazartzera bidali gaituzte? —galdetzen dute aurreko jeepetik.

—Gure eginkizuna topatzea da! —darantzute atzetik.

—Sar zaitezte taberna horretara, ea zer giro dagoen —agintzen du Hidalgo kapitainak.

—Hau itxita dago, ene kapitain! —hots egin dute beste espaloitik.

—Itxita nola? Jo atea, edo bota!

—Banatooooor!! —entzuten da barrutik ahots amorratu bat. Guardia zibila dela ikustean, bat-bateko makur-tonuan darrai: —Ene jaunak! Atea bihar ere behar dugu gero!

—Nola daukak taberna itxita? —sumintzen da Hidalgo kapitaina, dagoeneko bera ere oinezko—. Kontsigna ez al zen zabalik edukitzea?

–Barka, jauna, baina inor ez bazetorren, eta etortzeko itxurarik ere ez bazegoen, zertarako egon behar genuen alferreko gastua egiten?

–Txori txiki batzuen gastu ziztrinari begira al hago, herrian subertsioa deklaratu denean?

–Herrian balitz! Gu hemen euli-bikoteei begira gauden bitartean, Mendexa, Ispaster, Oleta, Ondarroa, Markina, Gernika... inguru guztia aberasten ari da Lekeitiotik ezabatutako jendearekin.

–Eskurtsioan, gainera? Jendea ez al dago etxeetan gordeta?

–Ez dut uste, jauna. Joan zen astean izan zen eskarmentuarekin, jendea beldur da etxean egoten.

–Hik itxi duk, ba, taberna, beldur handi gabe!

–Itxi dut, jauna, baina ez beldur handi gabe. Eurok nahi badute, atseginez aterako diet erronda bat berehala.

–Errondetarako gaudek oraintxe! Goazen alboko kafetegira.

–Hau ere itxita dago, ene kapitain! –hots egin du agente aurreratuak.

–Denok al gaude zoratuta? –sumintzen da areago kapitaina, bera ere fenomenoaren barruko sentitzearen higuinez—. Hi ere bai? –oihu egiten dio ate-zaratetara ikaraturik agertu den gizonari.

–Ni ere bai, zer, jauna? –galdetzen du noraezean kafetegiko ugazaba azal-zuriak.

–Kontsigna ez al zen tabernak zabalik edukitzea?

–Ni ez nago nahastaile endekatu batzuen kontsignak obeditzeko, jauna! –nasaitu da, behingoz, eta zangartu gizona.

–Gure aldekoa al haiz?

–Espainia bat eta bakarrekoa, jauna, bere Caudilloa eta guztion Jainkoa lez.

–Joño! –hots egiten du Hidalgo kapitainak entusiasmoz—. Uste diat oraintxe badugula zeregin argi eta eder bat.

Kapitaina berotu zen, eta argitasun miragarri bat izan zuen: tabernak eta establezimendu guztiak erreskan itxiarazi. Herritar ageri bakanen artean egundoko harridura zabaldu zen. Egia ote da jende horren printzipio eragilea extralogikoa dela? Harridura kasik durdimen eskatologiko bilakatu zen apaiz, fraide eta mojen gogoetan, aurkitu zutenean herriko bost elizak ere, parrokia eta lau komentuak, operazioan sartzen zirela. Hilerria ere itxi! Honek bai izan behar zuela nahitaez extralogikoa, zeren, egun hartan hainbeste aldiz entzun zitzaien «denak akabatu» hura benetan gertatzen bazen, zaila zen igartzea hilerria ixtetik zer abantaila itxaron zitekeen.

Arratsaldean, Lekeitioko kaleak eta hondartzak berriro jendeztatu ziren, inoiz baino mukuruago, gizakiaren sen sakon horregatik ezen, balentria ustez eder baina estuen ondoren, masa baten konfluentzia sentitu behar dela. Baita halako garaietan handitu ohi den sentsazio garaileen premiagatik ere. Adorea pilatu behar zen etorkizun hurbileko kinka saihetsezin eta kezkagarrien aurrean.

DON KLAUDIO MUGAN

Hirurogeita hamar bat apaizek Derioko seminarioan itxialdi bat egin genuen, ia hilabetekoa. «Suspentsio a divinis» izeneko zigor kanonikoa ezarri zigun Pablo Gulpide Beope gotzain otsagabiarrak. Hots, apaiz-eginkizunen suspentsioa: meza eman, predikatu, Gure Jauna eman eta konfesatu. Orduan, suspendituok meza alternatibo moduko bat egiten genuen geure artean: testu bibliko batzuk irakurri, geure arteko gogoetak egin eta zenbait kanta abestu. Meza haietan abesten ziren kanteekin eta errezatzen ziren zenbait testurekin, grabaketa bat egin zen gero, Derioko itxialdiaren oroigarri eta iraungarri. *Gogor* zuen izena, eta disko klandestinoa izan zen, nahitaez.

Grabaketa eginik, masterra Iparraldera eraman behar zen, han editatua izan zedin. Baina muga zeharkatu behar zen, merkantzia debekatu batekin. Nor estalki baliosagorik, Don Klaudio baino? Proposatu zitzaion, eta baietz.

Don Klaudio Gallastegi, Bilboko San Anton elizako parrokoa, hiriko pertsonaiarik popularrena zen, bere 140 kilorekin. Igandero, eguerdiko 12:00etan, Bilbon entzun zitezkeen euskarazko sermoi eta iruzkin bakarrak San Anton elizan entzungo ziren Don Klaudioren ahots sendotik, artean mezak latinez zirenean. Euskara baimendu zenean, meza osoa

izango zen euskaraz. Egun batez, itxialdira etorri zitzaigun, «apaiz suspendituentzat» meza ematera eta sermoi bero bat egitera.

Han joan ginen Jose Antonio Retolazaren Mini Morris berdean, bera gidari, ni kopilotu eta atzean Don Klaudio, berau barruan nola sartu zen ez ulertzeko moduan. Aduanara hurbiltzean, esan genion:

–Don Klaudio! Oraintxe da zure ordua.

Gure ezuste dohatsurako, espainiar poliziak aurrera eman zigun. Don Klaudio ikustean, inork ez bide zuen haren miaketan hasi nahi. «Salbu gaituk!» pentsatuz, muga gurutzatu, eta beste aldean, jendarmeeak alto. Irteteko autotik.

–Zer ikusi behar ote diagu oraintxe! –pentsatu genuen aurrekook, eta atzerantz ahapeka:

–Don Klaudio! Ordua aldatu dute, antza. Oraintxe da zurea!

Mini Morrisak bi ate bakarrik zeuzkan. Beraz, gizona atzetik aurrera eta aurretik albora atera behar zen, jarleku altxatuek uzten zuten bitarte estutik. Lautada gris hartan, kotxetxo hartatik, ez gutxi kostata, belztasun inponente hura zutik jarri zenean (Don Klaudio sotanaz), jendarmeak harri eta zur gelditu ziren, hartz beltza aurrean tente agertu bailitzaien. Don Klaudiok, bere trumoi-ahotsez, baina eginkizunaren jakitun, orro egin zuen:

–Orain nor egingo da erantzule, nire gorputz faraonikoa berriz sartzeko pospolo-ontzi horretan?

Jendarme areago harrituek, irribarrea gurutzatuz eta hitz farfailka, jarrai genezakeela adierazi zuten. Don Klaudio autoan sartzen hasi zen, aurrez, atzez, alboz, baina ez zuen

erarik aurkitzen. Finjitzen ari bazen, ezin zen ikuskizun sinesgarriagorik antzeztu.

–Ikusten? –orro egin zuen–. Orain zer egin behar dugu? –Jendarme bat hurbildu eta atea gehiago irekitzen saiatu zen, esanez:

–Ba, hemendixe atera da berori!

–Aurreko jarlekua aterata izan behar du –argitu zuen gidariak.

–Eserita sartu behar al dut? –galdetu zuen Don Klaudiok, jarleku aterean esertzeko planta eginez.

–Ez, Don Klaudio –gidariak–. Lehen ere horrelaxe egin dugu. Lehenik berori eta gero jarlekua.

Berriro sartzen hasi zenean itxura zuzenagoan, jendarmeak dio:

– Egia esan, ez zaudete mugaz muga ibiltzeko moduan!

Don Klaudiok lortu zuen sartzea, eta leihoa beteko burua erakutsiz, oihu egin zien jendarmeei:

–Bueltan ere hemendixe gatozke, ondo askalduta. Pentsa dezakezue operazioa ez dela errazago izango.

–Ongi da! On egin! –jendarmeek.

Salbu zen gure merkantzia xumea, laster *Gogor* diskoa izango zena. Telesforo Monzonen etxean entregatu behar zen, zegokionak han jaso zezan. Adeitsu eta kuraios hartu gintuen, itxialdia eta disko asmoa entusiasmoz laudatzen zituela. Askaria ere, Maria Josefaren esku nobleetatik, arabera izan zen, etxe hartako elegantziari zegokion baino mardulagoa, Don Klaudioren bolumenagatik duda gabe. Bueltan, Mini Morris berdea Biriaturuko mugarantz hurbiltzen hauteman zutenean, jendarme parek zela irten zen.

–Berriro ere eszena potoloa daukagu! –hots egin zuen gidariak.

Eszena greko-klasiko ere dei zitekeen, zeren alto emateko jarreraren zeuden bi jendarneak alde banatara bereizi baitziren, Partenoiaaren zutabeak bailiran. Aurrera keinu amultsua eta suabeki erreberentea egin zuten, arku imintzioa eginez. Kapitela perfektuak ziruditen kapeluen gainean beste jendarne horizontal bat eskatzen zuen harmoniak. Gure Mini Morrisak ohorearen sentipen osoan aurrera egin zuen, eta Don Klaudiok isil-isilik pasatu zuen aduana. Espainiako aldean, guardia zibilen kontrolean gelditu beharra zegoen.

–Ezer badakarzue? –galdetu zuten.

–Begira atzera! –erantzun zuen gidariak.

Guardia zibil batek aurpegia kristalera hurbildu zuen, eta «aurrera, aurrera!» agindu zuen. Mini Morrisak metro batzuk egin zituen, Don Klaudiok esan zuen:

–Uste dut ez nautela ikusi.

SARRIKO

1969ko azaroa. Apaizen itxialdia, Derioko seminarioan, poliziak inguraturik. Iluntze batez, Sarrikoko Ekonomia Fakultatera joan behar zen, itxialdiaren ordezkaritza informatzaile bat eskatu baitzuten. Fakultate hura ikasle mugimenduan puntako zebilen, ekintzetan zein antolakuntzan. Hamarkadako suspertze politiko-sozialaren erreferentzia nagusietako bat. Bertako ikasle izana zen Txabi Etxebarrieta, zeinaren hil batzuk aurreragoko hilketak Euskal Herri osoa astindua baitzuen.

Bi lagun joan ginen. Fakultatea baino kale batzuk beheragoko taberna batean jarri ziguten hitzordua, ikasleen pare bat ordezkarirekin. Aurretik ere itxaroten genuen arren, «espektazio handia dago!» esan zigutenean, zirrara-kolpe urduri batek zeharkatu zigun gorputza, «espektazioa» bezalako kontzeptu suhar baina inkonkretuan elementu aztoragarriak ere nahasten baitziren.

Eraikinera hurbildu ginenean, eguzki sartunaren kontra hauteman genuen atzera-aurrera azeleratua piramideen eraikuntzako mugida prebelikoa iruditu zitzaigun. Tamaina humanoagoan, zuloa itxi zaion inurri-kolonia baten arrapalada. Hurrerago iritsi ginenean, ohartu ginen ordena ezinezko batean sartzeko presan zebiltzala, gehiagorentzat

tokirik ez zegoela entzuteko beldurrez bezala. «Gu handik sartuko gara» esanik, albate baterantz gidatu gintuztenean (ate faltsua zirudien), gure zalantza ez zen gutxitu. Azkenean, eszenatokira iristeko pasabide mehar eta sekretu bat izan zen.

Oihala ireki zen, eta mahai luze eta gotor bat agertu zen, tapiz berde eta izur eseki ugaridun batez estalia. Gure hegailunetik, berbaro zarratua, gorria, usaintsua sumatzen genuen aretoan, opera postumo batera egilea bera zetorrela zabaldu bailitzan. Eszenatokira irten eta mahaian eseri ginenean, berbaro ozena ziztuan uzurtu zen, beraiek dituk, ez dituk, bai dituk. Ikuspen inpresibo hartara lehen begiradak gainez justifikatu zuen espektazioaren premonizio intentsoa. Bostehun laguneko aforodun aretoan baziren beste hainbeste, atze eta alboetan tente, edo erdiko eta aurreko pasilloetan eserita, halako trinkotasunez, non norbanakoz osaturiko batura baino areago baitzirudien mihise erraldoi bat, aingeru esterminatzailearen eztenak pikartatua.

Albo bietako ateaak jada itxita zeudela, atzeko sarrera nagusitik buruen uholde bat bultzaka ageri zen kaletik barrurantz. Temperatura humanoa bero, gori nabari zen, gasen bat askatzera, su hartzeko moduan. Ezin genuen sinetsi dentsitate hura guztia gure hitz koxkorren interesak eragina izan zitekeenik. Ezta guk ordezkatzeko genuen talde osoaren ekintzak berak ere. «Iraultza aurreko egoera» irakurria genuenaren erretratua ikusi uste genuen. Dudarik gabe, 1968ko Euskal Herriko tentsio anizkunaren kondentsazio bat zegoen han. Aurkezleak, entzuleei arratsalde on eta guri ongi etorri eta esker on opaturik, ohar prebentitibo batzuk eman zituen, batzuk guk ulertu ez genituenak. Aurkezleak hitza eman zigunean, hasi nintzen:

–Arratsalde on guztioi! Eta eskerrik beroen-beroenak, gure hitz xumeak horren arreta jendetsuz ohoratu nahi izan dituzuelako. Eskerrik beroenak, bereziki, gure agerpena eta azalpenak ia apaingarri soil bihurtu dituzuelako, ikusi baitugu nolako berri-orri bikain eta ugariak prestatu dituzuen gure ekintzaz, baita zabaldu ere, fakultatetik at, Bilbo guztian. Ez dakigu zer erantsi hain argi eta zuzen laburtu eta ataldu duzuen eta, beraz, ia geuk bezain ondo ezagutzen duzuen mezuari. Beharbada, geure agirian ere aldarrikatzen dugun puntu horixe berretsi bizikiago. Hots, giza adin eta gizarte sail guztion elkartasun antolatuan datzala bizitzen ari garen eztanda orokor eta itxaropentsu honen garapena eta, agian, garaipena. Egon ziur, zuek gure borrokaren alde bezala, geu ere saiatuko garela zuen borroken alde, horrelaxe bakarrik joan ahalko baikara, denok denen alde eginez, Euskal Herri askeago, Euskal Gizarte berdinago eta Euskal Eliza zintzoago bat eraikitzen. Azken eremu hori apaizoi zuzenki dagokiguna izanik, Derioko seminarioan finkatu dugun itxialdiaren zentzua ez da besterik, hain zuzen...

Agiriaren edukia eta bere inguruko estrategiak azaldu genituenerako, aretoan oinen usain mingotsa nabari zen. Bazen usainaren konposizioan lurrin femenino bat ere. Artean abiatzeke edo bakan baitzen emakumeak prakadun janztea, erraz bereizten ziren neskak eta mutilak. Galderen txandan, aurkezleak berak egin zuen lehenengoa, elkarrizketa auzi zentraletan kokatu nahirik, seguruenik.

–Zuen agirian errepikatzen den «Euskal Herri langilea» delakoa «langile klasearen» biguntze ala ordezte moduan ulertu behar da?

–Galdera bihurri samarra jaurti duzu, baina izango ahal gara erantzuteko gai, sasian trabatu gabe. Lehenik, ez litzateke zentzuzko apaiz batzuk hastea iraultzaren edo aldakuntza sozialen teoriak definitzen. Edo marxismoa aldarrikatzen, zure galderak iradokitzen duela dirudienez. Guri dagokiguna da kristauak eta, oro har, herritarrak babestea, bai eurek eskubide zilegitzat dituztenen defentsan, bai defentsa horregatik jasaten duten errepresioan. Eskubide horietan jakitun gara arazo biak nahasten direla, soziala eta nazionala. Jakitun gara, baita, teorian bertan esplizituki nabarmentzen denez, marxismoaren inguruko ideologiek arazo nazionala aise ukatzen edo gutxien dutela. Nahiz eta bakoitzak geure iritzi pertsonala ukan dezakegun, apaizen kolektibo bat ez da nor herritarren ideologiak markatzeko edo zuzentzeko. Eta, noski, balitz ere, eskubide hori ez baitago inori ukatzerik, gure oraingo lehentasuna ez da inondik ere ideologia bat, baizik diktadura baten eta Eliza konplize baten salapen profetikoa. Baina «flatus vocis» hutsean ez gelditzeko, geuk ere ezin baitugu saihestu eskubideen subjektua nolabait definitu beharra, uste dugu «Euskal Herri langile» kontzeptu hirukoitzak egoki integratzen eta zehazten duela arazo nazional eta sozialen batura.

Albate biak ireki ziren, edo ireki nahi zuten, ez baitzegoen jendea nora apartatu. Ate batetik norbaitzuek irten, bestetik norbaitzuek sartu nahi zutela zirudien. Sarrera nagusian zurrumbilo bizia sortu zen, urmael bat goragaletu bailitzan. Pinguino aldra trinko bati oinak elektrizatu bailitzaizkion. Areto guztia berehala tenkatu zen, eta gure hitzak deslari zebiltzan marmario trinko baten gainean. Neska bat albotik sartu zen eszenatokira eta zerbait esan zion belarrira aurkezleari, zeinak berehala iragarri baitzuen ozenki:

–Barka, lagunok! Amaitu egin behar da. Badakizue. Betikoa! Betikoa! –Eta guri ahapeka: –Zuek etorri gurekin!

Eszenatokiaren hondoko atexka batek eskailera mehar batera zeraman, zeinak, ilunean behera, soto batera jaurti baikintuen, neskak piztutako metxero baten atzetik. «Gorde betaurrekoak eta jantzi anorak hauek» –agindu ziguten. Ai, ai!, txilio eutsi batek ihes egin zion neskari, metxeroa hatzetatik saltatuz. Argia egongo zen, baina ez zutela piztu nahi pentsatu genuen, edo ez zutela galdetu nahi non zegoen. Neskak metxeroa berriz piztu zuen, aurkezle mutilak ere berea kliskatu zuen, eta garño bat aurretik, beste bat atzetik eta gu erdian, pasabide estu eta kurbo batean aurrera gindoazen, oinak narraska, oztopatzeko baino beldurrago muturrak hausteko.

–Nora goazen ba al dakigu? –galdetu zuen nire lagunak, eta neskak erantzun:

–Uf! Hau sarritan praktikatua dugu.

Dakienak egiteko numero hobea iritzi genion. Beste atexka batetik, kanpoko argitasunean ginen, nahiz eta enkajonaturik oraindik, zeren bi metroko baranda xaflatuan, arrapala piko, kurbo eta berriz ere estu batetik igo behar baitzen. Fakultatearen uzkitik irteten ari ginen, nonbait, eta uzkiak beti dira ilunak eta umelak. Goian kalexka kedartsu batera jo genuen, norabide bakarrerako ere meharregi irudituko zitzaiguna, auto bat bertan hauteman ez bagenu. Ezertan ez arretatzen saiatu arren, ezin izan genuen ekidin autoa gorri zikina zela ohartzea, marka ere *Gordini*, aluak. Sartu atzean, eta buruak jarlekupera! –agindu zigun gidariak, ikasle izateko baino adintsuago zirudienak. Laster jakingo genuen, bere ahotik, «kausa galduen askatzaile» zela. Autoa tarratadan irten

zen atzeraka kale-zulotik. Eta Bilbotik, suposatu genuen, harik eta nire lagunak, bion buruak aurreko jarlekuen azpian elkar joka, marmartu zuen arte:

–Ez zekiat aurreztu nahi zigutena baino tortura handiagoa ez den berau.

–Hago isilik, biak jasotzea gerta ez dadin –nik.

–Oraindik buruak jarlekupean-da al zatozte? –gidariak.

–Ipurdiz gora, behintzat! –nire lagunak, itoki.

–Banengoen, bai, bazela sunde arraro bat! –gidariak—. Altxa buruok! Sondika parean goaz!

Gure buruak kostata tentetu zirenean, aireportuak leihotik jarraitzen zigun, hegazkin lokartu batetik zintzilik. Handik Derioko seminarioa ez zegoen urrun, Bilboko hilerria albotik bizirik pasatzea lortuz gero. Lortu zen! Eta berriz ere onena izan zen gertatuaren muinaz ezer gutxi jakitea, eskapada bat gehiago izan zela baizik.

DENBORA PARALELOA ERROMAN

Erromako aldirian, Natorni aireportuan lurreratu ginenean, lasaitu ginen ikustean italiar zaratatsuak ezin zirela gai izan gure misioa zelatatzeko hain simulazio natural eta adostuan. Hiru laguneko espedizioa ginen, apaizen Derioko itxialdiaren dokumentua Aita Santuari entregatu behar ziona. Hiru baino areago, bi gehi bat. Edo guztia zuzen zehazteko, bi gehi bat, gehi bat. Lau. Taldearen ordezkari erantzuleak Kaput eta ni ginen, guztien artean hautatuak, kasualki pasaportedun bakarrak ginelako. Beste kide biena ez zen izan hain kasuala. Bizkaitik jesuita ohi bat generaman laguntzaile, zeina Erroman beste jesuita jarduneko batekin konektatuko baitzen. Konpainia horri edozertarako aski aurreikuspen iritzi genion. Jesuita batek jesuita izateari uzteko eta beste batek izaten jarraitzeko ukan ditzaketen arrazoien baturan, munduko printzipio nagusiak bildutzat jo daitezke.

Goizeko bederatziak zazpi gutxiagotan iritsirik Natornira, eta taxiak bidaiari makalagoentzat utzirik, bagindoazen hiri inperialerantz autobus koloretsu bateko goi solairuan. Kolorea edonon dago merke, antza. Autobusak doi-doi utzi gintuen geure operazio basean, jesuita ohiaren agindura, zeinak, ez jakin guk zergatik, «asalto basea» izendatu baitzuen.

–Ederra deitura, moja-komentu bati aplikatzeko! –esan nion.

–Zergatik ez? –jesuita ohiak–. Erromaren dohainetako bat zernahimena da.

Piazza Biribaldi osoki biraturik, kontrako erreiak komentu grisaxka baten albatean utzi gintuen, non, *Ave Maria Gratia Plena* hitzek osaturiko koroï baten barruan irakurtzen baitzen: *Domus Carmelitana Beticelli*. Hiri zati handi bat erdi itsuan zeharkatu ondoren, nekez sinetsi genuen Erromako orube batean geundela non Neronek bere ama Agripina erailtzeko argibideak Senekarengandik hartu baitzituen. Albateak komentuaren ostatura sarrarazi gintuen.

Moja ezagutezin batek (aurpegia belopean) itxarongela handi batean utzi gintuen, esanez artatuko gintuela «zuen arduradunak». Jesuita ohi laguntzailea nora zihoan azaldu gabe ezkutatu zen, eta itxarotea besterik ez zegoen. Geure aieruak hariltzen hasi baiko, beste ezuste harrigarriago batek jo gintuen, atea ireki eta aurpegi belo gabe batek agurtu gintuenean, ez belo kontuagatik hain deigarri, nola esan baitzigun:

–Arratsalde on!

–Ene! Euskalduna?

–Zeanurikoa. Ez al zeundeten jakitun?

–Ez, ez! –harritu ginen–Ea artekoak garen –esan nion–, Zeanurin ahaide asko baitauzkat.

–Nire abizenak: Olabide, Iturriotz, Arteta, Basondo. Gehiago ere badauzkat.

–Bat ere ez dator nireekin bat, beraz...

–Zenbaitgarrenean bat egingo dugu ziur –mojak–. Ondo iritsi al zarete?

–Ondo eta zuzen. Zeu antzinatik al zaude hemen?

–Hogei urte. Erromes etorri, zorteak deitu, gustatu, gelditu.

Sor Missella deitu behar geniola jakinarazi zigun moja zeanuritarra ostatua eta logelak erakustera prestatu zitzaigun, baina lagun desagertuari itxarotea nahiago genuela esan genion. Gu harrera-gelan utzi eta klausuran ezabatu zen, ezer behar bagenuen, zein txilin-kordeli tiratu esanda. Ez genekien zergatik hautatu genuen itxarotea, olagarro bat balkoian bezain tonto gelditzeko. Eskerrak jesuita ohi desagertua laster samar agertu zen.

–To! –agiraka egin genion–. Erroma ez duk lagunak bakarrik uzteko lekua gero! Are gutxiago, laguntzaile etorrita.

–Egon naiz egon beharrekoekin –ezer entzun ez balu lez–, eta bideak aztertuta daude. Dokumentua bihar arratsaldean eramateko gelditu naiz.

Jesuita ohia berriro aldendu zitzaigun esanez ezen, berak Erroma espiritualala usnatu bitartean, guk jarduteko lasai Erroma materiala gozatzen, azkenean handik bueltan ekarri ohi den gauza seguru bakarra horixe ei baita. Ez ginen asmo horrekin etorri, baina saiatuko ginen, geure zereginak prestatutakoan.

Lehenik, *Ofizio Santua*. Hots, *Fede Doktrinaren Kongregazioa* edo (denek ulertzeko moduan) lehengo *Inkiszizioa*. Inkiszizioaren Ofizio Santuan aterik irekitzen ez baziguten, *Sacra Congregatio de Propaganda Fide* instantzia itxuraz bigunagora joko genuen. Fede Propagandan porrota izatera, *Kleroarentzako Kontseilu Pontifizioa* genuen beste aldean, tunel batek loturik. Lurpe sarea seguruago, antza, Ebanjelioak esanaren arabera: «Fida zaitezte ilunetik argia ateratzen dakien Aita zerutarraz». Kontseilu horretan azalduko genuen

Derioko itxialdiak, bere ozenean, ez zuela Bizkaiko kleroaren zati txiki bat besterik islatzen, eta, beraz, ez zuela merezi gurea bezalako ordezkaritza xume bat errezibitzeari uko egiterik.

Jakinaraziko genien klero gehiena ondo kokaturik zegoela diktaduran, edo ondo kukuturik, bakoitzaren beldurren arabera. Giza bihotzetan, ordea, beste sentimendu batzuk ere izan ohi direla, eta gure ordezkaritzaren arbuio publikoak sinpatiazko elkartasun isil bat sor zezakeela, zeina, azkenean, errebeldiarantz lerra baitzitekeen. Funtsean, gutxienez ebanjelio apokrifoetan sartua beharko zukeen Tazitok zioenez, «nam contra punitis ingeniis gliscit auctoritas...». Hots: «Aitzitik, talentu jazarrien autoritatea handitu egiten da, zeren ez errege arrotzek, ez amorru berdinez jokatu zutenek ez baitzuten lortu eurentzat desohorea eta haientzat ohorea besterik».

Aurreko guztiek eta bitarteko tunelek huts egiten bazuten, *Iustitia et Pax Kontseilu Pontifizioa* zegokeen. *Iustitia et Pax* leman, bigarrenak uso hila behar zuen, zeren justizia baden tokian, nor egon zitekeen hain aldrebesik, hori bera baketzat ez hartzekorik? *Pax justa* proposatuko genien, labur eta argi. Nahiz eta Erroman hitzak aspaldi bereizi ziren esanahitik. Berriz ere Tazito aipatuz, indar osoan baitirau enperadore baten izaerak: «Propium id Tiberio fuit scelera nuper reperta priscis verbis obtegere». «Tiberioren jenioa izan zen krimen asma berriak hitz zaharrekin estaltzea».

Eguerdian, espedizioko bi peoiak bakarrik geunden jantokian, Kaput eta ni. Alfila ez genekien noiz agertuko zen, zaldia oraindik ez genuen ikusi, baina hor dator Sor Missella, zopa-ontzi feniziar bat eskuetan-da, burruntzali kortsarioa dirudiena ezker bularrerantz pausatua. Zopa utzi eta joan, ogia

ekarri eta joan, ura ekarri eta joan, ardorik nahi? eta joan, ekarri eta joan, «ahozapiak mesedez?» guk eta joan, bai eta joan, etorri eta joan, ez eta joan. Hainbesteko azkartasuna gugatik bakarrik nola izan zitekeen harriturik geundela, gehiago harritu gintuen *Sienako Katalina* izeneko botila gorrixka batekin mahaian eseri zitzaigunean, trago mistiko bat derrigor jo behar genuela esanez. Bi kopa txiki, benetan txiki, atera zituen golkotik, epel-epel, eta ezin izan genion ironiari eutsi:

–Hiztundu nahi al gaituzu, zertarako ez dakigula?

–Galderari birgaldera –Sor Missellak—. Oker al nago apaizak zaretela susmatzen badut?

–Ez dugu ukatu ere.

–Ez baituzue esan.

–Jakinean zeundela uste genuen.

–Ba, ez. Barka! Oraintxe nator.

Gure jesuita ohiak, gu benetako jesuitarekin kontaktatzeko eginkizuna ekarri zuenak, bazirudien, Erroma zapaldu zuenetik, helburu bakarra gugandik aldentzea zuela. Egiten zituen agerpen laburretan, lehen baino esekiago uzten gintuen, argitasun bat ekarriz eta zazpi iluntasun utziz. Iluntze nahiko beranduan, hor zen bera. *Alkimo* zuen izena. Erroma guztia Kolumelaren goldearekin irauli balu bezalako aurpegia zekarren. «Gestioak hasi besterik ez dira egin». Horixe erantzun zigun, Erromako beste jesuita bitartekaria noiz ikusiko genuen galdetu genionean. Honi ere izen bat esleitzea komeni denez, *Bruno* esan zigun. Ez genekien izen ala ezizen, *Alkimo* bera bezala. Kontua da Bruno eta Alkimoren esku geundela. Biharamun iluntzean ere Alkimo bakarrik itzuli zen. Bruno ez zen ageri.

–Noiz ikusi behar diagu aurrez aurre bitarteko jesuita «oso» hori? –galdetu genion Alkimori.

–Ez dela beharrezko dio. Badaezpada! Zuek zeuen herrira itzuliko zaretela, baina berak Erroman gelditu behar duela.

–Orduan, gu alferrik etorri al gaituk Erromara?

–Dokumentua iritsiko da behar den lekura.

Afal ondoren, gaueko hamarrak aldera, Alkimok bakarrik utzi gintuen berriro, beharbada lo egitera ez zela itzuliko esanez. «Beharbada» hori bagenekien «seguru» zela. Kaput lagunari esan nion:

–Hi! Hemen gure eginkizun direktuoak asko atzeratuko direla zirudik. Uste diat geure denbora paraleloa antolatu behar dugula.

–Ni lotara noak –Kaputek.

–Ba, ni kalera.

Erromako gauean barnatu nintzenean, argirik urrieneko kaleak bilatu nituen, establezimenduen idazkunak doi-doi ikusteko lain. Albinoni kalean, Bar Frescobaldi, Arcimboldo Meloidenda, Bramante Kafetegia, Cannibaldi Janaridenda, Elisabetta Sirani Edergintza eta Bar Pizzicato gainditurik, Piazza di Hostiliano-n agertu nintzen. Ez nintzen geruza ilunera jaitsi zen bakarra, berbaro zarratua entzuten bainuen, begiak itxita. Italiar gehiago nabari nuen, areago hala izan beharra iruditzen zitzaidalako, bazelako baino, zeren kakarraldo-laino baten burrundara zirudien hark gutxiago baitzeukan italieraren zolitasunetik, atzerri aberatsa marmartzera zetorren migrazio turistikotik baino, neu barne, baina ni isilik nengoen. Ez nituen begiak guztiz itxi, baizik zuhaitzak eta posteak jo gabe aurreratzeko lain.

Begiak ixtea zen, ez hiri unibertsal baten sentsazio kaotiko kitzikagarri hura experimentatzeko, baizik Bilbon nenbilela sentitzeko. Hantxe, Ledesman behera edo Txakurkalen gora. Begiak itxita ere, itsu batek baino prezisio handiagoz oinkatuko nituzkeenak eurak, Erroman nenbilela irudikatuz. Badut grina gaindiezin bat, denborarekin dohain eta azkenean bizio bihurtua, zeinaren aginduz munduko edozein hiritako ibileren obsesio nagusia bertan Bilbo sentitzea baita. Bilbotik, alderantziz, munduko hiri guztiak ikustera biziaturik nago. Kontua da nagoen toki hura bera nekez bizi ohi dudala zuzenean. Horrela, hango alderdi txar guztiak saihesteko abantailaren gainean, edonora desplazatzen naiz, bertsolari batek Argentinatik etsiki kantatua nik dohatsuki berretsiz: «Zu ikusteko noiznahi asko det nere begiak ixtia».

Saiakerak merezi izan zuen. Bilbo han zegoen, bueltan maitagarriago aurkituko nuena, Erromaren xarma positibo guztia erantsirik. Orain begiak erabat ireki nituen, Erroman nengoenez gero, hura ere osoan balia nezan. Ez dago merezi ez duen erresumarik, krimen posible guztien ruinak gordetzen dituen bada ere. Giro epelera irtenik, edo non sarturik ez zutelako, Erroma guztia kalean zebilela zirudien. Kalearen izena jakin arte ez bainaiz inon seguru aurkitzen, lortu nuen noizbait idazkun bat aurkitzea: *Vespasiano Etorbidea*. Hurrengo hauteman nuena: *La Fontana di Nefertari*. Aurrera! *Guttuso Kafetegia*, *Bar Allegro*, *Galerio Ostatua*, *Stradivari Musikadenda*, *Vitrubio Materialak*, *Kaligula Harategia*, *Bar Crescendo*, *Tiziano Alfonbrak*, *Piazza di Nabucco*. Eta berbaro inpenetrablea, eta musika deigarria edonon, eta txotxongiloak edozein kantoitan, eta garrasiak ere bai kale txiki transbertsaletan.

Kale ilun batera jo nuen, beste grina zahar bati jarraituz. Ezker-eskuin ostentzen eta inoiz amaitzen ez diren kalek

horiek beti atzitzen naute, nahiz bitartean irakurri: *Kurzio Malaparte Zerbait*, *Germaniko Perdigoiak*, *Vasari Bitxidenda*, *Gordini Torlojuak*, *Bar Tocini*, *Monteverdi Kluba* edo *Norma Biletxea*. Atzitzen naute, edo zurrupatzen, esango nuke, kale mukuruaren itomenetik askatuko nauen aurkikuntza neuretzat eskusibo baten itxaropena edo beldurra direla bide. Itxaropen baino gehiago beldur, baina orain arte inork ez ninduen jan. Lehoiak ez ziren euren harrietatik mugitu.

Bihurgune batean, argiune bat sumatu nuen, idazkun batek eragina, zeinak, hurbiltzean, ez baininduen gutxi harritu, jartzen baitzuen: *Bar Bustini*. Joño! Guztiz hurbiltzean, bi gizon adin samarreko hauteman nituen, ate aurreko mahaitxo batean inguruan eserita, pitxar bat erdian zutela, garagardoa nik uste, edo vestaleen txiza. Adin samarrekoak, agureak, garbi esanda, baldin idazkunaren markoak azpi hurbilera jaurtitzen zuen itzalgunearen inpresioa ez bazen. Pasaeran, barra pegatinaz betean ez nuen inor hauteman, ez barrutik, ez kanpotik. Bazitekeen barruragoko gozoan egotea, eta bi agureak zain edo bueltan, nork jakin. Ez zitzaidan sartzeko tokia iruditu eta aurrera nindoan, ez atzera begiratu gabe, bi agureen tankera azkenengoz ikusi nahirik. Eta hara non aurkitu nuen biak neu seinalatuz mintzo zirela.

Badaezpada, eurt egin nuen eta, neure eskutur hutsa erakutsiz, ordua galdetzeko baliabide tontora jo nuen. Eurek ere, keinu berdintsuekin eskutur hutsak aurreratuz, erlojurik ez zeukatela adierazi zuten. «Tontoari bi tonto!». Orduan, barra hutsa seinalatuz, zerbitzaririk ez ote zen galdera imintziotu nuen, eta eurek ere imintziotu zuten barruan zegoela eta denbora behar izaten zuela irteten. Batek gerriarekin egin zuen kulunkatik atera nuen zerbitzariak emakumea izan behar zuela. Edaria nahi banuen, trago baten

eskain planta egin zidaten euren pitxarretik. Orain nekusan ez zela garagardoa, zerbait transparentea baizik. Ura esango nuke. «Joño! Estimatzekoa hauxel» pentsatuz, onartu nuen eta, munduko milaka hizkuntzetako batean, ausartu nintzen galdetzen:

–Erromaren bisitariak zuek ere?

–Gu, erromatarrak. Bai, bai! Erromatarrak! –markatzen dute esaldi jarraitu bakarrean bezala, harriturik neu milaka hizkuntzetako bat horretantxe mintzo zirela.

–Erroma-Erromakoak ala ingururen batetik etorriak?

–Erromatar genetikoak. Romulo eta Remoren gizaldiraino, behintzat –dio batak.

–Arteko konstantziarik ez daukagu –besteak.

–Lar behera ez al zarete jaitsi zuhaitz genealogikoan?

–Hau Tazito da –dio batak.

–Ta-ta... zer? –galdetzen dut, muturreko bat harturik.

–Tazito!

–Publius Cornelius Tacitus?

–Ipsissimus.

–Berau Lukrezio duzu –eransten Tazitok.

–Titus Lucretius Carus?

–*De rerum natura!* –baieztatzen du Lukreziok berak.

–Hau da ruina bila etorri eta dinosauroekin topo egitea! Eser al ninteke?

–Lehen ez diguzu begiratu hain laztanki nola azkarki –ohartzen nau Tazitok.

–Eser lasai –agintzen dit Lukreziok, aulki bat aurreratuz—. Dinosaurio ez-aktiboak gara.

–Egia esan, tabernaren izenak erakarri nau gehiago azpiko zuen mamu-gerizek baino.

–Eskerrik asko gure definiziora horren zoliki hurbiltzearen –dio Tazitok–, baina taberna hau *Bar Justiniani* izaten hasi zen. Gero jabez aldatu zen, eta ugazaba berriari izen luzeegia begitandu, nonbait, idazkunerako, eta *Bar Justini*-ra laburtu zuen. Halaxe ezagutu genuen mende batzuetan, ataundar batek errentan hartu eta lehen hizkia aldatu zion arte, jentilen inisialik ezin zuela beste ezein hitzetan ikusi eta. Horrelaxe aurreratzen da historia.

–Agurtu nahi nuke ataundar horixe.

–Kostako zaizu –Tazitok–. Alde egin zuen, «bezeroak etortzeari uzten ez ikustearren». Nik uste dut hura beste zerbaitera etorri zela Erromara, Aita Santua ere, bolada batean, larumin arraro batek ezkutatu baitzuen. Zu ere, hortxe-hortxe, nonbait.

–Interpretazio horrek oso tazitotarra dirudi –ahapetzen diot–. Galdera bat onartuko?

–Entzun aurretik ezin dut erabaki.

–Nire duda platonikoa beti izan da (honi duda «kartesiarra» aipatzea alferrik izango da) zuretzat historia ez ote zen izan genero literario bat besterik.

–Tragedia?

–Hara! Ez dut hainbeste pentsatu, baina zure *Analak* eta *Historiak* azpi-genero misto batean sartuko nituzke: komedia tragikoa.

–Azaltzen baduzu, saiatuko naiz ulertzen.

–Esaterako, diozu: «Beste batzuk erremedio gogorragoen aldekoak ziren. Populuarentzat ezer ez duk gutxi. Izu ezak, beldurtzen ez bada. Behin beldurra sartzen badiok, arbuia

dezakek». Edo: «Senatariek erabaki zuten haren liburuak edilek erreak izan zitezela; baina ezkutuan egonik, argitaratu egin ziren. Hainbat arrazoi gehiago, oraingo botereak geroaren oroimena ere iraungi dezakeela uste dutenen ergelkeriari barre egiteko». Honek ez al dirudi historia kontatzea baino trepanatzea?

–Pare bat esaldirekin epaitu behar al nauzu?

–Tiberioz konkluditzen duzu: «Bere jokaera ere denborarekin asko aldatu zen: bizieraz eta ospez nabarmendu zen, hala zer pribatuetan, nola publikoetan, Augustoren menpealdian; ezkutu eta bertuteen simulatzaile engainakor, Germaniko eta Druso bizi zireno; ongi-gaizkien nahaste, halaber, ama hil arte; anker nazkagarri, baina bizioak estaliz, Seiano maite eta beldur izan zuen artean; azkenean, krimenera eta desohorera batera jo zuen, lotsa eta beldurra urrundurik, bere izaera hutsez jokatu zuenean». Zuk ez zenuen Tiberio ezagutu.

–Ez!

–Haren gogo-izaerari eman zenion espresioa zail da datu historiko bat izatea, batez ere, «bere izaera hutsez jokatu zuenean» erremate larrigarri hori. Eta badirudi Tiberio ez zela egoera orokorraren konkrezio bat besterik, hura hil eta oso geroko aro batez baitiozu: «Ezein estamentu ez zegoen beldurretik edo arriskutik libre. Senatuko gorenak, adinez herbal eta bake luzean alfer; noblezia, geldi eta gerrez ahantzia; zalduna, miliziaren ezjakin, zenbat eta saiatuago izua disimulatzen eta ezkututzen, hainbat ageriago izutzen ziren. Ez ziren falta, oster, anbizio tentelez, arma ikusgarriak, zaldi bikainak, batzuek luxuzko oturuntza-tresnak eta plazer-eragileak, gerra-tresnatzat erosten zituztenak. Zuhurren

ardura bakea eta errepublika ziren. Buruarinak eta etorkizunera begiratzeko gai ez zirenak itxaropen hutsalez beteak ziren. Asko, konfiantza agorturik, bakean larri, nahasmenean alai eta zalantzan txit segur». Zuk ezin duzu haren izenik entzuna izan, baina —«plazer-eragileak gerra-tresnatzat», «bakean larri, nahasmenean alai eta zalantzan txit segur»—Shakespeare ere ez zen ausartu horrelako kontudentzia txikitzaile.

—Pentsatzen ari naiz zeuek zaretela Erromaren historia literaturatzat ikasi duzuenak.

—Zu irakurrita, zaila da beste era batera hartzea, diozunean, adibidez: «Garaiko autoreek diote ezen, birjina batek heriotza-zigorra jasatea inoiz entzun gabea zenez, borreroak bortxatu zuela, soka ipintzen zion bitartean». Aldi berean hain anker eta hain piadosoa al zen Erroma?

—Galderaren esaldi berari harridura-marka jarri eta zeuk egin operazioa.

—Orduan, zeure baieztapen soil eta labur bat berrituko dizut: «Aldi berean, Luzio Pison pontifizea, gauza arraroa hain gizon ospetsu batengan, berez hil zen». Agian, horixe dateke zure kontsizioak eman duen obserbaziorik brutalena, zeren, ospe batetik gorakoak berez hiltzea hain arraroa bazen, gizaki soilak nola hiltzen ziren Erroman?

—Horiengan ez nintzen gehiegi arretatu.

—Orduan, baliteke beste aipu bat ondo etortzea: «Erromaren historia handiosak damaidan plazer nagusia da ia inor inportanterik ez zela berez hil».

—Ero-une batean zernahi idatz liteke, baina Erromaren historia plazer hartzeko baino minkiago bizi izan nuen.

—Azken hori ez da zuk idatzia, neuk baizik.

–Banengoen, ba!

–Nik idatzia, zu irakurrita.

–Hm!

Nasalizazio nabarmena irten zitzaien, «Augusto, jainkoen semea» birloratu bailitzan. Garagardo pitxarrari heldu eta «finita est» hots eginik, zutitu eta barrarantz abiatu zen, ageri ez zen zerbitzariaren bila. Txokatu zitzaidan edaria latinez femeninoan entzutea, «Cervisia». Aliziaren lehengusina bat bezala. Gure «garagardo»-k zer genero ote daukan pentsaturik, maskulinoa erabaki nuen, gizonek oraindik emakumeek baino askoz gehiago edaten baitzuten, eta edango ere duda gabe, premia handiagoa izango baitute buruko hutsuneak aparrez betetzeko.

Tazito barrarantz hautematean, harritu ninduen bere altuerak, suposatzen bainuen, ez dakit zergatik, erromatarrek zapal samarrak zirela. Tazitok, atzez begiraturik, ezustetu ninduen, noski, altueragatik, baina batez ere, bere gorputzak pieza errektangularrez osatua zirudielako. Buruak ere errektangulu txiki bat zirudien, adimena forzepe batekin hertsaturik edo *Analak* eta *Historiak* amaitu ezinik utzi izanaren seinale.

Burua abstraiturik, tunika-alkandorak estilo horaziotarrez estaltzen zuen gorputz-enborra bafle ibiltari bat izan zitekeen, tente-tentea, barruan Sarrionandia bat ezkututzen zuena, zeina ez baitago argi bafletik inoiz irten zen. Gizon batek barra hutsean errukarri ematen zuelako aitzakian, «goazen bertara» hots eginez zutitu nintzen, beldurrez mahaikideak ez ote zidan jarraituko, dena izan baitzen trikimaina bat Lukrezio zutik ikusteko. Ez ninduen dezepzionatu. Tazitorena baino altuera handiagoa aurrerantz okertuxe zeraman, Erroma bezalako hiri

nekatu batean «igo hakit gainera» bezala uler zitekeena. Berehala ohartu nintzen solaskide baxuagoei maiz entzun beharretik gelditu zitzaion bizioa zela. Izan ere, Epikuro misteriosoa beti iruditu zait, haren bustoek diotenaz bestera, gizakume ñarro, arean konkorrak eta buru zapal biribileko, sudur puntatik belarrien kurbadurara zirkunferentzia bat aise trazatzeko modukoa. Ez da erraz ulertzekoa naturak halako engainu bat behar izatea, antzinateko adimenik naturalena elfo itxuran ezkutatzeko.

Barrara hurreratu ginenean, barra-aurre uste baino luzeagoaren hondoko zoko batean bikote bat hauteman nuen, ez hain gazteak ere. Horma kontrako zizeiluan era nahiko zailean besarkaturik zeuden, guneko argi urriaren inpresioa ez bazen. Pareko zoko simetrikoan, gizon bat zegoen mahaitxo batean, kirten urdin eta banda zuriko pitxar gorrixka bati heldurik, ez jakin erdi lo ala aurreko bikoteari begira. Bikotearen itxura ezertaz ez jabetzearena baino areago zen ezertatik babestu beharrik ez izatearena, biek bola bat osatzeko ageri zuten amorrutik.

Noizbait, emakume luzanga bat bistaratu zen barran. Goitik behera begiratzeko emakumea, adatsa burmuin forma garbian txirikordaturik ekarri ez balu, benetako kolore eta guzti, araberrakak lakaren batez, Arcimboldorantz bidean. Atorra beilegi kasik gardenez jantzia zen, moko luzeko eskotez, alde batean lau botoi deigarri zituen, apaingarri hutsak duda gabe, argi baitzegoen eskote hura ez zegoela ixteko pentsatua. Gorputza, halaber, ia bi erditan ebakitzen zuen gerriko arrosa batek, inpresio horixe emateaz beste asmorik nekez izan zezakeenak. Handik beherantz, mokorrak inbutu iraulian xuabeki zabaltzen hasten zirela besterik ez zuen ikusten uzten barra ertzak. Bere hizkera jori eta irritsuan, «signorino,

signorino» besterik ez nentzuen, berriro ezkutatu zen arte, gure pitxarrak garagardo berriz eta mahaiko gizon bakartiarena ez dakit zerez bete ondoren.

–Beste bikote horrek ez ote du ezer gehiago behar? – galdetu nuen onguraz baino jakin-minez.

–Ez dirudi galdetuak izatea eskertzeko moduan daudenik – darantzu Lukreziok.

–Norbera ere jokoan sartzeko gogoia ematen du, apaiza ez banintz.

–Horiek gogoari gehiago begiratzen diote ofizioari baino.

–Badirudi mutila ez zela ase amaren bularrean.

–Neskak ere izan dezake ezin-ase berdina –Lukreziok.

–Baina trebeago da disimulatzen.

–Ez fida pasibotasun femeninoaz –dio Tazitok–. Biak dira emakumeak.

–Nik mutil ikusi dudana emakumea al da?

–Eta emakume ikusi duzuna neure neska-laguna – Lukreziok.

–Oskua! Leku onean sartu nauk!

–Ez ikaratu –Tazitok–. Amaren bular bila dabilena neure neska-laguna da.

–Barka orduan! Baina horiek horrela, zuek honen fresko?

–Hobe da elkarrekin osa daitezen, joan dakizkigun baino –Tazitok.

–Horrela edonon kordatzen direnak zaila da beste batzuekin ez ibiltzea –nik.

–Benoa! Geurekin ere badabiltza –Tazitok.

–Izatez, hartaz hainbeste harritzen zarena ez da bizioa, sen praktikoa baizik –Lukreziok–. Gure solasekin gogaitzen

direnean, «zaudete isilik behingoz!» agindu beharrean, zoko batera erretiratzeko vestale-elegantzia dute.

–Elegantzia izan daiteke, baina erretirak ez dirudi vestaleena. Ezin al dute jardun zuen ezkutuan?

–Ikusiak izatea atsegin erantsi bat da –Lukreziok.

–Zeuek bistatik aldentzea ez al duzue pentsatu?

–Ikuskizun bat galduko genuke –Tazitok.

Logikak ez du akatsik, baina uste dut atzeman dudala bizioaren mapa. Lukreziori auzi batzuk planteatzeko abagune bila nenbilela, exzitaturik, ia lanbroturik aurkitzen nintzen zerbitzaria berriro barrara irten zenetik, nire barne irabioa asmatu bailuen. Lehenengoan deigarri soil egin zitzaidan agerpena, bigarrenean sedukzio brutal bat iruditu zitzaidan, eta egia ala gezurra izan zitekeen ohartu aurretik, uzkornoa urtzerainoko desioak jo ninduen. Horixe zen, antza, erreakziorik naturalena, zeren, Tazitori ahapeka galdetu nionean ea zerbitzaria ere euren «zerkide» ote zen, «zerbitzaria da!» erantzun zuen sikuan, hitzari nire desioaren intonazioa ezarriz. Messina deitzen zioten, eta hogeitazentimetro goragotik mintzo zitzaigun. Ulertzen nuen bezeroekiko goitasun edo domeinu bat hedatu nahi izatea, Erroma bezalako hiri inperialki lizun batean.

Nire gogoak ezin zuen sedukzio «brutalarena» saihestu, ukondoak barran solastun pausatu zituenetik, hainbestearino ezen ez bainintzen ausartzen ia bular osoetara sakontzen zitzaion eskotera begiratzen, beldurrez igar zezan zer pentsatu nuen. «Buah! A zer surfaldia hortxe!». Desioa uzkornotik gorgoileraino igo zitzaidan, barne zirrara batek berretsizidanean inork ez zekiela Erromara zertara etorri nintzen, are

gutxiago apaiza nintzenik. Bide hura erabat mozteko, Lukreziori zuzen erasan nion:

–Nola daiteke zu gaur arte iritsi izana, zibilizazio kristau zein paganoen arbuioak kasualki pasatzen utzi zuen kodex baten kopiatik?

–Kasua horrela izan bazen, kasualitatea arrazoi bat dela onartu beharko.

–Konturatzen al zara *De rerum natura*-ren ondorengo zientzia guztia ez dela izan zuk irudikatu printzipioen garapen bat besterik? Eta gizateriaren izate miserablea ere, zure adimen moralera hurbildu ezinaren ondorio bat?

–Izan daitekek.

–Eta bai bata eta bai bestea (zientzia eta morala) bereizezintzat jotzetik, antzinateko eraikuntza poetikorik kolosalena burutu zenuela?

–Hori ere izan daitekek.

–Denean arrazoi ematen badidazu, ez dakit nola eratu behar dugun debatea.

–Zer esatea nahi duk? Bi mila urtetik gora igaroak dituk, eta ezin ditiat auzi guztiak zehazki berritu.

–Berehala gogoratuko dizut bat: «Honetan, beldur naiz – diotsozu Memmiori–ez ote duzun usteko zientziaren elementu inpioetan abiatu eta gaizkintza bidean sartzen ari naizela. Aitzitik, ordea, erlijioa bera da sarritan gaizkintzak eta inpietateak eragin dituen. Horrela, Aulide-n, danautarren buruzagi haitek, gizatasunaren eredu haiek, Hirubidetako Birjinaren aldarea Ifianassaren odolez dorpeki orbaindu zuten».

Eta biktimatzat immolatu zuten neskatoaren kasu erdiragarria kontaturik, ondoriotzen duzu: «Horrexen besteko

txarkeriak eragin ditu erlijioak. Izan ere, zenbat ameskeria asma dezaketen, zure biziera aldarazteko eta zure zori osoa beldurrez lokatzeko!».

– Nik ez nitian jainkoak eliminatu –Lukreziok–, euren munduan bizi zitezen utzi baizik.

–Ez dakit euren mundu hori zein izan zitekeen, beste pasarte batean baitiozu: «Unibertsoa ez dago ezein aldetarantz mugatua (...). Ez dio ardura bere zein aldetan aurkitzen zaren; hain ez dio ardura ezen, bakoitza dagoen lekuan dagoela, unibertso berdin infinitua hedatzen baita norabide guztietarantz». Zuk nor den jakin ezin duzun Pascalen unibertsoari buruzko formulazio batek erabat kolpatu ninduen: «Unibertsoa da esfera infinitu bat zeinaren erdigunea toki guztietan baita eta zirkunferentzia inon ere ez». Zurea irakurri nuenean, Pascalena zure kopia bat iruditu zitzaidan.

Neurera itzuliz, galdetzen jarraitzen dut Lukreziori:

–Non bizi zitezkeen jainkoak unibertso infinitutik at, suposatu zenuen hutsunean ez bazen?

–To, to! Hutsunea lehenkien mediotzat suposatu nian. Hots, materia berdin lehenkiak gehi hutsunea.

–Horrek ez nau harritzen beste honakoak adina: «Denbora bera ere berez ez da existitzen; gauzek eurek sentiarazten dute zer burutu zen iraganean, zerk dirauen eta zerk darraikeen. Aitortu beharra dago inork ez duela denbora bere hartan sentitzen, gauzen mugidatik edo gelditasun mazaletik bereiz». «Tempus item per se non est». Geroztik ez zaio, ba, gutxi ekin existitzen ez den elementu horri!

–Giza adimenaren ezaugarri bat duk –Lukreziok–ez diren gauzei ekitea direnak saihestearren.

–Sineste eta sineskera orori arrazoia jan zien batentzat ez duzu hiririk aproposena hautatu bizilekutzat.

–Neure hiria duk!

–Zurea zer da? Zientzia ala poesia?

–Galde eta galde ari haiz, eta oraindik ez duk heure burua aurkezteko adeirik izan.

Gabon esan eta ostatura itzultzea erabaki nuen. *Domus Beticelli*. Hemen duk. Lehen ez al zuen jartzen *Domus Carmelitana Beticelli*? Atea kontuz-kontuz irekitzen hasi nintzen, eta ondo ireki zen, kurrinka gabe. Badirudi moja hauek ondo zaintzen zituztela gaueko klandestinitateak. Pasilloaren hondoan, zoruko argi firrinda batek jantokia izan zitekeena seinalatzen zuen. Atea irekitzean (jantokia zen, bai), harritu nintzen neure bidaide Alkimo bertan aurkitzeaz, ez irakurtzen, ez zain, ez ezertarako itxuran, baina zer bait arraroan aritu izanaren irribarrean.

–Norekin hengoen? –galdetu nion.

–Sor Missellarekin. Guretzat, Edurne.

–Intxaurbeko Edurne, Zeanurikoa, hemen egon al duk ordu honetan?

–Erroman ez zegok ordu txarrik ezertarako –Alkimok, nire ibilera susmatu balu lez.

–Baina komunitatean, goizaldean, klausura bateko...

–Hementxe egon duk, ba! Gehiago jakin nahi baduk, neurekin egon duk.

–Ba, bila ezak eta ekar berehala. Erroman denbora galtzen eta arriskua irabazten ari garela uste diat. Lehenbailehen pasatu beharra zegok B planera.

Alkimok aurkitu zuen Sor Missella, eta bazetozen bueltan. Gauzak ez zihoazen hain txarto. Atea ireki zutenean, begirada

bihurria sumatu nien, agian neuk eurenganako nituen pentsakizun susmotiengatik. Galdera inofentsibo bat jaulki nuen:

–Moja bat orduotan airean ibiltzea zilegi al da Erroman?

–Apopiloen arduraduna naiz –Sor Missellak–. Suposatzen da eurenganako arreta nagusia gauez pilatzen dela.

–Zeanuriko apaizek ez dakit arrazoi hori nola ulertuko luketen –diot–, baina gu arreta handiaren premian gaude. Erromara ekarri gaituen eginkizunak topea jo duela dirudi, pentsatua zen moduan. Gure asmoa zen, Derioko itxialdiaren ordezkari lez, San Pedroren kupulari jakinaraztea...

–Azaldu dit Alkimok –moztu Sor Missellak.

–Itzel! –animatu nintzen–. B plana abiatzeko moduan gaude, beraz. Alkimok, azken orduan, gure bitarteko ikusezinaren seinaleren bat jaso ez badu, behintzat.

–Ez seinalerik, ez itxurarik! –Alkimok–. Azken berria izan da: «Paperak ahalik goren iritsiko dira».

–«Goren» hori estanpa-saltzailearen kioskoa izan daiteke –dio nire kide Kaputek.

–Ez dakigu –Alkimok.

–Orduan argi dago B plana abiatu beharra.

–Berriz ere B plana? Zer enigma da hori? –galdetzen Sor Missellak.

–Pozten nau itaunak –diotsot –. Ezagutu zaitugun apurretik, ez dago dudarik, fedearen eta Euskal Herriaren alde, idealismo oraindik garbiaren jabe zarela.

–Nik egitekoa ezin da handia izan, sekula ez baita izan –Sor Missellak.

–Oraingoan handiena izan daiteke. Aita Santua maite al duzu? –Kaputek.

–Adoratzera!no!

–Ba, zoaz mentalizatzen –jaurtitzen diot–, Aita Santua hementxe laztandu ahalko baituzu. Jantoki honetantxe.

–Baita zera ere! –purrustatzen Sor Missella–. Ametsetan ezin dut lortu beragana hurreratzea, eta jantoki ziztrin honetara etorriko da!

–Ez arduratu –Kaputek–. Geuk ekarriko dugu. Zuk ez daukazu Ebanjelioen Liburua zabalik edukitzea besterik.

–Erromako urak zoratu al zaituzte? –aztoratzen Sor Missella.

–Entzun, Edurne! –diotsot hurbil eta apal–. Utzi Sor Missella eta izan zaitez, une batez, Edurne Intxaurbeko. Aita Santuak ez gaitu errezibitu gura izan. Gu beragana iristerik izan ez denez gero, egingo duguna da bera ekarri hona, eta Ebanjelioak sinarazi.

–Ez dauka zentzurik! –Sor Missellak–. Aita Santua bera da Ebanjelioen jagole.

–Jagoletzak ez du onarpena esan gura. Ikusi izango zenituen Aita Santuak dogmak aldarrikatzen, entziklikak publikatzen, Kristoren izenean aholkuak, aginduak, anatemak banatzen. Ikusi izango zenituen Ebanjelioa irakurtzen, aipatzen, Ebanjelioen gainean zin egiten. Ikusi al duzu inoiz Aita Santu bat Ebanjelioak sinatzen, esaten lez: «Hauxe naiz ni»?

–Hori bistakoa da! –Sor Missellak.

–Ez da hain bistakoa.

–Jesus! –Sor Missellak–. Elizaren buruaz ezin zarete fidatu, eta sinadura batek izaera aldatuko duela sinesten?

–Probatzea merezi duela uste dugu. Hantxe geldituko da irudi bat, Aita Santua Ebanjelioak sinatzen. Gero, edukia

betetzen ez badu, pentsatzekoa denez, argi geratuko da sinadura faltsua izan zela.

–Baina zer dela uste duzue Aita Santu bat, horrela harrapatua izateko?

–Ez da harrapatzea izango –azaltzen Kaputek–. Desbide txiki eta mingabe bat. Goizeko egintza santuetatik jarraian, hemendik pasaraziko dugu; zuk edo ama prioreak Ebanjelioak irekiko dizkio; berak sinatuko ditu; Alkimok argazkiak aterako; Rossellinik eszena filmatuko; eta hura Vatikanora, eta gu cappuccino bat edatera.

–«Bele» zoroak! Orain itxita zaudeten Derioko seminarioa jakingo duzue zoroetxetzat eraikia izan zela, ezta?

Biharamun goizean oso goiz ibili ginen, gosari ordua baino lehenago, baina baziren goizago abiatuak. Inor ez molestatzearren, eskailerak ahalik isilen jaisteko lan zaila amaitu genuenean, bertan sartzeko asmorik ez genuen jantokiko atean bi lagun topatu genituen, gaua hantxe gure zain pasatu izanaren itxuran. Mustelido sentsazioak jo gintuen. Ea, une batez, jantokira sar gintezkeen, eta guk baietz. Sor Missella eta beste moja bat. Honek, ibilkeratik, dorpeago eta zaharrago zirudien, goizeko belo oraindik nahaspilatu gabeen artean zail baitzen aurpegia atzematea. Mahaian eseri eta argitan aurrez aurre hauteman genuenean, Buonisegnaren *Madonna*-ren aurpegia iruditu zitzaigun. Zahartuago, noski, baina begirakera eta buru-okertze berdinez, urguiluak eta apaltasunak bat egiten duten puntu horretan. Beticelliko ama priorea izan behar zuen.

–Zer da Sor Missellak kontatu didan asmo inaudito hori?

–Ez dakigu zer kontatu ahalko zion berorri Sor Missellak –darantzu Alkimok–. Geuk dakigula, ez dugu ezer alarmanterik aditzera eman.

–Sor Missella! Argitu gure apopiloiei euren oroimen ahanzkorra.

–O, ama priore! Ez ni, arren, estura horretaraino bortxa. Aurkez beza berorrek nik beste dakiena eta nik baino hobeto azalduko duena.

–Ongi da! Dispentsaturik zaude. Egia al da –galdetzen digu ama prioreak, buru alboratua tentetu eta ahalik gehien luzatuz–Aita Santua bahitu eta gure etxe apalera ekartzeko plana duzuela?

–Aita Santua bahitu guk? –hots egiten nik–. Nork amestu du aldrebeskeria hori?

–Aldrebeskeria ala izugarrikeria? –ama prioreak–. Apaiz sano batzuen buruan, nola gara liteke horren buruera munstrosoa?

–Barka berriro, ama priore –Alkimok–, baina hemen munstroak beste bando batean dabiltzala esango nuke. Nola uste du berorrek...

–Sor Missella! Gezurra al da esaten ari naizena?

–Ez, ama priore! –negarrari eusteko ahaleginean.

–Egia al da?

–Bai, ama priore! –negarrez.

–Ama priore! –diot–. Uste dugu Sor Missellarekin bakarrean hitz egin behar genukeela.

Bazihoan ama priorea bere berezko edo adinezko tankera uzkur eta okertuan, sarreran baino oldartsuago irteeran. Bakarrik gelditzeak sor Missella areago larritu zuela zirudien, baina geu ere ez geunden lasaitasunak banatzeko moduan.

Alkimok, Kaputek eta hirurok elkarri bekain-keinu garratz bat jaurti genion, «Erromari su eta ospal» adieraziz bezala, baina mojatxo harenganako erruki fatalez. Sor Missellari deblauki eraso genion:

–Edurne! Nola egin diguzu hori?

–Zer gura zenuten nik egitea? Aita Santu bahitua neure golkoan gorde?

–Nondik atera duzu Aita Santua bahitu behar genuela?

–Gotzaina hil duzue, eta ez duzue ekintza eten gura. Hain bihotz gabe jokutzen dutenei zertarako ez direla gai pentsatu behar da?

–Baina, Edurne! Lehenik, gotzaina guk ez dugu hil. Bera hil da. Eta aita santuari buruz, nola sinetsi duzu bahiketa kimeriko hori? Zeanuriko «kokoek» ere badute hainbeste argitasun lurpean.

–Ene Ama! Amesgaitz hau amaitu al da, beraz?

–Hasi! Istilu ederrean sartuta gaude!

–Gaude? Nortzuk? Non?

–Edurne! Zuen ama prioreak alertatuak ditu karabinieriak eta estamentu guztiak. Ahalik bizkorren ibilita ere, untxiak lez ehizatuak izateko kinkan gaude.

– Zer nahi duzue nik egitea?

–Gauza bat bakarrik. Gelditu zu hemen gure maleta lorrinak zaintzen, itzuliko garela pentsa dezaten, eta gu, hemen garelakoan han. Eskerrik asko!

Erromatik Bilbora eta Bilbotik Deriora intzidente aipagarri gabe iritsi ginen. Gure ordezkari-birak ez zuen lortu Aita Santuak errezibitzea, baina helburu pentsaezin batzuk bete ziren, eta albo-bide eta azpi-bide asko korritu. Ez guztiak arrakastaz, baina bai atsegin errepikaezinez.

GASTIBELTZA GEHI KARAJAN

–Zer koño gertatzen da hemen, denak menditik etortzeko?
–orro egin zuen Canela kapitainaren walkiak.

–Buff! –marmartu zien talkiedun agenteak patruilakoei—. Uste diat gaur gure nagusia bere andrearekin lo egitera behartu dutela.

Jendetza handi bat, gazteak batez ere, elizatik pilotalekura bitarteko plazan, eta pilotalekuan bertan. Musika etengabea han-hemen, trikitia, txistua eta alboka, eta dantza-talde bat, zuriz jantzita, abarketa, txapel eta zinta gorriekin, bernetako txilinen bateria zolian. Guardia zibilaren presentziak eta errepideko kontrolak egonezina zeragien. Has gaitezen lehenbailehen! «*Ikusi, mendiñaleak... Gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak*». Dantzariak, soka eta biraka, plazan tokia hartuz zihoazen. Ez zegoen erraz, ikusleak ere dantzan nahasi baitziren, amaitzerik ez zela izango jakitun bezala.

Alkateak, bere talde leialaz inguraturik, zezen banderillatua zirudien eta jendeak ozenago kantatzen zuen. Alkateak txistulariari tresna eskutik erauzi zion, oihuka: «Hau amaitu da! Ez musikarik, ez dantzarik! Ez dago baimenik ezertarako!». Alkatearen talde leialaren inguruan, polizia sekretuen presentzia nabaria zen. Txistulariak eta dantzariak aurretik erdi beterik zegoen pilotalekura jo zuten. Herri ezberdinetako

dantzariak osatzen baitzuten taldea, txistulariak esan zuen: «Joka dezagun pilotan, herriak herrien aurka». Hiru eta bat zihoazela, alkatea frontisera oldartu zen, orroka:

–Zer kirol modu da hau, hutsak ere berdin txalotzeko?

–Pilotan ere ezin al da jokatu?

–Hau ez da pilota, probokazioa baizik. «Gu euskaldunak gara» eta pitokeriak! Nork ez daki euskaldunak garela?

Meza eman berri zuen apaiza plazara iritsi zen, eta galdetu:

–Zer da aztoramen orokor hau?

–Alkatea sugea irentsita dabil!

Apaiza pilotalekurantz abiatzean, pasillo automatiko bat ireki zitzaion, sotanaren zabalerakoa, bera argala zen baina. Ez zuen asko aurreratu beharrik izan, alkatea baitzetorren aurrez, pasillo guztia eta gehiago betez, halakoxe gorputz puska bera, orroka berriz ere:

–Berori da guztiaren errudun!

–Egidazu, mesedez, hika, gehienez zuka, ez behintzat berorika. Ez dut behar berbetan errespeturik, pertsonari aitortzen ez zaionik.

–Errespetua? –alkateak—. Hau al da abade batek sustatzeko dibertsioa?

–Zer dauka txarrik gazteria dantzan eta kantuan batzeak?

–Zer kantatzen eta zeri dantzan? Hau agitazio bat besterik ez da, berorrek ondo dakizkien helburuetarako.

–Hemen ez zen ezer agitatuko –apaizak—, zeuk deitu ez bazenie errepideko uniformedun horiei eta disimuluan pasatzerik lortu ezin duten sekretei.

–Uniformedunek laster egingo dute egin beharrekoa, jai hau desegiteko eskaria berorrek atoan zabaltzen ez badu.

–Nik?

–Agindua emanda dago. Ezin da ezeren ostentazio publikorik egin.

–Ondo dago. Lagunok! –hots egin zien apaizak jai egileei—. Zatozte elizpera edo txokora.

Elizpea eta txokoa elkarrengandik hur zeuden. Apaizak elizpean gelditu eta hots egin zuen:

–Herritxo hau, gure Zubiaurre maitea, harro eta eskertsu dago inguruetako gazteriaz, gaurko jai gunetzat berau aukeratu duzuelako. Plazan ezin da dantzan egin, pilotalekuan ezin da jokatu, ezin da abestu, ezin da... ezin da ezer publikorik egin. Elizpea, elkarte-txokoa eta bien bitarteko lurra Elizarenak dira. Hemen abadea da agintedun, ez alkatea. Beraz, aurrera jaia! Alkatea purrustan aldendu zen, Canela kapitainarengana: «Jauna! Zerbait egin behar da hemen». Txokoak ezin zuen jendetza hura batera hartu, baina laster eratu ziren sartu-irtenak. Alkateak Canela kapitainari ziotson:

–Abade zapo horri berearekin irteten utzi behar al zaio? Bizkaiko gazteriaren ordezkaritza guztia batu da berton.

–Zuk segi erne! –Canela kapitainak—eta jaso ahal den informazio guztia. Gauzak gradualki egin behar dira, behar den guztia egin ahal izateko.

Eguerdiko ordu batean, dibertsioak jarraitzeko sasoirik onena zirudienean, bat-batean zerbait arraroa gertatu zen Zubiaurren, fenomeno arbitrarioa bezalako bat. Jendarte guztia hasi zen joaten, norabide guztietan: oinezkoak, etorriak ziren mendietarantz, eta motordunak eta autodunak (hauek oso bakanak oraindik), herriko bidegurutzeak ematen zituen lau aldeetarantz. Ordu laurdenean, herria hutsik. Salbu alkatea

eta bere lagunak, paisano eta armadun. Canela kapitainak, fenomenoaz ohartu zenean, uluka eraso zion alkateari:

–Zer koño gertatzen da hemen? Zergatik doaz denak?

–Nik zer dakit! –alkateak.

–Goazen Gernikara –Canela kapitainak–. Gaur ez bada bihar, zail da denak handik ez pasatzea noizbait.

Indar ageriak eta sekretuak eta kalifikazio zaileko agintariak Zubiaurretik erretiratu zirenean, herri txikia hustasun inponente baten azpian gelditu zen, luzerako hedatu baitzitzaion egun hartatiko entzute kasik enblematikoa.

Zubiaurreko apaizari elkartasuna adierazteko eguna izan zen, honek bere goizeko sermoian aipatu zituen ildoetan: «Elkartasuna eta elkar lana, elkartasuna eta elkar kontzientzia, elkartasuna eta antolakuntza, Euskal Herriak zorionez bizi duen pizkunde honi azelerazio jarraitu bat eta norabide argi bat emateko».

Elkartasun-egunaren motibo zehatza izan zen Zubiaurreko apaizaren epaiketa bat eta ondoriozko kondena, 1964. urtean. Gerraoste luzean, gehienen desesperaziorako luzatzen ari zen diktadura amaigabea, motibo politikoengatik epaitzen eta kondenatzen zuten lehen euskal apaiza izan zen. Berria gori-gori zebilela, kontsigna bat zabaldu zen Euskal Herri osoan, igande jakin batez, Zubiaurren jendetza bat biltzeko, apaiz epaitu eta kondenatu berriaren elkartasunez, eta pizkundeari bultzada bat gehiago emateko helburuz. Beste olatu bizi bat, olatu nagusiari gehitu zitzaiona.

Espainiako hiriburuan izango zen epaiketara apaiz ugari inguratu zen Euskal Herritik, baita penintsulako zenbait aldetatik ere, Zubiaurreko apaizari elkartasun publikoa erakustera. Artean oraindik guztiak sotanadun zirela, Madril

ez zegoen ohituta halako marea beltzik ikusten, non eta epaitegi aurrean. Oihu bakan, kasik akzidental batzuk, gehienak femeninoak, entzuten baziren ere (*¡basuras separatistas! ¡cuervos falderos! ¡bastardos terroristas!*), gehienen erreakzioa deskonfigurazio biologiko bat bezalakoa izan zen, tanpez animalia irrealak agertu bailiran. Edo errealak, baina toki guztiz ezinezkoan, denborarekin miraritzat erregistratu ohi diren errakuntza naturaletako batean.

–Betor lehen lekukoa! –agindu zuen auzitegiko mahaiburuak—. Izen-abizenak, mesedez?

–Agurtzane Belaustegigoitia Zarakondegi.

–Abizen horiekin hasi al zinen oinez?

–Ez naiz gogoratzen oinez nola hasi nintzen, jauna.

–Argi dago hasi zinena! Akusatuaren lagun intimoa al zara?

–Intimoa inondik ere ez, jauna, eta laguna ere, nekez. Ezaguna soilik, eta urruna.

–Nondik ezaguna?

–Herri Gaztediko kontseilari den aldetik.

–Hartaz akusatua den bere sermoia entzun al zenuen?

–Irakurri bakarrik, jauna. Caracasko *Gudari* aldizkariak gaztelaniaz argitaratu zuen. Baita, geroago, Baionako *Enbatak* ere, frantsesez.

–Nork bidali zituen itzulpenak aldizkari horietara?

–Aldizkari horiek Caracasen eta Baionan legalak dira, jauna.

–Baina Espainian ilegalak!

–Baiona eta Caracas ez dira Espainia, jauna.

–Betor bigarren lekukoa –mahaiburuak.

–Gergorio Antselmo Zamarripa Arantzamendi.

–Abizenekin nahiko kalbario genuela, izenak ere deabrutu behar al zaizkigu orain? –kargu hartzen dio mahaiburuak– Esan izenak bakarrik.

–Gergorio Antselmo.

–Auzitegiak jasotzeko moduan ezin al dituzu esan?

–Nire jaiotza eta bataio agirietan horrelaxe datoz, jauna.

–Non eta noiz jaioa zara?

–Bizkaiko Bermutegin, Bigarren Errepublikako lehen urtean.

–Ez al dakizu Errepublika hura derrotatua izan zela?

–Batzuk bizirik gelditu ginen, jauna.

–Ezagutzen al duzu akusatua?

–Motiboak baditut.

–Zer zara berea?

–Parrokoa.

–Entzun al zenuen sermoia?

–Entzun ez, beste eliza batean meza eman behar bainuen, baina irakurri bai, astebete lehenago aurkeztu baitzidan, zer irizten nion.

–Zer iritzi zenion?

–Eskolastikoa, jauna.

–Zer esan nahi duzu «eskolastiko» horrekin?

–Logika osokoa. Zintzoa eta zuzena, alegia.

Horrelatsu joan zen epaiketa luzea, harik eta akusatuaren txanda iritsi zen arte. Gastibeltza abadea bere sermoiaren testura atxiki eta mugatu zen. Ez zuen handik atera, ez epaimahaiak, ez fiskalak, ez defentsak, argudiatzen baitzuen bere sermoia bera zela aski argi eta argitzaile, galdetzen zitzaion edozertaz. Hona hamabost bat minutuko sermoiaren,

Madrilgo Entzutegi Nazionalean epaitu zutenaren, pasarte batzuk :

«Gernikako Guardia Zibilak daukan eskubidea erabiliz, batzuk interrogatuak izatera deitu ditu, euren artean 16 eta 17 urteko sei gazte eta gizon heldu bat. Interrogazioan zehar, gazteetako bi torturatuak eta gizona kolpatua izan da. Interrogatuen errurik ez da egiaztatu. Egintza hori ez da gizakiei dagokiena, hain gutxi autoritate bati. (...) Zoritxarrez, kasu hori ez da ezagutzen dugun bakarra. Euskal Herriko komisariatetan, sarritan torturatzen da azken urteotan. (...) Agintariek uste dute istilu guztien sorburua abade bat eta bere inguruan egiten diren batzarrak direla. Abade hori neu naiz.(...) Denak interrogatu eta euretako bat torturatu ere egin ondoren, ez dute errurik aurkitu nirekin batzen diren gazte horiengan. (...). Euskal Herriaren eskubide politiko, sozial eta kulturalak ezin dira izan inor zigortua eta torturatua izateko arrazoi. (...).

Amaitu aurretik, bi ohar egin nahi dizkizuet. 1) Sermoi hau irakurri egin dut, den-denean idatzita gera dadin. Horrela, interesa daukanak irakurri ahalko du, eta esan dudan guztiaz jabetu. 2) Badira gauzak autoritateen aurka doazenak, ez autoritate direlako, baizik gizakiaren eskubideak defendatzen jakin ez zutelako. Egunen batez, joera ezberdineko beste autoritate batzuek giza eskubideak zapalduko balituzte, neure ahotsa jasoko dut, gaitzesteko. 1964ko Azaroaren 1a».

Epaiketa amaitu zen, epaia laster publikatu zen eta zigorraren betearazpena, edozein egunetan izango zela itxaroten zena, atzeratuz zihoan, helegiteak eta tramiteak bide. Gastibeltza abadeak bizitza normala egiten jarraitu zuen. Lau urte halaxe igaro ziren, aurrera zihoan giza olatuak kasua ia

joantzat zuela. Bat-batean, atzerapen guztiak aurreratu ziren. Gastibeltza abadea Gernikako kultur etxean zela, polizia sekretuak inguratu zitzaizkion, eramateko agindua zutela esanez.

–Eroan nora?

–Badakizu komentu batera joan behar duzuna.

–Ba, ez! –Gastibeltza abadeak–. Kartzelara bada, joango naiz. Komentura bada, tatarrez eroan beharko nauzue. Eta baterako zein besterako, badakizue, ni eroateko, gotzainaren baimena behar duzuela.

Artean, kultur etxean atzera-aurrera zebilen jendeaz gainera, kaletik jende berria sartzen ari zen, tximino artean alarmak bezain bizkor korritu baitzuen albisteak: «Gastibeltza abadea atxilotzen ari dira!». Apaiz bat atxilotzen inoiz ikusteke ziren gernikarrak eta bertara bildu ohi ziren albo-herritar ugariak, poliziak kultur etxea inguratu zuenean, ikaraturik gelditu ziren ikusten baino sinesten zailago zitzaien eszenaz: bi poliziak, beso banatatik heldurik, apaiza arrastaka zeramaten.

Egunsentia urratzen ari zela, ibai baten eskuin ala ezker zen ez genekien ertzetik gindoazen. Eguna argitu ahala, ibai ertzean forma guztietako leihoak irekiz zihoazen. Goiko ikuskizunetik gure begiak lurreratu zirenean, jabetu ginen, gure ibaiaren bihurgunea barik, bi ibai handiren elkargunea zela. Entzuten genuen nola Carrionek ziotson Pisuergari:

–Tori! Nekatu naiz joaten.

–Elkarrekin joango gara –erantzun Pisuergak.

Ibai batua eguzkirantz zihoan zuzen, bere azalean dzistada bizkor eta zorrotzezko plataforma luzea hedatuz. Ezin zen aurreratu, begiak itsutzen baitziren. Bi ibaien barrualdean landaredi freskoa begiztatzen zen, baita usaintzen ere. Bazirudien gau hark erdituriko egunak mirarien gainditze etengabea izan behar zuela. Eta hasperen egin genuen:

–O! Hauxe da bere bila etsi genuen Edena!

Zoru lau-lau eta uneka txit suabeki inklinaturiko baratzean, milaka fruitu-arbolek hain zabaldi markatua eta trinkoa garatzen zuten non beste aldeko hegala, ibai ertza izan behar zuena, ez baitzen nabari ere. Unibertso kasik piktoriko hartan barnatu ahala, etorbide baten urrunean, giza irudia zirudien bat hauteman genuen. Guganantz zetorren, eta distantzia batera hurbildu ginenean, ezagutu gintuela igarri genion, gure zain egon bailitzan. Ba, bai! Bera zen eta gu ginen. Besarkadak txandatz, hots egin genuen:

–Gastibeltza! Nola ekarri zaituzte hona?

–Egiten dakiten era bakarrean.

–Baina hau zer da?

–Monasterio handi bat. Dueñasko Trapa deritzon zister-etxea.

–Hara! Pozik egongo dira zu bezalako apopilo batekin.

–Batzuk bai. Behe mailako monjeeekin oso lagun egin naiz, atezain, ostalari, ortuzain eta abar. Abat nagusia *Fuerza Nueva* hartzen dutenetakoa da. Eskuin muturreko aldizkaria. Bidaian dabil beti. Negozio ezkutuetan, neure susmoa.

Gastibeltzak gidaturik, baratzeke kale nagusia zirudiena hartu genuen, eta joan eta joan, zuhaitz ilara argitsuak atzean utzirik, ez zen behingoan agertu hiru solairuko monasterio iluna. Alde batera eta bestera, hogeitik gora komentu-leihok

aldamentzen zuen erdiko kanpandorrea kenduz gero, kartzela itxuratik ez zebilen urrun. Horrek ohartarazi eta gero pentsarazi zigun zer elkarren erlazioz eta zein norabidetako eraginez izan ote zitekeen kartzela eta komentu askoren arkitekturak hain antzekoak izatea, barroteak barne. Detaile batzuk salbu, hala nola aipatu kanpandorrea, garitak, kanpo-esparrua, eta gutxi gehiago. Monasterioaren atariko zelaira heltzear ginela, neska-mutil bikote bat agertu zen bertan, zerbait galdetu nahirik bezala. Zuhaitz artetik soilunera irten ginenean, bikoteak eta Gastibeltzak berehala elkar ezagutu zuten, eta besarkadak odolaren beroan eta ihintzaren freskoan luzatu ziren.

–Nola baina zuek hemendik? –Gastibeltzak.

–Atzo ezkondu ginen –hasi zen neska—. Promestua genuen: «Gastibeltza bisitatzuz hasi behar dugu bidaia».

–Hunkitzen nauzue benetan. Egunero dator norbait, zuen moduan.

–Ondo hartzen al zaituzte?

–Gaizki ezin naute hartu. Baina hau guztia, Trapa baterako, alterazio handiegia da.

Baratze edenikoan sartuz batera, auto hotsa entzun genuen atzean. Bi bikote irten ziren bertatik, adinean nahiko gora. Gastibeltza hurbildu zitzaien, eta aspaldi erdibituriko bi mundu berrosatu balira bezalako besarkadak izan ziren. Berehala, autobuskada alai, gazte, kantari bat iritsi zen. Eguna aurreratu ahala, bisitari gehiago etortzen ari zen, bikoteak motorretan, auto garbitu berriak, beste autobus txiki gorri bat, motxiladunak ere bai, Palentzian trenetik jaitsiak. Monasterioa euskaldunen erromes gune bilakatua zen. Arratsaldea iluntzerantz zihoala, Gastibeltzak esan zuen:

–Monasterio aurrean hainbeste lagun pilatzea ez zaie gustatzen. Goazen baratzean barrura, izugarri eder eta aberatsa baita.

Eguzkia bazihoan beherantz, eta fruitu-arbolen kale estu eta amaigabeetako batean, mihisedun asto bat hauteman genuen. Beronen hiru zango mehe eta zabalkorren artean, bi gizon-zango ikusten ziren, apur bat arkutuak, eta bat egin behar zutena baino doi bat beherago moztuak. Handik gorakoa, mihiseak ezkutatzen zuena, margolari bat zela suposatu behar zen, noizbehinka esku pintzeldun bat ageri baitzen alborantz, euliren bat uxatzen lez.

–Tematurik dago –azaldu zuen Gastibeltzak–nire egoeraren sekuentzia bat margotu behar duela.

Berbarora, mihise ostetik burua atera eta hauteman gintuenean, berehala hurbildu zitzaigun margolaria, koadroa eskuan zekarrela. Metro bat garai eta hiru laurden zabal zen mihisean, billar mahaia bezalako fondo berdean –berde ilunkara islakorra–, Gastibeltza izan behar zuen giza irudi beilegi bat zegoen. Gerripea gogo handi gabe estaltzen zion oihaltxo beltz batek salbatzen zuen biluztasun osotik, Kristo gurutzatuaren antzera. Begiak eta gainerako hazpegiak ere: bekainak, sudurzuloak, aho pitinki irekia, eta batez ere masail-ildo bertikalak, bekokiko izur transbertsalen bila igo nahi zutenak, beltzak ziren. Begien irisa beilegi felidoa zen, eta ninia berriro beltza. Margolan guztian, aipatu hiru koloreen presentzia (beltz, hori, berde) hain zen nabaria non beste koloreen baztertze deliberatua ulertu behar baitzen. Nahitako sinpletasunak nahi gabeko biolentzia bat iradokitzen zuen, ikuspenari deserosotasun kezkarria ezarriz.

–Honek Gauginen Kristo horiaren bertsio bat dirudi –jaurti zuen batek.

Margolariak ez zuen berehala erantzun.

–Ez zabiltza gakotik urrun. Hain zuzen, inpresio horixe saihesteko, fondo horiaren gainean gizon berdea jartzeko tentaturik egon nintzen, baina gero berdearen gaineko beltzei efektu makarristegia iritzi nien.

–Orduan, atera beharko dugu ez dagoela argi Gastibeltza ala Kristo bat margotu nahi izan duzun.

Erreparo horrek margolaria kitzikatu zuela zirudien, berehala hasi baitzen diskurtsoan, ea orain arte ez ginen konturatu arteak Kristorik mazalenak ipini dituela gurutzean. Velazquezen *Kristo Gurutzatua*, adibidez, zeinaren txima eroriak gehiago baitirudi lo gozo bat disimulatzeke jarria, artistak bere gustura lortu ezin izan zuen eskuin masaila estaltzeke baino, margolariaren esanean.

–Arantzazuko *Kristo Gorria* ez dakit, ba, «mazalen» artean sartzekoa den! –ironizatu nuen.

–*Arantzazuko Kristoa* oso haserre dago norbaitekin, seguruenik bere egilearekin –sententziatu zuen margolariak–. Nik ez dut espresatu nahi Gastibeltza amorratu bat, baizik Gastibeltza gailen bat. Nire fondo berdeak Basterretxearen fondo ilunaren eta Velazquezen fondo beltzaren garaipena izan nahi du.

Norbaitek On Kixote aipatu zuen, eta bat-batean, mihiseko giza irudi luze, argal, amesti, goseti hartan, mantxatar oskorriko kimera inkarnatua ikusi genuen, geunden lurraldean guztiz naturala bera, lautadak, lehen eta azken argietan, gerizei zemaian luzera amaigabeen arabera. Gastibeltzak bazuen aire fisonomiko bat, On Kixoteren zenbait errepresentazio

ebokatzen zituen, gorputzaren luzera mortifikatuan baino areago, urrunera begiratzeko planta garaile eta kokots aurrerratu hartan. Horizontearen haraindia beronen gainetik ikustea bailegokion.

Bat-batean, margolariak, koadroa esku batean dilindatuz toreroak muleta bezala, solemneki interpelatu gintuen:

–Ezagutzen al duzue Von Karajan?

Gehienen ezjakin keinu nabarian, aurpegi azala gora eta behe-ezpaina aurrera, batzuk ez ginen ausartu baietz esaten, margolariarengan atzeman zen sorpresa asmoa zapuzteko beldurrez.

–Izenik entzun ere ez? –berak–. Herbert Von Karajan! Austriako orkestra-zuzendari ospetsua! Kristo eta beste izen suprahumanoen ebokazio posibleek asko atsegintzen naute, baina margo honetan nahi nuena zen Gastibeltzaren eta Karajanen sinbiosia. Artista musikal haren eta artista moral honen bisaiak aire berdintsuko iruditu zaizkit beti, fisikoki ere. Bataren eta bestearen profil luzanga eta ildotuan, arraun-pala zizelkatu baten aurpegia nekusan, biengan edozein ur ebakitzeko ausardiak ezaugarri kontrajarriei ere batasun garailea zemailela. Orain, uzten badidazue, lanera itzuli nahi nuke, susmoa baitut pentsatutako asmo guztia burutzetik laster libratu behar nautela.

Polizia sekretuek tarteka egiten zizkioten itzulinguruak iradoki nahi izan zituen, Gastibeltzaren esanean. Honi galdetu genion nola hartzen zuen margolari haren buruera, eta tipo fidagarria ote zen.

–Fidatze eta ez-fidatzeen ardurak ignoratzeko moduko egoeran nago.

–Baina margolariak zutaz dihardu! Nortzat aurkeztu zaizu?

–Ez dit ezer esan eta ez diot galdetu. Bere margolanek era hunkigarrian idealizatzen naute, eta arteari ezin diot gehiago eskatu.

Hamabostaldi bat horrela igarorik, iluntze batez, bisiten eguneko ikustaldia amaitu zenean, polizia talde bat agertu zen, Gastibeltza kartzelara eroateko aginduarekin. Gastibeltzak ihardetsi zuen, gotzainaren baimen sinatua bere begiz ikusi ezik, ez zela kartzelara joango.

–Baina zer koño da hau? –sumindu ziren kasuarekin kokoteraino ei zeuden poliziak–. Komentura ez zenuelako nahi, arrastan atera behar izan zintugun. Orain kartzelarako, mehatxu berdina. Oinez ibiltzen ahaztu zaizu ala komisariatik pasatu nahi duzu?

–Ez naiz ukatzen eramana izatera, baina historiaren aurrean garbi gelditu behar du gotzaina ere nire atxilotzaile dela.

Eta monasterioan ezkutatu zen. Gaua gainean, gorte-neska bat monje jantzita komunitatean dabilela zabaltzean baino nahaste handiagoa sortu zen komunitatean. Polizia ez zen ausartu soto eta galeria monastikoetan barnatzera. Egin zuena zen notario baten urgentziazko presentzia gauzatu, zeinak Bilbora deitu baitzuen.

–On Pablo Gulpide Beope txit garden eta agurgarria al da berori?

–Berbera, Jainkoaren aintza gorenerako. Zer duzue ordu singleotan?

–Berorren apaiz Gastibeltza kartzelatzeko baimena...

Eta abar. Notarioak, behar izan zen denbora baten ondoren, baimen sinatua ekarri zuen, «Otsagiko Txikito» ezizenez ezagutzen zen Bilboko gotzainarena. Ikustekoa ondo ikusirik, Gastibeltzak ez zuen erresistentziarik jarri. «Orain

neure oinez joango naiz pozik, jakinik neure gotzainak bidali nauela kartzelara». Eta Zamorako apaiz-kartzela egun hartantxe inauguratu zen. «Elizaren eta Estatuaren apaiz-kartzela», nondik apaiz eta fraide ugari igaroko ziren, batzuk denbora luzerako, Gastibeltza bera barne.

Estreinako kartzelaldi ez hain luze hura bete ondoren, 1969an berriro kondenatuko zuten, oraingoan hamabi urte eta egun batera, Bilboko Gotzaindegian bost apaizek eginiko gose-greba batengatik. Bertan, mundura zabaldu zen agiri batean, Euskal Herriaren eskubide politikoak, sozialak, linguistikoak eta kulturalak defendatzen ziren, eta errepresioa eta estatuaren «terrorismoa» (sic) salatzen. Hiru egunen buruan, polizia Gotzaindegira sartu zen, berriz ere gotzainaren baimenez (oraingoan On Jose Maria Cirarda), eta bost apaizak atxilotuak izan ziren. «Hiru egun ta erdira, lotu ta komisarira, ardi gaixoak bezala goaz geure hiltegitara». Komisarian, hiru egun. «Geroztik astebetera, tribunal faltsu batera, azaldu ginen geure krimenen kontu ematera. Hamabi eta hamarna urte soinean kolpera». Burgosko tribunal militarra. Kondenaren zenbatekoa: hiruri, hamarna urte. Gastibeltza eta beste bati, hamabina urte eta egun bat. Kondenaren arrazoia: errebelio militarra. Arma bat eskuetan inoiz ikusi gabe. «Noizbait hautsiko ahal da gure uztarria! Hazia sortzen denez lurpean jarria, kartzelan erneko da Euskadi berria».